

Zuzendaritza: Luis Antonio Bilbao Monasterio (kazetaria). Joan Mari Torrealdy

**aurkibidea**

	<b>Zenbaki honetan</b> ... ..	<b>3</b>
<b>LANGABEZIA</b>	<i>Jenaro Garate</i>	
<b>EUSKAL HERRIAN</b>	<b>Langabezia eta ekonomia berria</b> ... ..	<b>6</b>
	<i>Jenaro Garate</i>	
	<b>Marginalismoaren azterketa laburra</b> ... ..	<b>23</b>
	<i>Iñigo Garaialde</i>	
	<b>Langabezia Euskal Herrian: egoera, perspektibak, alternatibak</b> ... ..	<b>33</b>
<b>ORAIN ETA HEMEN</b>	<b>Piaget (Pello Huici). Idazle berrien bila (Joan Alzibar). Histori Saileko berrikuntza (UEU) (Joan Larrinaga). Euskadiko IV Pedagogi Jardunaldiak (Mikel Sagues). Hirugarren mundu-gerra (Joanes Lekerika). Bakantzetan historia ikasi (Gabriel Noss)</b> ... ..	<b>68</b>

GAIAK	Jon Kortazar		
	<b>Euskal lirika gortesauari buruzko oharrak ... ..</b>		76
...HAINBAT ABURU	Joxe A. Otaegi		
	<b>Euskadiren kontzeptua galdu zaigu ... ..</b>		91
	Mikel Hernandez Abaitua		
	<b>Literaturaren eboluzioa eta euskal prosa ... ..</b>		97
AGIRIAK	Pello Salaburu		
	<b>Ereilearen Parabola hamabi euskalki diferentez</b>		100
LIBURUAK	Jon Kortazar		
	<b>Haranburu Altunaren Gernika ... ..</b>		109
	Jon Kortazar		
	<b>Agustin Zubikarainen Esan eta Esango ... ..</b>		117
KULTUR BIDEETAN	Joxe Azurmendi		
	<b>Euskalarien nazioarteko jardunaldiak ... ..</b>		124

Idazkaritza eta administrazioa	Ategorrieta hiribidea, 23, 1.º, esk. Donostia - 13
Jabegoa	Anaidia, Arantzazu
Dep. Leg.	S. S. 25/1977

---

## ZENBAKI HONETAN

Hamaseigarren zenbaki honekin burutzen dugu gure aurtengo lana. Datorren urtean izango dugu besterik eta, ahal bada, are hoberik, jaio zeneko hogeitau bost urte ospatzen ditu eta JAKINek.

1980ko azken zenbaki honetan, aurreko eta ondoko urteotako arazorik larrienetakoari (larrienari ez bada) heltzen diogu. Arazo honen larritasuna aho batez aitortzen dute denek, politikari, ekonomilari zein beste. Problema honen goibeheak aztertzen dituen ikerlan guti dago bazterretan, ordea.

Guri dagokigunez, euskal gizarteak hain dramatikoki sofritzen duen gaitz hau tratatu nahi izan dugu, lehen hurbilketa gisa bada ere. Bi erataria hurbildu gaitzaizkio langabeziari. Zientzia ekonomikotik zuzendu du azterketa Jenaro Garatek. Lehen artikuluan, ekonomia aztertzeko eta ulertzeko (eta langabeziaren hauzia bideratzeko) oinarri berri batzu proposatzen ditu. Bigarrenean, aurrekoaren osagarri gisa, marginalismoaren teoriarako faltsukeria eta praktikazko ekintzagabekeria aztertzen eta salatzen ditu.

Teoriarako hurbilketa honen ondotik, ikerlan praktikoa eskaintzen digu Iñigo Garaialdek. Honek Euskal Herriko langabeziaren ikerketa zehatza burutzen du, beronen egoera, zifrak, perspektibak, soluziobideak, alternatibak zehatz-mehatz agertuz.

*Orain eta Hemen* sailean bada gogoeta eta oharrik franko.

Denen artean, Piaget-i buruzko eta Pedagogi Ihardunaldiei buruzko idazlanak azpimarra genitzake.

*Gaiak* sailean Jon Kortazarek, lirika herrikoiaeren ikerketa sakonagoen zain, XVI-XVII-XVIII. mendeetako lirikaren testu azterketa eskaintzen digu.

...*hainbat aburu* sailean bi lan aurkezten ditugu: Joxe A. Otaegik idarokizunik badu gure ingurune eta une sozio-politikoaren analisirako. Bigarreanean, gerraosteko literaturan poesiak eta prosak izan duten desarroiloaren esplikapen-saiotan dabil Mikel Hernandez Abaitua.

*Agiriak* saileko lana Pello Salaburuk moldatu du, historiaren eta dialektologiaren aldetik testuok duten interesak bultzaturik.

*Liburuak* sailean bi obra kritikatzten ditu Jon Kortazarek, hots, L. Haranbururen *Gernika* eta A. Zubikarairen *Esan eta Esango*.

*Kultur bideetan* sailean Joxe Azurmendik Euskalarien Nazioarteko Ihardunaldien inguruan hainbat hauzi eta arazo planteatzen du.



J. garate  
i. garaialde

## **LANGABEZIA EUSKAL HERRIAN**

### **Langabezia eta ekonomia berria**

Langabezia eta inflazioa. Teoria ekonomiko berria. Irabazia zer da, zertan datza. Langabezia eta kapitalaren mitoa. Politika ekonomikoa eta langabezia.

### **Marginalismoaren azterketa laburra**

Oinarrien adierazpidea. Irabaziei buruzko ekuazio zuzena. Enpresen sektore osoaren irabaziei buruzko formula. Enpresen kuadroa eta kapitalaren kuadroa. Keynes eta Marx.

### **Langabezia Euskal Herrian: egoera, perspektibak, alternatibak**

Langabeziaren definizioa. Langabetuen kopurua. Langabeziaren egitura. Lan-eskaintza. Berreragiketa ekonomikoa eta enplegua. Desenpleguaren eboluzioa berreragiketa garaian. Dagoen enplegua banatzeko neurriak. Enplegua sortzeko politika publikoa. Desenpleguaren kontrako babesa.

# Langabezia eta ekonomia berria

Jenaro Garate

## 1.—Langabezia eta inflazioa

Gaurko egoera/krisi ekonomikoan, arazo bi dira nagusi: langabezia eta inflazioa.

Inflazioaren bildur izango ez bagina, langabezia errazki gaíndituko genuke. Baina, gaurko zientzia ekonomikoak erakusten digunez, inflazioa aurrezkiaren eta inbertsioaren aurka dihoa. Hemen langabezia dakargu aztergaitzat. Praktikan, langabezia gehituz dihoa, inflazioaren aurkako politikari ekitei diogun bitartean.

Politika ekonomiko honen arrazoi zientifikoek sakonak eta argiak behar dute izan, lehenbizi gizaki gara eta, ez politiko edo ekonomilari. Eta mila bider okerragoa da gure gizon gazte bat izurratzea, gure patrika guztiak zulatzea eta hustutzea baino.

Bestalde, ezin uka gaurko langabezia berezia dela. Gizartearen ezagun zaharra izan arren, lehenagoko langabezia izurrite ekonomiko soila izan ohi zen gure baztarretan. Baina oraingo hau izurrite orokorra da. Lehengo garaietako langabetuak honela adieraziko liguke bere larrialdia:

«Lanik ez daukat eta gose naiz. Noiz aterako ote gara krisi honetatik?»

Oraingo gazte langabetuak esaten digu:

«Lanik ez daukat eta nazkatuta nago. Noiz bota behar dugu hankaz gora gizarte eraketa hau?»

Oraingo langabeziaren ezaugarri bereziak hauek dira:

- Ez da gose kontua, giza frustrazioa baizik. Gazteek pentsatzen dute ez diegula parte ematen ogigintzan, arrantzan, eizetan. Hitz batez, ez diegula gizon heltzen uzten.
- Bestalde, ez daukate ekonomian itxaropenik. Konponketa ez, aldakuntza espero dute: gugandik urruntzen eta hondatzen dihoaz, etsipenez.

Zer erantzun behar diegu gure langabetuei, batez ere gure gazteei?

## 2.—Teoria ekonomiko berriaren aurkezpena

Argitaratzeko dagoen UZEIko ekonomia hiztegian, lan bat aurkezten dut, «Marx eta makroekonomia berria» deitua (beste lan-txo batez osatua, «Aurrezkia»z).

Langabeziari buruzko lan honetan ere, hango teoria bereborean oinarrituz ihardungo dut. Eta teoria berri hori inportantea baino inportanteagoa dela uste izanik, bere aurkezpen berezia egiteko garaia heldu dela pentsatzen dut.

Ezjakinak eraginda hasi ziren nere ekonomiazko azterketak. Bost urteko ekonomilari karrera bukatu, eta ekonomiaren oinarrien berri tutik ez nekiela atera nintzen Madrileko Fakultatetik. Argi eta garbi nekien hori. Eta gogo betez agindu nion neure buruari, bizitzan nere gogozko zerbait egiteko, astirik edukitzekotan ekonomiaren zientzia haseratik aztertzeari ekingo niola.

Asmo hura betez, Fakultatean entzun bai eta ezagutu ez nituen zientziaren maisu nagusi izan diren iturri berberetara jo nuen, beste bitarteko oro utziz: Adam Smith, Ricardo, Stuart Mill, Marshall, Keynes eta Marxengana jo nuen.

Azterketa horien ondorioz, oinarri berriak arkitu ditut, ekonomia guztiaren klabe eta kodigo direnak, zientzia honen sail guztiak zuzen irakurtzen jarriko gaituenak.

## 3.—Ekonomia berriaren oinarri berriak

Ekonomi berriaren oinarri berriak hauek dira:

- A) Sistemaren aurrezki orokorra, zero da.

$$\Sigma S_j = 0$$

Egia honek orain arteko oinarri hau uxatzen du:  
sistemaren aurrezki orokorra berdin inbertsio garbia:

$$\Sigma S_j = I_n$$

- B) Ondorioz, enpresen irabazia ( $B_e$ ) binomiala da: enpresen irabazia berdin aurrezkia (dirutan) eta inbertsioa (ondasunetan):

$$B_e = \frac{\text{dirutan}}{\pm S_e} \quad \frac{\text{gauzatan}}{\pm I_n}$$

Urteoro, eta erresuma gehienetan gertatzen dena (OCDE-ko denetan, adibidez), hau da:

enpresek dirua galdu egiten dutela eta produktua irabazi egiten dutela:

$$B_e = \frac{\text{dirutan}}{- S_e} \quad \frac{\text{gauzatan}}{+ I_n}$$

(Ikus beste lanean sinboloen esannahiak).

Egia horiek dira ekonomiaren oinarri berriak, makroekonomian, mikroekonomian eta politika ekonomikoan. Eta, ondorengo orrietan ikusiko dugunez, langabezia beraren azterketa ere argitasun eta ahalmen berrietan azaltzen zaigu. Langabeziaren orain arteko tratamendua okerra eta antzua dela erakusten digu.

Gai honetan, bestalde, ez dago ezeren zai egon beharrik, ez dago inolazko sekreturik. Aurkeztua izan den teoriak behar du zientzia izan, eta ez gorderik dagoenak. Hori bai, kontrastatu eta aplikatu beharrean geratzen da. Nik badihardut honetan. Adibidez, marginalismoa (neoklasizismoaren ardatza dena) aztertu dut. Apendize bezala eskaintzen dizut lan horren laburpena —eta lan honen osagai garrantzitsua dena—, ikus dezazun zein argi erakusten digun non dauden eta zer diren teoria horren hutsa eta errua. Marginalismoa lur jota geratzen da, eguzkiaren argitan.



#### 4.—Banco de Bilbao zientzia ekonomikoaren bideturtean


Langabeziaren arazoa, eta baita azterketa eta praktika zientifiko bera ere, alternatiba honetan jokatzen da: kapitalaren kultuan edo lantegien arduratan. Zientzia ekonomikoaren beraren gorabehera, bideturte horretan jokatzen da. Eta, nik dakidanez, Banco de Bilbao bezain gertu eta aurrez aurre ez da inor heldu bideturte horretara. Ondoko orrian eskaintzen dizut, fotokopiatu (Tablas Input-output y cuentas regionales de Alava, Guipúzcoa, Navarra y Vizcaya, I. alean, 25. orrian) Banco de Bilbao erakusten digun grafikoa.

Grafiko horren sektorerik garrantzitsuen, enpresen sektorearen dela esan daiteke; bere erdi erdian ezarrita dago eta.

Ikusten duzunez, —C— (kapitalaren) sektorea ere agertzen da, eskubian behean.

Horra hor zientzia ekonomikoaren bideturte praktikoa: lantegien koadroa egin, edo kapitalaren koadroaz jarraitu. Banco de Bilbao kapitalaren laukia aukeratzen du bien artean, A. Alcaide Inchausti, W. Leontief eta gaur arteko zientziari jarraituz.

GRAFICO 12/2



Hori konprenitzekoa da. Baina bidegurutzera bertara heldu eta bi bide direla ikusi eta adierazi; eta bide bat betiko utzi, grafiko behean bertan hasita, zergatik esan gabe, ezertarako gehiago aipatzeke: hori kritikarik eza da.

Ezin diot, zientziatik, beste ezer leporatu Banco de Bilbaori, eskaini digun lanagatik eskerrak eman baizik. Baina hori bai: kritikarik eza kritikatzan diot.

Goazen aurrera. Gaurko zientziak baztertu duen aukeran kokatzen bagara, zera aurkitzen dugu: enpresen sektorearen utzitako lauki hori, ekuazio honen baieztapen hutsa dela (ikus *Ekonomia Hiztegia*n nere lana):

$$S_e < 0$$

Hau da, azokako diru harremanetan, enpresen sektoreak dirua galdu egiten duela. Eta ondore hori beste sektoreen aurrezkiekin bat eginaz (kapitalaren laukia utziz) beste hau baieztatzen dela:

$$\Sigma S_j = 0$$

Horregatik, enpresen sektorearen ekuazio adierazlea, honako hau gertatzen da:

$$B_e = \frac{\text{dirutan}}{- S_e} \quad \frac{\text{gauzatan}}{+ I_n}$$

Ekuazio horiek eginda eta zenbatuta daukazu *Ekonomia Hiztegia*n, Euskadiri buruzko 1972garren urterako.

Beraz, Banco de Bilbaok utzi duen enpresen laukiak beregan dakarkigu ekonomia berriaren oinarrizko ekuazio berria.

Familien eta enpresen sektoreek bakarrik osatutako sisteman, enpresen desaurrezkiaren ( $- S_e$ ) desarroiloa, oinarriz, hau da:

$$- S_e = \frac{\text{dirutan}}{(C - L)}$$

Banco de Bilbaoren bitartez zuzen adierazten zaigun gaurko zientziak ez du, zientzia lez, langabezia problema direkto eta oinarrizko bezala aintzakotzat hartzen. Zeren, langabezia langileen arazoa denez jasotzen duen lauki bakarra, enpresen edo lantegien laukia da. Eta lantegien laukia baztertuz eta isileraziz, langabezia

zokoratu eta uxatu egiten du. Ez zaio beste aterabiderik geratzen, langabezia bere kapitalaren koadroaren osagai edo ondoren bezala tratatzea baizik.

Lantegien laukiak lanaren arazoa bere baitan dakar. Kapitalaren laukiak diruaren (aurrezkiaren, finantzapenaren) eta inflazioaren ardura bere baitan dakar. Lantegien laukia ezezagutuz eta kapitalaren laukia onartuz, langabezia inflazioaren ostera eta azpira jaurtikitzen du, ezeren kritika zientifikorik erabili gabe horrenbesteko bidegurutzean.

### 5.—Irabazia zer da, zertan datza?

Uda honetan Joan Robinson eta John Eatwell-en *Introducción a la economía moderna* liburuan («Fondo de Cultura Económica», 233. orrian) honako hau irakurtzeak harritu nau:

«...a fin de comprender el problema central de la filosofía económica —la naturaleza de los beneficios—».

Harritzekoa da, benetan, KAPITALA horrenbesteko ezezaguna izatea, batez ere Mendebaldeko ekonomiaren kritikorik ospetsuen artean. Beste alderdi batetik begiratuz, ostera, ez da hain harritzekoa, Keynes bera ere ez baitzen heldu benefizioak (edo aurrezkiak) zer den aztertzeraz.

KAPITALAren lehenengo bost kapituluaren buruan, galdera horretxi erantzuten dihardu Marxek: *Zer da, zertan datza irabazia?* Bostgarren kapituluaren bukatzen du oinarritzko azterketa hori «Arbeitsprozess und Verwertungsprozess» kapituluaren benetan irakurgarrian. Eta bost kapitulu horiek bere zientzia ekonomikoaren giltzarri bezala ematen ditu. Gero ekiten dio erantzuten «*zenbat da irabazia?*» galderari, plusproduktu absolutua, plusbalio kuota, plusbalio erlatiboa eta abar aztertuz. Zalantzarik gera ez dakigun, gogoratu egingo ditugu Marxen oinarritzko galdera-erantzunak. Zehazki:

Merkantzia berezi batek (lanindarrak) bere erabileran (produkzioan) sortzen duen plusproduktua da irabazia.

*Nork* egina da irabazia? Merkantzia berezi batek, lanindarrak, alegia.

*Non* egina? Merkantzia berezi horren erabil-lekuan, merkantzia hori kreatzaile den unean, produkzio lanean.

*Noiz* egina? Beharrezko lan orduetatik aparte, hau da, pluslan orduetan.

*Zer da?* Plusproduktoa, gauzak.

Filosofia egiten ari ote zen Marx KAPITALAren oinarriak jar-tzean? Hona hemen nere erantzuna, egia aurkituz gero garbi ikusten dudana: Galdera hori da zientzia ekonomikoaren argi bizia, ilunpetik betirako aterako duena.

Gure zientzia ekonomikoa lainoetan eta zuloetan galduta ibili da gaur arte. Gure lan honetako aztergaira etorriz, ordea, zer jakin dezake langabeziari buruz, irabazia langileek, langile direnez eginiko produktoa dela ez dakien zientziak?

Fenomeno bitxi hau aztertu nahian, konklusio honetara iritsi naiz: zientzia fisiko-kimiko-biologikoez ez dute galdetzen, oraindik behintzat, «*Zer da?*» Adibidez, materia, magnetismoa, elektrizidatea, kuantitatiboki definitzen eta adierazten dira, *zenbat* diren esanez.

Itxura onez, zientzia ekonomikoa mimetismo hutsean bizi da, eta ez du nahi gogoan eduki garai hori gaindituta daukagula, Marxi eskerrak. Baina, egia esan, ehun urte galdu ditugu alferrik. Zientzia ekonomikoa Marxek lagatako oinarri berberetan dago, ezer eraikitzeke, nahiz eta ladrillu asko edo gutxi egon alboan, han eta hemen egosiak.

Ehun urteko geldiuene hau argiago gera dadin, egin dezagun beste aprobatxo bat. Zeuri galdetzen dizut, zer da aurrezkia? Zerbait erantzuteko gauza bazara, Keynes baino askoz gehiago zara. Ez badiozu galdera horri orain arte erantzunik eman, saia zaitetz. *Zer da* ahorroa? Dirua da? Ondasuna da? Biak?

Langabeziaren arazoa enpresen jokaeraren arazoa denez, azter dezagun joku hori.

Enpresak joku bikotean ari dira: diru jokuan eta ondasun jokuan. Diru jokua, zerotko jokua da, jokalaria guztiak kontuan edukirik. Baina jokalaria bakoitzarentzat, gal/irabazi jokua da. Praktikan, enpresak galtzaile ateratzen dira diru-joku honetan; familiak, ostera, irabazle.

Ondasun jokua, gehizko jokua da. Eta enpresak irabazle ateratzen dira joku honetan.

Diru-jokuan, enpresek diru gutxi galtzen badute, asko irabaztea lortzen dute ondasun-jokuan, gogor jokatuz eta lan asko emanez/eraginez. Diru-jokuan gehiegi galtzen badute, ostera, moteldu egiten dira ondasun-jokuan, langabezia ugarituz. Diru-jokua da eragile, ondasun jokua eragina.

Beraz, langabeziaren arazoa enpresan sortzen edo konpontzen

da. Eta fenomenorik garrantzitsuena, oinarritz, kontsumoaren eta alokairuen arteko erlazioa da, eta ez dira kapitalaren laukiaren osagaiak: aurrezkiak, inbertsioa, finantzapena.

## 6.—Langabezia eta kapitalaren mitoa

Banco de Bilbaok baztarreko potzura bota digu enpresen koadroa. Joan Robinson-ek eta John Eatwell-ek «irabazia zer den» gaia, filosofiara bidali digute (hor dabilta gero liburu gutxi zerbait aurkitu eta esan nahian, baina ezinean). Batak eta besteek, Keynes-en kapitalaren koadroa lagatzen digute, aurrezkiz, inbertsioz, finantzapenez osatua. Horra hor zientziaren hutsunea betetzen duen mitoa: kapitalaren koadroa.

Inflazioa aztertuko badizute, edo langabezia, edo enpresen aktibitatea, edo beste zerbait; kapitalaren koadroa eskainiko dizute, asma litekeen lantegiaren/langilearen ukaziorik biziena den laukia.


Bestalde, kapitalaren lauki-ekuazio horri jarraituz, baieztapen hauek egiten dizkigute gaurko ekonomiariek:

- A) Langabeziaren soluziobidea, inbertsioaren zuzpertzetik sortzen da.
- B) «Ex-ante» edo «ex-post» (latinajo bat gorabeheran), aurrezkiak finantzatzen du inbertsioa.

Zer nahi dute esan baieztapen hauek?

Diru aurreratua daukanak finantza dezakeela inbertsioa, batetik. Eta aberatsek aurreratzen ohi dutenez gehienbat, aberatsen eskuetan dagoela langabeziaren soluziobidea.

Ikus aurrezkiaren grafiko arrunta, kapitalaren ikusmiratik egina.



Garbi azaltzen da, bataz beste zenbat eta errenta handiagoa eduki, hainbat eta gehiago kontsumitu eta gehiago aurreratu egiten dugula. Zenbat eta aberatsagoa izan, hobeto bizi, aurrezki-sakrifizio gehiago egin gehiago aberastuz, eta langabeziaren aurka biziago jokatu.

Langile hutsa baldin bazara, ez baduzu aurreratzen, zu ez zara zuhurra, ez zara gizartearentzat onurakorra, ez duzu ezer langabeziaren aurka egiten. Eta langabetua baldin bazara... kitto! Kotxau horrek; Eskerrak dirudunek dirua aurreratzen dutela, plus-produktuaren jabetasuna lortzeko asmo sakrifikatuz beterik, zure langabeziaren erruki biziak akuilatuta.

Bide honetan jarraituz, zientziaren hutsunea mitoz betetzen, aberrazio hutsetara heldu gara. Aberatsek aurreratzen dute. Aurrezkiak finantzatzen du inbertsioa. Inbertsioak sorrerazten ditu lanpostuak. Langabetu guztiok bildurik ¡gora aberatsak! Egia esan, nahiz eta harro asko izan, okerrak baino gehiago buru kaskarrak gara, nere iritziz.

## 7.—Politika ekonomiko zaharra eta langabezia

Gaurko politika ekonomikoa okerra da, langabezia eta inflazioa biak batera zuzpertzten ari da eta.

Inflazioa zuzpertzten ari da gaurko politika ekonomikoa, familien aurrezkiak (enpresen desaurrezkia) eraginez, enpresak prezioak jasotzera behartzen dituelako, diru galtze gaititu ezinezkoetatik ihes egingo badu. Inflazioa ere bizkortzen ari dira, korrituak altxatuz, diruaren kostuak diruaren emaitzak baino askoz handiagoak eginaz. Horretara, aurrezkiak inflazioaren kaltea konpentsatu nahian, enpresen kostuak puzten dituzte, enpresen prezio jaso beharrak akumulatuz.

Eta langabezia sustatzen ari dira, kontsumoa gutxituz familien aurrezkiaren bitartez. Zeren  $B_e = -S_e + I_n$  izanik,

$$B_e - I_n = -S_e$$

Hau da, zenbat eta handiagoa inbertsioa, hainbat eta sakonagoak enpresen zor berriak ( $-S_e$ ). Horregatik, bizi ez bizi ari direnean, enpresek ez dute nahi inbertsiorik, zorretan ahalik eta gutxien murgiltzea daukatelako helburutzat.

Alderantziz, inbertitu nahi izatera berriz heltzeko, desaurrezkiaren ( $-S_e$ ) arazoa konponbidean ikusi beharko dute. Eta ho-

rretarako, kontsumo eta lantsarien arteko erlazioa hobegotu behar da, oinarritzko baldintza bezala.

Gaurko langabeziaren edo inflazioaren arazoak ez dira bakanak, ez. Baina gaurko politika ekonomikoa inflazioaren eta langabezia konpontzearen aurkakoa da, kapitalaren lauki mitiko faltuan oinarritzen baita.

### 8.—Politika berria eta langabezia

Gure teoria berria unibertsala da, orokorra da. Irabazien ekuazioak berdin balio du mendebalderako eta herri sozialistetarako. Sistema bakoitzak erabili ahalgo du bere gisara. Zientzia nonnahi eta beti onerako da.

Langabeziaren arazoa, berriz, zientzian datza. Zientzia bete behar dugun egiaz, mitoak betiko uxatuz.

Politika berriaren abiapuntua, dakigunez, egia zientifiko hau izango da:

$$B_e = \frac{\text{azokan zirkulazioan dirutan}}{-S_e} \quad \text{lantegian produkzioan ondasunetan} \quad + I_n$$

Binomio honen termino bietatik,  $(-S_e)$  da gehienbat eragilea eta  $I_n$  eragina, gorago aipatu dugunez. Berdin esanez, Lantsarien (L) eta Kontsumoaren (C) arteko erlazioa da eragile printzipala.

Batetik, kontsumoa eta inbertsioa ez direla aurkariak, elkarren laguntzaileak baizik, esan beharrekoa da hemen, nahiz eta hori demostratzeko garaia ez izan orain. Bestetik, zenbat eta kontsumo handiagoa, hainbat hobegoak izan behar dute alokairuak.

Denera ere, enpresen irabaziaren ekuazioak zehaztasun maila asko erakuts dezake:

$$\begin{array}{l}
 B_e = \frac{\text{azokan zirkulazioan dirutan}}{\text{azokan zirkulazioan dirutan}} \quad \text{lantegian produkzioan ondasunetan} \\
 B_e = \frac{(C-L)}{+I_n} \\
 B_e = \frac{(C-L-D)}{+I_n} \\
 B_e = \frac{(C-L-D \pm S_{eg} \pm S_{ef})}{(I_f \pm I_m - A)} \\
 B_e = \dots\dots\dots
 \end{array}$$

Dударик ez dago, gaurko langabezia eta inflazioa oso konplexuak direla. Nik ez dut sendabide konkreturik emango, lehenago zientzia berriak onartua, zabaldua eta errotua izan behar duelako, praktikan aplikatua izan baino lehen.

Hala eta guztiz ere, nondik nora zuzenduko den politika ekonomikoa aipatuko dut, bai langabeziari buruzkoa eta bai orokorra:

- a) Lehenbizi, enpresen laukia izango da gidari nagusia.
- b) Enpresen desaurrezkiari begiratuko zaio gehienbat, neurri batetik gorago igo ez dadin.
- c) Kontsumoaren eta lantsarien arteko proportzioa lortzea izango da helburu nagusia.
- d) Diru-aurrezkoa, izurrite denez neurri batetik gorakoa, sarien orde zigorak ezagutuko ditu sarriago, bai barne arazoetan eta bai internazionaletan.
- e) Politika monetarioa zeharo berria izango da harreman nazionaletan eta internazionaletan, kontuan edukiko baitu ez dagoela diru eskari-eskaintzarik, elkar konpentsatzen diren aurrezki-desaurrezkiak baizik. Adibidez, kreditu beharrik eza eta erabilkerarik eza onartuak izango dira, tendentzia bezala diruaren manipulazioak utziz.
- f) Problema bezala, langabezia gaudituta geldituko da bertirako.

Ekonomiaren udaberria dator.

Politika ekonomikoa, nolabait, beharrezko izango da. Bakoitzak esango du zenbatekoa eta zeinen eskuetan egon. Beste arrazoi batzuren artean, politika ekonomikoa beharrezkoa da, Say-ren eta Ricardoren legea faltsua delako. Ez dago orekarik, ez dago parririk. Desoreka orekatsuan behar du jarraitu ekonomiak, giza gorputz biziak pausoa ematean bezalaxe.

Zientzia zaharrak eduki izan ditu argiuneak, baieztapen ausartak egiteko adinakoak. Hara zer dioten Joan Robinson-ek eta John Eatwell-ek aipatu liburuko 182. orrian:

La proposición de que, dentro de los términos de estos supuestos, el más alto nivel de consumo (en cada punto del proceso de crecimiento) se alcanza cuando todos los salarios se consumen y todos los beneficios se ahorran, es llamada, a veces, la *regla de oro* del ahorro.

Teoria ekonomikoa egiatik urruti ibili izan bada ere, politika



ekonomikoa askoz urrutiago egon izan da. Urrezko arau hori egiazkoa da, eta ez da praktikara eramana izan, zoritxarrez. Zientzia berritik erakutsiz, zera nahi du esan: aurrezki motarik onena, familien ahorroa zero denean eta enpresen desaurrezkia ere zero denean gertatzen dela. Ondorioz, enpresak plusproduktu (inbertsio) osoaren jabe geratzen direnean, zorrik egin gabe. Sinboloz esanaz,

$$\begin{aligned} S_h &= (C-L) = O \\ S_e &= O \\ B_e &= -O + I_n = I_n \end{aligned}$$

*Urrezko arau* bitxi horri jarraituz, langabezia ez litzateke eza-gutua izango. Baina ez da horrenbesterik behar, enpresen desaurrezkia neurri egoki baten barruan mantentzea nahikoa da.

## 9.—Amaiera pedagogikoa

Ekonomia berri honek kontzeptu primarioetara eramaten gaitu. Ekonomia ez da opari edo sakrifizioa, ez laztasuna, ez zuhurtasuna. Kanta, dantza, jan, ikusi, ibili, egin, maite erazteko da ekonomia. Bestela, pikutara ekonomia. Eta, horretarako, lan egitea behar eta nahi dugu. Ekonomia, bizi-poza eta lan maitagarria emateko da. Eta utz ditzagun betiko Erdi Aroko kontzeptuak.

Langabezia disparate izugarria da.

Ekonomiaren ardatza, kontsumoan eta lanean dago. Inbertsioa kontsumogaik egiteko eta lantresnarik izateko da, besterik ez. Inbertsioaren kultoa aberrazio hutsa da, kapitalaren jainkotasuna.

Momentu honetako langabezia eta krisia gainditzeko gure lehenengo abiapuntua, ekonomia berriaren azterketa eta eraiketa dira. Pedagogia aldetik, bai irakasleei eta bai ikasleei, galdera kritikoa hauxe erabiltzea proposatuko nieke, behin eta berriz:

AURREZKIA ZER DA, ZERTAN DATZA?  
IRABAZIA ZER DA, ZERTAN DATZA?

Galdera horiei erantzun gabe, pausorik aurrera ez ematea kontseilatzen diet. Marx bera hortik hasi zen orain dela ehun eta piku urte. Zientziaren aurrerapidea, berriz, kritikan datza. KAPITALAREN bigarren izenburua, «Ekonomia Politikaren Kritika» da.

Langabeziari buruz arduratzen diren ekonomilariak badute

zertaz pentsa. Eta ekonomilari langabetuak badira, gehiago. Bestela, orain arteko zientziak baliaturik kapitalaren aldarean langabezia sakrifikatzen jarraituko dugu, gure gazteria izurratzen eta hondatzen, alfer alferrik.

J. G.

### EL PARO Y LA NUEVA ECONOMIA LE CHOMAGE ET LA NOUVELLE ECONOMIE

#### 1.—El paro y la inflación

Nuestros principales problemas económicos son el paro y la inflación. El paro actual es cualitativamente distinto y mucho más grave que el de otras épocas de crisis. ¿Cuáles son las razones científicas que posponen la solución del paro a la solución de la inflación?

#### 2.—Presentación de la nueva teoría económica

El autor manifiesta que acabó su carrera de economista en la Facultad de Madrid, con la clara conciencia de que no sabía nada sobre los comienzos de la economía, por lo que se propuso acudir, en el futuro, a las fuentes mismas de esta ciencia, desde Smith a Keynes. Fruto de esta investigación son los nuevos fundamentos (ver también EKONOMIA HIZTEGIA) de la economía que ha hallado y que son clave y código que permiten leer todos los campos de la economía.

#### 3.—Los nuevos fundamentos de la economía

Son éstos:

- A) El ahorro general de todo sistema global es cero.

$$\sum S_i = S = 0$$

Elimina a la conocida igualdad keynesiana.

$$\sum S_j = S = I_n$$

- B) Como consecuencia intrínseca, el beneficio de las empresas resulta ser binominal: resultado monetario y resultado físico.

resultado monetario                      resultado en bienes

$$B_e = \quad \quad \quad \pm S_e \quad \quad \quad \pm I_n$$

El resultado monetario —que es el verdadero ahorro empresarial— es normalmente negativo.

Estos son los nuevos fundamentos, tanto de la microeconomía como de la macroeconomía y la política económica. Necesitan ser discutidos, contrastados y desarrollados por todo economista que sienta interés por el núcleo mismo de la teoría económica. El autor ha emprendido esta tarea, por su parte, y ofrece ya un análisis breve del marginalismo.

#### 4.—El Banco de Bilbao en la encrucijada de la ciencia económica

En su obra «TABLAS INPUT OUTPUT Y CUENTAS REGIONALES DE ALAVA, GUIPUZCOA, NAVARRA Y VIZCAYA», tomo I, pág. 25, el Banco de Bilbao se presenta ante la alternativa de seguir por el camino del sector de las empresas —que lo presenta como el cuadro central del sistema—, o por el camino del sector del capital. Sin crítica ni explicación alguna, abandona el camino del sector de las empresas, tomando el del cuadro del capital.

En la práctica, el cuadro del sector de las empresas da como resultado un saldo monetario negativo que, junto con los saldos monetarios o cifras de ahorro de los demás sectores, hacer un ahorro global del sistema igual a cero, lo que sentencia como falso el cuadro del capital.

Sin embargo, el Banco de Bilbao elige el cuadro del capital, con el que el tema del paro, entre otros, queda postergado y mediatizado a lo que resulte del análisis del falso cuadro del capital.

#### 5.—¿Qué es, en qué consiste el beneficio?

Joan Robinson y John Eatwell consideran que la naturaleza de los beneficios es problema de la filosofía económica. Es muy sorprendente esta afirmación, que revela una gran incomprensión de «EL CAPITAL» de Marx.

«EL CAPITAL» de Marx arranca respondiendo en profundidad a esta pregunta: ¿Qué es, en qué consiste el beneficio? Y responde: «En producto».

Esta pregunta y respuesta que pertenecen al núcleo de la ciencia, son la luz solar que, en adelante, van a permitir la verdadera investigación económica: «¿Qué son, en qué consisten (el beneficio, el ahorro, los ingresos, los gastos)?» «¿Son dinero, son bienes, ambas cosas?»

#### 6.—El paro y el mito del capital

A falta del cuadro de las empresas donde se produce el fenómeno trabajo/paro, todo el análisis se centra en el cuadro del capital cuyo contenido es: ahorro, financiación, inversión. Y como su problema específico, la inflación. Así se crea un altar absurdo al rico, quien además de vivir bien, ahorra, financia, impulsa la inversión y con ella remedia el mal del paro.

#### 7.—La vieja política económica y el paro

La actual política económica, basada en el culto del capital como fruto del ahorro, es negativa. En lugar de favorecer a las empresas que se ven forzadas a subir precios y reducir el empleo, fomenta su endeudamiento (desahorro monetario) mediante el premio al ahorro de los sectores no empresariales (subida de tipos de interés), que resulta nefasto para las empresas, tanto en costes como para sus beneficios y posibilidades de desarrollo.

#### 8.—La nueva política y el paro

Los problemas económicos actuales son muy complejos, evidentemente. Pero su solución se avecina, gracias a la nueva ciencia económica, que nos permitirá superarlos a medida que sea contrastada y desarrollada en todo el mundo.

La futura política económica se centrará en el estudio del cuadro del sector de las empresas, partiendo de la consideración de que el ahorro

monetario es una peste histórica de la economía, tanto a nivel nacional como internacional.

Esta afirmación estaba predicha, aunque parezca extraño, mediante la enunciación de la llamada regla de oro del ahorro, que consiste en igualar a cero el ahorro de las familias, lo que tiene unas consecuencias idealmente beneficiosas para las empresas en el cómputo de su ecuación binomial del beneficio. Al resultar nulo su resultado monetario, les queda como beneficio el valor total de la inversión.

#### 9. — Conclusión pedagógica

La economía es una ciencia que debe procurarnos ilusión y alegría para vivir y trabajar (buen nivel de vida y empleo grato), en lugar de hacernos prédicas estúpidas de sacrificios y austeridades. Esta ciencia debe basarse en una crítica tan extensa y profunda como nos sea posible.

Como método de crítica, me permito proponer la pregunta marxiana cuyo olvido nos ha hecho perder cien años de progreso y docenas de crisis y paros. ¿Qué es, en qué consiste (por ejemplo, el ahorro, la inversión, los ingresos...)?

#### 1. — Le chômage et l'inflation

Le chômage et l'inflation sont nos principaux problèmes économiques.

Le chômage actuel est essentiellement différent et beaucoup plus grave que celui d'autres époques de crise. Quelles sont les raisons scientifiques qui font passer la solution de l'inflation avant la solution de chômage?

#### 2. — Présentation de la nouvelle théorie économique

L'auteur dit qu'il acheva ses études d'économiste dans une faculté de Madrid, sachant pertinemment qu'il ne savait rien sur les fondements de l'économie. Ce qui le poussa à étudier les sources de cette science, de Smith à Keynes. De ces recherches il a tiré les nouveaux fondements de l'économie —(Voir aussi *Ekonomia Hiztegia*)— qui sont la clé et le code qui permettent la lecture des différents domaines de l'économie.

#### 3. — Les nouveaux fondements de l'économie

Les voici:

- A) L'épargne générale de tout système global est égale à zéro

$$\sum S_j = S = 0$$

La célèbre égalité de Keynes est éliminée

$$\sum S_j = S = I_n$$

- B) Comme conséquence intrinsèque, le bénéfice des entreprises devient binomial: résultat monétaire et résultat physique:

	résultat monétaire	résultat en biens
$B_e =$	$\pm S_e$	$\pm I_n$

Le résultat monétaire, qui est la véritable épargne de l'entreprise, est normalement négatif.

Voilà les nouveaux fondements aussi bien de la microéconomie que

de la macroéconomie, et la politique économique. Tout économiste intéressé par la quintessence de la théorie économique se doit d'en discuter. L'auteur, pour sa part, a commencé ce travail de critique, et présente, d'ores et déjà, une brève analyse du marginalisme.

#### 4. — La Banque de Bilbao au carrefour de la science économique

Dans son ouvrage «TABLAS INPUT OUTPUT Y CUENTAS REGIONALES DE ALAVA, GUIPUZCOA, NAVARRA Y VIZCAYA», tome I, p. 25, la Banque de Bilbao présente son alternative de suivre la voie du secteur des entreprises —qu'elle présente comme le cadre central du système— où celle du secteur du capital. Sans aucune explication ou critique, elle abandonne la voie du secteur des entreprises, choisissant celle du secteur du capital.

Dans la pratique, le cadre du secteur des entreprises donne comme résultat un solde monétaire négatif qui, avec les soldes monétaires ou chiffres d'épargne des autres secteurs, donne une épargne globale du système qui est égale à zéro, ce qui suppose que le cadre du capital est faux.

#### 5. — Qu'est-ce que le bénéfice?

Joan Robinson et John Eatwell considèrent que la nature des bénéfices est un problème de la philosophie économique. Cette assertion est surprenante, car elle révèle un manque total de compréhension du «Capital» de Marx. Le «Capital» de Marx commence par répondre en profondeur à cette question: «Qu'est-ce que le bénéfice?», et il répond: «Un produit».

Cette question et cette réponse, qui appartiennent au monde de la science, sont en quelque sorte la lumière qui, dorénavant, va donner lieu à la véritable recherche économique: «Qu'est-ce que le bénéfice, l'épargne, que sont les recettes, les frais?» «Est-ce de l'argent, sont-ce des biens, ou les deux à la fois?»

#### 6. — Le chômage et le mythe du capital

Excepté le cadre des entreprises où se produit le phénomène travail/chômage, toute l'analyse est centrée sur le cadre du capital dont voici le contenu: épargne, financement, investissement. Et comme problème spécifique, l'inflation. On crée ainsi un autel absurde aux riches qui, en plus de bien vivre, épargnent, financent, et poussent à l'investissement remédiant ainsi au mal du chômage.

#### 7. — La vieille politique économique et le chômage

La politique économique actuelle, basée sur le culte du capital comme fruit de l'épargne, est négative. Au lieu de favoriser les entreprises obligées de monter les prix et de réduire l'emploi, elle favorise son endettement (désépargne monétaire) à travers la prime à l'épargne des secteurs qui n'appartiennent pas à l'entreprise, dont les résultats sont néfastes pour les entreprises, aussi bien pour ses coûts que pour ses bénéfices et possibilités de développement.

#### 8. — La nouvelle politique et le chômage

Les problèmes économiques actuels sont très complexes. Mais leur solution est proche, grâce à la nouvelle science économique qui nous permettra de les surmonter à mesure qu'on la discutera et développera dans le monde entier. La future politique économique se bornera à l'étude du cadre du secteur des entreprises, en partant de la remarque suivante:

à savoir que l'épargne monétaire est une peste historique de l'économie, aussi bien au niveau national qu'au niveau international.

Cette assertion était annoncée dans l'énoncé de la célèbre **règle d'or de l'épargne** qui consiste à ramener à zéro l'épargne familiale, conséquence idéale quant aux bénéfices pour les entreprises dans le calcul de leur équation binômiale du bénéfice. Le résultat monétaire étant nul, la valeur totale de l'investissement devient le bénéfice.

#### 9. — Conclusion pédagogique

L'économie est une science qui doit nous fournir l'illusion et la joie pour vivre et pour travailler, avec un bon niveau de vie et un emploi agréable, au lieu de nous prêcher de stupides sacrifices et l'austérité. Cette science doit se baser sur une critique, la plus étendue et la plus profonde possible.

Comme méthode de critique, je me permettrai de poser cette question marxienne, dont l'oubli nous a fait perdre un siècle de progrès et nous a valu des dizaines de crises et chômages:

Qu'est-ce, en quoi consiste-t-il (par exemple, l'épargne, l'investissement, les recettes...)?

# Marginalismoaren azterketa laburra

Jenaro Garate

## 1.—Oinarrien adierazpidea

A.—Azokako harremanen printzipioa.—Marginalismoaren abiapuntua azokan dago, merkantzien prezioak azokak determinatzen dituzenez eta oreka partziala eta orokorra, azokan lortzen direnez eta abar. Azokako harremanen printzipioa, berriz, honela idatz dezakegu:

«Eroslerik gabe saltzailerik ez».

Edo

«Hartuak emana du, emanak hartua du».

B.—Irabazien helburua.—Enpresa oren helburu nagusia, irabazirik ahalik eta handienak lortzea da. Horregatik, marginalismoaren giltzarria, enpresaren irabazien adierazpidea edo formula izan ohi da.

## 2.—Irabaziei buruzko marginalismoaren ekuazioa

Denok dakigun hau da ekuazioa:

$$\frac{\text{IRABAZIAK}}{B_j} = \frac{\text{SARRERAK}}{V_j} = \frac{\text{KOSTUAK}}{K_j}$$

*Sinboloak*

A	=	Amortizazioa.
A <sub>j</sub>	=	Amortizazioa (j enpresarena).
B <sub>e</sub>	=	Irabaziak (enpresen sektorearenak).
B <sub>j</sub>	=	Irabaziak (j enpresarenak).
C	=	Kontsumoa.
C <sub>j</sub>	=	Kontsumogaiak (j enpresak salduak).
D	=	Dibidendoak.
E <sub>esj</sub>	=	Bitartekogaiak (beste enpresek j enpresari salduak).
E <sub>je</sub>	=	Bitartekogaiak (j enpresak beste enpresei salduak).
I	=	Inbertsioa.
I <sub>ej</sub>	=	Inbertsiogaiak (beste enpresek j enpresari salduak).
I <sub>je</sub>	=	Inbertsiogaiak (j enpresak beste enpresei salduak).
I <sub>f</sub>	=	Inbertsioa, lantresnetan.
I <sub>m</sub>	=	Inbertsioa, stocken aldaketetan.
I <sub>mj</sub>	=	Inbertsioa, stocken aldaketetan (j enpresan).
I <sub>n</sub>	=	Inbertsio garbia.
K <sub>j</sub>	=	Kostuak (j enpresarenak).
L	=	Lantsariak (alokairuak).
L <sub>j</sub>	=	Lantsariak (j enpresarenak).
R	=	Errenta.
S	=	Aurrezkia.
S <sub>e</sub>	=	Aurrezkia (enpresen sektorearena).
S <sub>ef</sub>	=	Aurrezkia (enpresen sektorearena atzerriari buruzkoa).
S <sub>eg</sub>	=	Aurrezkia (enpresen sektorearena gobernuari buruzkoa).
S <sub>f</sub>	=	Aurrezkia (atzerriaren sektorearena).
S <sub>g</sub>	=	Aurrezkia (gobernuaren sektorearena).
S <sub>h</sub>	=	Aurrezkia (familien sektorearena).
S <sub>j</sub>	=	Aurrezkia (j sektorearena).
V <sub>j</sub>	=	Sarrerak (j enpresarenak).



Ekuazio hau okerra eta faltsua dela demostratuko dugu.

A) Inbertsiogaien erosketak ez dira ekuazioan sartzen, nahiz eta ondasun berberen salketak sarrera bezala onartu. Ekuazio horrek sinbolizatzen duen enpresak ez dihardu azokan eta harremanen printzipioa ukatu egiten du. Marginalismoaren barrengo kontraesan nabaria da.

B) Indefinitua da. Ez du sekulan zehazten sarrerak eta kostuak zer diren eta non lortuak diren. Azoka-sarrerak eta kostuak behar lukete izan; diruzkoak, alegia. Baina ez du ezer esaten, zehaztasuna falta zaio, zientifikotasuna falta zaio.

C) Produzitzen den dena sarrera bezala jasoz, beste zehaztasunik gabe: saldu ezinaren gorabeherak ukatzen ditu. Hau da, krisia eta langabezia ukatzen ditu, adibidez. Berdina dena, oreka presuposatzen du.

Azoka ezezaguna egiten du, ukatu egiten du, utopiazko ekuazioa onartuz.

D) Irabazien ekuazio hori enpresa bakoitzak (soilak) asmatua da, berari dagozkion salketa-prezioak aztertzeko:

ex-ante, prezioak kalkulatzeko  
ex-post, prezioak kontrastatzeko.

Formula horren erabili beharra, gehienbat merkatuak ematen ez duen prezioaren ezaguera lortzeko izaten da. Eta ez da sekulan enpresen irabaziak kalkulatzeko erabiltzen. Horregatik, ez du inolaz zerbitzatzen ez enpresa baten irabaziak jakiteko, eta gutxiago oraindik azokaren irudi orokorra eskaintzeko, azokan ari diren enpresa guztien harremanak kontuan edukirik.

E) Marginalismoaren formula hori, irabazien kontzepturik arinenak eta putzenak osatua da. Kostu-sekzioko enplegatuek eduki ohi duten ideiarik ximpleena gaintitzen ez duen kontzeptua: «Kostuei erasten zaien ehuneko horrenbeste (%), hori da irabazia».

### 3.—Irabaziei buruzko ekuazio zuzena

Ekuazio zuzena lortzeko, marginalismoaren ekuazioa azokaren esanetara jarri besterik ez dugu egingo.

Salketarik badago, erosketak ere badagoela jakinez gero, marginalismoaren formulari bi termino erantsiko dizkiogu:

— Inbertsiogaien erosketak (diru kostuak).  
+ Inbertsiogiak (ondasun sarrerak).

Egin dezagun erasketa:

Marginalismoak:

$$\text{IRABAZIAK} = \text{SARRERAK} + \text{KOSTUAK}$$

$$\text{Erantsi:} \quad \begin{array}{r} - \text{INBERTSIOGAIEN} \\ \text{EROSKETAK} \\ + \text{INBERTSIOGAIK} \end{array}$$

Formula zuzena:

(dirutan) (Ondasunetan)

$$\text{IRABAZIAK} = \text{SARRERAK} - \text{PAGAMENDU} + \text{INBERTSIOGAIK}$$

Bi sektoredun sisteman (familiak eta enpresak) ihardun nahi badugu, formula horren desarrolloa hau izango da:

$$\text{IRABAZIAK} = \frac{\text{dirutan}}{\text{SARRERAK}} - \frac{\text{PAGAMENDU}}{\text{dirutan}} + \frac{\text{ondasunetan}}{\text{INBERTSIOA}}$$

$$(1) \quad B_j = \frac{(C_j + I_{je} + E_{je})}{(C_j + I_{je} + E_{je})} - \frac{(L_j + I_{ej} + E_{ej})}{(L_j + I_{ej} + E_{ej})} + \frac{(I_{ej} \pm I_{mj} - A_j)}{(I_{ej} \pm I_{mj} - A_j)}$$

Arazoa argiago erakusteko, marginalismoaren formula ere desarrollatuko dugu:

$$\text{IRABAZIAK} = \frac{\text{SARRERAK}}{(C_j + I_{je} + E_{je} \pm I_m)} - \frac{\text{KOSTUAK}}{(L_j + E_{ej} - A_j)}$$

$$(2) \quad B_j = \frac{\text{SARRERAK}}{(C_j + I_{je} + E_{je} \pm I_m)} - \frac{\text{KOSTUAK}}{(L_j + E_{ej} - A_j)}$$

(1) eta (2) ekuazio hauek, ez dira berdinak, batez ere lehenengoan inbertsiogaiak diru-kostu eta ondasun-sarrera bezala jasotzen direlako. Diferentzia hau aztertuko dugu.

#### 4.—Enpresen sektore osoaren irabaziei buruzko formula

Enpresa guztien irabazien batuketak sektorearen irabazia aurkeztuko digu. Lehenbizi, (1) formulaz adierazitako irabazien batuketa egingo dugu:

$$\text{IRABAZIAK} = \frac{\text{dirutan}}{\text{SARRERAK}} - \frac{\text{PAGUAK}}{\text{dirutan}} + \frac{\text{ondasunetan}}{\text{INBERTSIOA}}$$

$$(1) \quad B_j = \frac{[(C_j + I_{je} + E_{je}) - (L_j + I_{ej} + E_{ej})]}{[(C_j + I_{je} + E_{je}) - (L_j + I_{ej} + E_{ej})]} + \frac{[(I_{ej} \pm I_{mj}) - (A_j)]}{[(I_{ej} \pm I_{mj}) - (A_j)]}$$

$$\Sigma B_j = B_e = \frac{[(C + I + E) - (L + I + E)]}{[(C + I + E) - (L + I + E)]} + \frac{[(I + I_m) - (A)]}{[(I + I_m) - (A)]}$$

$$(1') \quad B_e = \frac{(C - L)}{\pm S_e} + \frac{I_n}{\pm I_n}$$

$$B_e = \frac{(C - L)}{\pm S_e} + \frac{I_n}{\pm I_n}$$

Batuketa berdina egingo dugu, marginalismoaren formulaz baliatuz:

IRABAZIAK =	SARRERAK	-	KOSTUAK
(2) $B_j$ =	$[(C_j + I_{j_e} + E_{j_e} \pm I_m)]$	-	$[(L_j + E_{e_j} + A_j)]$
$\Sigma B_j = B_e$ =	$(C + I + E \pm I_m)$	-	$(L + E + A)$
(2') $B_e$ =	$(C + I \pm I_m - L - A)$		
$B_e$ =	$\pm S_e$		

Formula hauen (1')aren eta (2')aren arteko diferentzia, zehaztasunean datza. Zer dira (2') formularen sarrerak eta kostuak? Batez ere, zer dira inbertsiogaiak, formularen esan nahian?

Erantzuna oso garrantzitsua da. Bi sektoredun sisteman ari gara. Inbertsiogaiak produzitzeko, langileak kontratatu (lanindarra erosi) behar da. Diru-gastua (L) daukate enpresek, lanindarraren edo lanaren azokan —izena da gutxiena, oraingoz—. Inbertsiogaiak produzituz gero, ordea, inbertsiogaien azokan ariko dira enpresak. Zer gertatzen da inbertsiogaien azokan?

Definizioz, inbertsiogaiak enpresek erosten dituzte. Horregatik, ez dira diru-sarrera enpresen sektorearentzat. Ez definizioz eta ez errealitatez.

Bestalde, behin lantsariak, alokairuak konprometituz gero, lanaren merkatuan —(L) diru kostua, hain zuzen—, inbertsiogaien produzioa ondasun sarrera da enpresentzat, diru zentimorik gehiago gastatu beharrik gabe. Langileei lantsariak (L) ematen zaizkie: langileengandik kontsumoa (C) jasotzen da, biak dirutan. Horiek dira diru sarrera eta diru kostu bakarrak. Inbertsio gaien produzitzea eta jabetzea, enpresen sektorearen ondasun-sarrera huts hutsa da. Irabazien oinarria ondasunak dira, inbertsiogai (plusproduktu) diren ondasunak.

Horregatik, marginalismoaren formula (2) kontraesankorra eta zientifikotasunik gabea delako, ondoriozko formula (2') edozein erruren abiapuntu izan daiteke. Formula horren ikerketak eta (1') formulak ondorio berberetara garamatzate: irabazien ekuazioa azokari kasu eginik eratu, edo dirutan eta ondasunetan zuzen zehaztu, berdina dela baieztatzen.

Puntu honen laburpena eginez,

$$\text{Marginalismoak, } B_e = \pm S_e$$

$$\text{Formula zuzenak, } B_e = \pm S_e \pm I_n$$

Formula zuzenak argi eta garbi bereizten ditu azokako getaeren ondorioak.  $\pm S_e$  diru irabazia da, eta azokako harremanetan lortua, diru gorabeherak azokako harremanetan gertatzen dira eta, ez beste inon.

Hitzen gorabeheretan gera ez gaitezen, diru-aurrezkoa azokan egiten da; eta inbertsioari ondasun-aurrezkoa deitzen badiogu, ondasun-aurrezkoa lantegian (produkzioan) egiten da. Baina askoz hobe da inbertsiogaien akumulazioari, inbertsioa deitzea. Hitz gorabehera hau gaindituz gero, marginalismoaren formula nahaste bat dela, eta faltsua, azaltzen zaigu eguzkiaren argitan, bere erabilkeran nabarmentzen denez.

### 5.—Enpresen koadroa eta kapitalaren koadroa

Enpresen sektorearen harremanen koadroak, hartzekoen eta zorren diferentzia bezala (diru-aurrezki bezala)  $\pm S_e$  ematen du eta lauki zeharo egina eta ulerterraza da (Ik. nere *Ekonomia Hitzegiako* lana). Koadro hori eta beste sektoreen laukiak baturik, aurrezki orokorra berdin zero dela esaten digute,  $\sum S_j = 0$  eginez.

Bide zuzen honetatik ibili ordez, enpresen harremanen ondorioa  $\pm B_e$  izango balitz bezala ari dira marginalista eta neoklasiko guztiak, bai diru-aurrezkoa eta bai inbertsiogaien jabetasuna (ondasun-aurrezkoa) azokan lortuko balute bezala. Baina inbertsiogaien azokan, enpresek sektore bezala ez dute ezeren gorabeherarik ezagutzen: dirua esku batetik bestera, ondasungaiak enpresa batetik bestera. Diruaren banaketa aldatzen da, bai; eta inbertsiogaien banaketa aldatzen da, bai. Baina sektoreak, berriz esan, ez du ezeren gorabeherarik ezagutzen. Sektorean zeuden diruak eta inbertsiogaiak joanetorri egin dira azokako tratuen bitartez, baina sektore barruan beti. Lehendik zeuden sektorean. Inbertsiogaien aldetik, sektorean zeuden lehenagotik, aurretik produzituak.

Marginalistek, ordea, begiak itxi, egia zapalduz aurrera jo, eta kapitalaren koadro mitikoa eratzen dute:

$$\text{KAPITALAREN LAUKIA} = \pm S_h \pm S_g \pm S_f \pm S_e = S = I_n$$

Baina, konturatzen ez badira ere, beste hau egiten dute:

$$\pm S_h \pm S_g \pm S_f \pm \frac{\pm B_e}{(\pm S_e \pm I_n)} = I_n$$

Marginalistek ere kuadratu egiten dituzte kontuak, ezkututzen eta bihurtzen duten azpiko egiaren indarrez, zeren:

$$\begin{pmatrix} \pm S_n & \pm S_g & \pm S_f & \pm S_e \\ & \Sigma \pm S_j & & \\ & & O & \end{pmatrix} \pm I_n = I_n$$

Bi koadro dira, ba, ekonomiaren bidegurutzea:

1.º— $B_e = \pm S_e$  (dirutan)  $\pm I_n$  (ondasunetan), eta ondorioz,  $\Sigma S_j = O$

2.º— $B_e = + S_e$  (indefinitua), eta ondorioz,  $\Sigma S_j = I_n$ ;  $S = I$

## 6.—Keynes eta Marx

Bidegurutze hori, Marx-bidea ala Keynes-bidea aukeratzean datza. Marx-bidea, irabaziak *zer* direnaren jakinean ibiltzea da. Keynes-bidea, irabaziak erarik arinenean erabiltzea da.

Keynes Marx-en ondoren etorria denez gero, ezin dugu aurrera jo Keynes kritikatu gabe.

Keynes zientziaren atzerakada negargarria izan da, Marx-en bidea ezezagutuz, bide okerrean ezarri duelako ekonomiaren ikerketa. «Teoria orokorra»ren «Definizio eta Ideiak» atala, ilunaren eta hutsaren garapena dira. Nahikoa zukeen «Zer da» galdetzea, Marx-en emaitza argigarriari jarraituz, atal hori zakarrontzira bota eta beste zerbaiten bila jarraitzeko. Zer da aurrezkia? Herriaren, Gobernuaren, Atzerriaren aurrezkia, diruzko aurrezkiak dira, zailantzarik gabe. Enpresen aurrezkia, enpresen irabazia (ken diruzko dibidenduak) dela esaten zaigu. Horregatik, ahorroa zer den jakiteko, irabazia zer den galdetu beharko dugu.

Keynes ez zen galdera hori egiteko behar lukeen beste gora igo. Marginalistek, berriz, ez dute aztertu beharrik izan zer diren sarrerak, kostuak, aurrezkia, irabazia eta abar, Keynes-bidean itsu itsuan jarraituz. «Zer da» galdera borratuta egon da ekonomiaren zientziatik. Ehun urte galdu ditugu Marx ekonomilari haundiari kasurik ez egitearren. Negargarria izan da. Eta beste ehun galduko genituzke Keynesen eraginez ihardunaz.

Bagenekien marginalismoa eraikuntza hutsa eta hutserakoa zela. Orain argi eta garbi dakigu faltsua dela, eta atzerakoia. Mikroekonomian, enpresa soila azokatik eta harremanen printzipiotik aparte jartzen duelako bere irabazien bila. Makroekonomian, koadro

eta bide okerrean abiarazten gaituelako, kapitalaren lauki faltuan, hain zuzen.

Besterik ez bada, ia oraingo langabezia bildugarriak ekonomiaren berpentsaketara eramaten gaituen.

J. G.

#### ANÁLISIS BREVE DEL MARGINALISMO BREVE ANALYSE DU MARGINALISME

1.—Enunciación de sus fundamentos principales

A) Principio del intercambio del mercado:

«No hay vendedor sin comprador».

B) Objetivo del beneficio. Se entiende que la empresa se propone lograr el máximo beneficio posible.

2.—Ecuación marginalista del beneficio

Es ésta tan conocida:

$$\text{BENEFICIOS} = \text{INGRESOS} - \text{GASTOS}$$

Esta ecuación es falsa en teoría e inoperante en la práctica.

— Considera como ingreso la venta de bienes de inversión, sin que nadie las compre, puesto que no son costo o pago para nadie. La ecuación se sitúa fuera del mercado, no cumple el principio del intercambio y le falta una elemental concreción en cuanto a la naturaleza (qué es?) del beneficio.

— No se usa ni siquiera en la empresa, porque no es válida para el cálculo de los beneficios periódicos de la empresa.

3.—Ecuación correcta de los beneficios

Se obtiene añadiendo a la ecuación marginalista los dos términos siguientes: — compras de bienes de inversión (costo monetario) + bienes de inversión (ingreso en bienes). De esta forma resulta la ecuación correcta y fecunda:

$$\text{BENEFICIO} = \begin{array}{l} \text{resultado monetario} \\ \text{INGRESOS} - \text{PAGOS} \end{array} + \begin{array}{l} \text{resultado en bienes} \\ \text{+ INVERSION} \end{array}$$

4.—Fórmula del beneficio para el conjunto del sector

Limitándonos por comodidad expositiva a un sistema de dos sectores (empresas y familias) resulta

$$\sum B_j = \begin{array}{l} \text{resultado monetario} \\ B_c = \\ B_e = \end{array} \begin{array}{l} (C - L) \\ \pm S_e \end{array} \begin{array}{l} \text{resultado en bienes} \\ (I \pm I_m - A) \\ \pm I_n \end{array}$$

Esta ecuación es correcta, bien definida, une perfectamente la microeconomía con la macroeconomía, se presta a toda clase de desarrollos y análisis esclarecedores.

De la fórmula del marginalismo solamente puede deducirse que

$$B_e = \pm S_e$$

donde el término ( $S_e$ ) es un conjunto heterogéneo y base de cualquier error o sofisma.

5.—El cuadro de las empresas y el cuadro del capital

Queda dicho que el cuadro de las empresas y el del capital son la alternativa de la ciencia económica.

El cuadro del capital introduce el beneficio de las empresas como ahorro de las empresas. Dado que el beneficio de las empresas es binomial ( $\pm S_e \pm I_n$ ), la afirmación marginalista de que  $\sum S_j = S = I_n$  es, en términos definidos y correctos, la afirmación de que  $S_j + I_n = I_n$ .

El cuadro del capital es falso porque oculta que el ahorro global es igual a cero —afirmando lo contrario—; y porque oculta que el beneficio de las empresas es binomial, afirmando que es ahorro (sin ninguna precisión posible).

6.—Keynes y Marx

Keynes no edificó sobre la base que puso Marx, y su edificio es ruinas. ¿Quién sabe qué es el ahorro de Keynes, si dinero, si bienes, si ambas cosas u otra? Keynes no, desde luego.

Sabíamos que el marginalismo era bizantino. Ahora sabemos que es falso. Mal podrá ayudarnos a resolver el grave problema del paro que corroe nuestra juventud.

## 1.—Enoncé de ses principaux fondements

A) Principe de l'échange du marché:

«Il n'y a pas de vendeur sans acheteur».

B) Objectif du bénéfice: il est bien entendu que l'entreprise se propose d'obtenir le plus grand bénéfice possible.

## 2.—Equation marginaliste du bénéfice

Il s'agit de la célèbre équation:

$$\text{BENEFICES} = \text{RECETTES} - \text{FRAIS}$$

Théoriquement cette équation est fautive, elle est sans effet dans la pratique.

—La vente des biens d'investissement est considérée comme une recette, alors que personne ne les achète car ils ne sont un coût pour personne. L'équation se situe hors du marché, elle ne respecte pas le principe de l'échange et il lui manque l'élémentaire concrétion quant à la nature (qu'est-ce?) du bénéfice.

—On se l'utilise même pas dans l'entreprise car elle ne sert pas à calculer les bénéfices périodiques de l'entreprise.

### 3. — Equation correcte des bénéfices

On l'obtient en ajoutant à l'équation marginaliste les deux termes suivants: —achats de biens d'investissement (coût monétaire) + biens d'investissement (recettes en biens). Ainsi on obtient l'équation correcte et féconde.

$$\text{BENEFICE} = \begin{array}{ccc} \text{résultat monétaire} & & \text{résultat en biens} \\ \text{RECETTES} - \text{FRAIS} & + & \text{INVESTISSEMENT} \end{array}$$

### 4. — Formule du bénéfice pour l'ensemble du secteur

En nous limitant, pour la clarté de l'exposé à un système de deux secteurs (entreprises et familles) il résulte:

$$\begin{array}{ccc} \text{résultat monétaire} & & \text{résultat en biens} \\ \Sigma B_j = B_c = & (C - L) & (I \pm I_m - A) \\ B_c = & \pm S_c & \pm I_n \end{array}$$

Cette équation est correcte, bien définie, elle unit parfaitement la microéconomie et la macroéconomie, et se prête à toutes sortes de développements et d'analyses.

De la formule du marginalisme on ne peut déduire que ceci:

$$B_c = \pm S_c$$

où le terme  $\{S_c\}$  est un ensemble hétérogène et le point de départ de n'importe quelle erreur ou sophisme.

### 5. — Le cadre des entreprises et le cadre du capital

Nous avons déjà dit que le cadre de l'entreprise et celui du capital forment l'alternative de la science économique.

Le cadre du capital introduit le bénéfice des entreprises en tant qu'épargne des entreprises. Puisque le bénéfice des entreprises est binomial  $(+ S_c + I_n)$ , l'affirmation marginaliste suivante:  $S_j = S = I_n$  devient, en termes définis et corrects, l'affirmation:  $S_j + I_n = I_n$

Le cadre du capital est faux parce qu'il dissimule que l'épargne globale est égale à zéro, tout en affirmant le contraire; et parce qu'il dissimule que le bénéfice des entreprises est binomial, tout en affirmant qu'il s'agit d'épargne.

### 6. — Keynes et Marx

Les fondements de la théorie de Keynes ne sont pas ceux de Marx, ils sont, de nos jours, écroulés. Qui sait **ce qu'est** l'épargne selon Keynes? S'agit-il d'argent, de biens, ou des deux à la fois? Keynes, en tout cas, n'en sait rien.

Nous savions que le marginalisme était byzantin. Maintenant nous savons que c'est faux. Il ne pourra, certes pas, nous aider à résoudre le grave problème du chômage qui ronge notre jeunesse.



# Langabezia Euskal Herrian: egoera, perspektibak, alternatibak

Iñigo Garaialde

Zazpi urte dira nazioarteko krisi ekonomikoa hasi zela, eta ez dirudi oraingoz etorkizun hurbi-lean zuzperdurarik emango denik. Gauzak horrela, langabezia, gizarte-arazo nahiko marginala izatetik eguneroko tragedia generalizatu eta iraunkorra izatera iritsi da ekonomia kapitalista desarroilatua-ren barruan. Estatu Espainola eta Euskal Herria ez dira batere salbuespen arau horrentzat. Krisia-ren eragina zerbait geroxeago sentitu badute ere, berarizko gogortasunez jipoitu ditu ekonomi uz-kurdura honek. Espainiako hazkunde-ereduaren barne ahuleziak eraginda —hazkunde garaiko uneri-k hoberenetan ere<sup>1</sup> ez baitzen sortuz zihuan laneku-gaineratikoa irensteko gauza izan—, espainol langabezi tasak Europako batezbesteko erraz gainditu du azken urteotan. Euskal ekonomiak, espainolak baino beranduxeago bada ere, sumintasan bereziz jasan behar izan ditu krisiaren ondorioak. Eta hori bere metalurgiaren monolandumetazko egituragatik bereziki, sufritzen duen krisi sozio-politikoaren laguntzarekin. Behin 1978. urtearen erdialdeaz gero, Euskal Herriko langabezi tasa ofizialak, normalean batezbesteko espainola baino beherago egon izan arren, gainditu egi-ten du orduz gero batezbesteko estatala. EKNko

Lanerako Kontseilaritzak<sup>2</sup> oraindik berrikitan egindako estudio baten arauera, langabeziak, zentzu zabal batetan (hau da, hainbat kontzepturengatik langabezia aurkitzen diren pertsonak, eta lanaren merkatura hurbiltzen ez diren aktibo potentzialak ere jaso), 150.000 pertsonaren kopurua gainditzen zuen 1979. urtearen azken aldera, Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian, jendetza aktiboaren % 17,5 osatuz.

Lehen lehenengoz azpimarratu beharreko puntua, arazoa aztertzeko oinarri estatistiko egoki baten falta da, eta horixe da, hain zuzen, langabeziaren kontrako edozein neurriren abiapuntua. Adibide gisan, ikusi besterik ez dago Euskal Herrirako datu estatistiko fidagarrien falta osoaren ondorioz zer nolako malabarismo metodologikoak egin behar izan dituen Lanerako Kontseilaritzaren aipatu estudio horrek. Nolanahi ere, arazoaren larritasun eta premiarengatik, deus ez egitea baino bidezkoago ematen du eskuarteko apur hori aztertzea, nahiz eta ondotoxo dakigun zer norainoko mugak dituen eta hortik atera litezkeen ondorioek ere zer nolako behinbehinekotasuna duten. Ondorengo orrialdeetan Hego Euskal Herriko langabeziaren egoeraren azterketa labur bat egiten saiatuko gara, berorren epe erdirako perspektibak ere seinalatuz, azken partean langabeziaren kontrako ekonomi politikaren zenbait alternatiba ere abordatzeko.

## GAURREGUNGO EGOERA

### Langabeziaren definizioa

Langabeziaz hitzegiterakoan, beronen heterogenotasuna azpimarratu behar da lehenengoz. Ez dago lanik gabeko pertsona alokatuak topatu ohi dituen egoera desberdin guztiak jaso ditzakeen langabetuaren definizio zehatzik. Normalean ontzat eman ohi den definizioa OITk emana da, eta honako puntuok jasotzen ditu: lanik ez egitea, ordaindutako enplegu bat ekinez biltzen saiatzea eta berehala okupatzeko prest egotea.

Espainia mailan, definizio horretxetaz baliatzen da «Instituto Nacional de Estadística»ren «Encuesta de la Población Activa» (EPA) delakoa eta ekonomia desarrollatu batetako langabeturik gehienak jasotzen ditu<sup>3</sup>. Hala ere, bada kanpoan geratzen den langabe kolektiborik, nolabaiteko garrantzia izan dezaketenak hain zuzen, eta gaurregungoa bezalako krisialdi sako-  
nen kasuetan batez ere. Kasu honetan aurkituko lirateke, esate

baterako, enplegu-arauketaren agiriak bitarteko kontratu-etenduran daudenak eta lanaldiaren moztea jasaten dutenak, aurrez eta derrigorrez jubilatuak, denborazko langileak, baina berorretatik kanpora aurkitzen direnak, etab. Kasu guzti hauetan normalena, langabetua enplegu bilatzen ez saiatzea da, nahiz eta logika osoarekin langabetutzat kalifika daitekeen<sup>4</sup>.

Langabezi zifretan sartu behar liratekeen kasu hauez aparte, badago langabeziaren eta subenpleguaren erdibidean aurkitzen den beste fenomenorik ere, hala nola naizean behingo lana edo lanaldi partziala duten pertsonak (zenbait kasutan aktibo marginalak bezala sailkatuak). Azkenik, eta subenpleguaren fenomenoan sartu gabe (enplegu desegokiak, produktibitate eta ordain txikikoak, lanaldi irregular eta motzekoak, etab.), lanaren merkatuaren egoera tamalgarriaren aurrean enplegu bila hasi ere egiten ez direnen eta, jakina, estatistika ofizialek inaktiboan kategorian jartzen dituztenen kolektiboa geratzen da. «Etsitako aktiboan» talde honen azterketak zailtasun estatistiko bereziak eskaintzen ditu aurrerago ikusiko den bezala, baina hala ere hortxe dago fenomenoak.

## Zenbat langabetu dagoen Euskal Herrian?

Espania mailan langabeziari buruz eman diren iturri estatistikoen artean, gorago aipatu dugun EPA hori eman ohi da, du-darik gabe, denetan fidagarriena eta funtsezkoena bezala. Hiru hilabetetik hiru hilabetera erakuskari zabal batetan oinarrituz elaboratzen da eta berez aktibitatea eta enplegua neurtzera zuzendua dago, langabezia bera sahietsetik bakarrik ukitzen duelarik. Horretxegatik, behin baino gehiagotan seinalatu izan dira haren mugatasunak<sup>5</sup>. Zenbait hutsunerekin eta periodizitate desberdinarekin argitaratu da 1964.az geroztik, eta gaurregun dabilen metodologia 1976.eko hirugarren urtelaurdenetik abiatzen da. Halako iraupen batetako sail homogeno eta fidagarrien ausentziak benetako problema suposatzen du lan-eskaintza behar hainbateko konfidantza-margenarekin aztertzeke eta aktibitate-tasen joerak eta gorabehera zikloak ulertzeko garaian<sup>6</sup>.

Langabezia, gizarte-arazo nahiko marginala izatetik eguneroko tragedia generalizatu eta iraunkorra izatera iritsi da ekonomia kapitalista desarroilatuaren barruan.

EPAk isladatu duen egoera azaldu baino lehen, zera seinalatu beharra dago hemen, alegia, batez ere itaunketako zenbait anbiguotasun dela medio, soslai arras haundia dagoela EPAREN langabeziari buruzko zifretan. EPAREN beraren kontrolen arauera, inkestaren erresultaduak benetakoak baino guti gora behera, % 20 beherago egongo lirateke, eta langabeziaren definizio mugatu horren barruan beti ere. EPAk Euskal Herrirako ematen dituen zifrak 1. taulan laburtzen dira (eranskin estatistikoan, Euskadiko enplegu eta langabeziari buruzko daturik esanguratsuenetako batzuen sail labor batzuk jaso ditugu).

Behin 1978. urteaz geroztik, Euskal Herriko langabezi tasa Estatuko batezbestekoa baino gorago aurkitzen da, eta areagotuz doa gainera poliki poliki<sup>7</sup>. Baina langabeziaren benetako zifra ez da geratzen ehun eta hamar mila pertsonako zifra horretan, kontutan hartu behar dira gorago seinalaturiko kolektiboak ere. Alde batetik, sei milatik goragoko aktibo marginalak gaineratu beharko lirateke<sup>8</sup> edo, berorietako gehienak bai behintzat. Beste aldetik, EPAk ez ditu langabetzat jotzen ekonomi krisiaren ondorioz lanik ez egin arren OITen definizioan hertsiki sartzen ez diren pertsonak. EKNko Lanerako Kontseilaritzak, 1979.eko azken urtelaurdenerako, honako zifra hauek ematen zituen: batezbeste, 1.085 jubilazio aurreratuak ukituak, 6.762 denborazko kontratu-etendurak ukituak, eta 21.996 enplegu-arauketagatik lanaldi partzialean dihardutenak. Guzti hori aipatu Kontseilaritzaren konpetentzi esparruan noski. Nafarroari dagozkion zifrek ere antzeko proportzioak gordeko dituztela estimatuz EPAk harako ematen dituen langabezi datuei buruz, ondoko zenbatekoak emango lizkiguke langabeziak Euskal Herrian:

Arrazoa	Kolektibo ukitua	Langabezian leudekeenak
EPAREN eritzizko langabetuak	110,6	110,6
Aktibo marginalak (%75ean)	6,6	5,0
Jubilazio aurreratuak	1,3	1,3
Denborazko etendurak	8,2	8,2
Lanaldiaren moztea (%50ean)	26,6	13,3
<i>Guztira:</i>	153,3	138,4

Horrela beraz, totalen 153 mila afektatu, edo eta berdin dena, 138 mila langabetu oso. Kategoria berri hauek sartzea, nahiz eta iragankorra izan benetakoa den langabezi egoeran oinarritzeaz gainera, indarragotu egiten da, enplegu-arauketako

neurri hauek askotan langabezi egoera iraunkor baten ataria direla ikustean (eta denborazko kontratu-etenduren kasuan bereziki).

Langabetuen zifra horrek %13,9-ko tasa suposatzen du jendetza aktiboaren gonbarazioan. Langabeziak, hala ere, definizioz, ezin eragin diezaike aktibo ez-alokatuei, zeren beren kontura aritzen diren langileak ere egon baitaitezke lanik gabe, edo subenplegatuek, baina besteren batek ordaindutako lana bilatzen ez duten bitartean, hau da, langile autonomo izatetik langile alokatu izatera pasatzen ez diren bitartean, ezin daitezke langabetzat eman. Horregatik, langabezi zifra jendetza alokatuarekin gonbaratu behar litzateke, eta ez jendetza aktiboarekin. Alokatuak, 1976.ean, %82,7 suposatzen zuten Euskal Herriko jendetza aktibo guztiaren gonbarazioan. Langabetuen tasa %16,8ra igotzen da kolektibo alokatuaren gonbarazioan, hots, Euskal Herriko sei langiletatik bat langabezian aurkitzen zen 1979. urtearen bukaeran<sup>9</sup>.

### Langabeziaren egitura Euskal Herrian

EPAk urte laurdenero argitaratu ohi duen txostenak oso zehaztasun gutti ematen du tamalez, probintzi mailan bereziki. Horregatik, Euskal Herriko langabeziari buruz, beronen zifra totala dugu estatistika honetatik lor daitezkeen datu bakarrenetako bat. Lanerako Ministraritzak, «Instituto Nacional del Empleo» (INEM) delakoaren bitartez, xehetasun ugariago ematen du probintzietako langabeziari eta lanaren merkatuari buruz. Iturri estatistiko honek, ordea, problema nahiko garrantzizkoa sortzen du langabetuen kopurua Enplegu-bulegoetan erregistratuta daudenetara mugatzearekin. Adituek berek onartzen duten bezala, erregistro-metodo hau inkesta-sistema baino desegokiagoa da desenpleguaren zenbatekoa eta tipologia ezagutzeko<sup>10</sup>.

Baieztapen orokor hori areagotu besterik ez da egiten Espainiaren kasuan, zeren desenplegu-asegurua estaldura ttipiagoa baitu (langabetuen %40k jasotzen zuten Espainian desenplegua-

*Euskal ekonomiak, espainolak baino beranduxeago bada ere, suminastun bereziz jasan behar izan ditu krisiaren ondorioak. Eta hori bere metalurgiaren monolanduketazko egituragatik bereziki, sufritzen duen krisi sozio-politikoaren laguntzarekin.*

rengatiko laguntza, Frantzia edo Britainia Handian hurrenez hurren %60k eta %70k jasotzen zuten bitartean), eta Enplegu-bulegoen efikazia eskasa baita lanpostuak gestionatzeari dagokionez. Azken puntu hau izango litzateke laguntzarik jasotzen ez duten langabetuen kolektibo zabal horientzat erakaspén-faktorerik inportanteena. INEM delakoaren estatistiken baliozkotasuna oraindik ere dudanago jartzeko, zera esan behar da: alegia, erakunde horren arduradunek erregistratutako desenpleguaren zifra gehixeago edo gutixeago murrizten iharduten dutela administratziotik beretik (hauteskundeak hurbildu ohi direnean, esate baterako) eta horrela, jakina, ukan lezaketen joerazko balioa bera ere galtzen duten sail estatistikoak sortzen dituztela<sup>11</sup>.

Nolanahi ere, INEMen datuak dira Euskal Herriko langabeziaren egitura aztertzeko eskuartean dugun iturri estatistiko desagregatu bakarra<sup>12</sup>. 1979.eko azken urtelaurdenari dagozkion datuen estudio zuhur eta axaleko batek, langabeziak emakumeen, gazteen eta aurreko enplegurik gabeko langileen kolektiboetan duen larritasun berezia erakusten du. Bigarren taulak laburtzen ditu daturik aipagarrienak, baina berriro azpimarratzen dugu haien balio erlatiboa, zeren garrantzi haundiko kolektiboak (eta aurreko enplegurik gabeko gazteena bereziki) nabarmenki azpestimatu uzten baititu estatistika horrek<sup>13</sup>. Taula horrek, bestalde, ez du ematen herrialde historiko bakoitzeko egoeraren gonbarazio fidagarriarik egiteko posibilitaterik ere, zeren INEMek estaldura oso desberdinak lortu baititu lurralde bakoitzeko langabezia errealarari buruz. 1979. urterako erregistratutako langabeziaren batezbesteko estaldura EPARENaren gonbarazioan, Arabako %92,6tik Nafarroako %63,9ra zihuan.

## Lan-eskaintza Euskal Herrian

Krisia hasi zenetik lan-eskaintzak ukan duen eboluzio negatiboa, ia langabetuen ugaltzea bera bezain gauza larria da, inondik ere. Jendetza osoaren gonbarazioan pertsona aktiboen proportzioak eraman duen beheranzko ziztua benetan izugarria izan da 1974.aren azkenaldiaz geroztik. Eta lanegiteko adineko jendetza horren gorakada etengabekoa izan den arren, aktibitate-tasaren beherakada hain gogorra izan da, ezen Espainol Estatuko jendetza aktiboa (zeinak bai pertsona landunak eta bai enplegu bila dabiltzan langabetuak hartzen baititu) nabarmenki jaitsi da numero absolutuetan<sup>14</sup>.

Euskal Herrikoaren eboluzioa ere estatalaren isla bat bes-

terik ez da, demografia eta soziologiako arrazoiengatik (adinkako konposaketa, alokamendua, etab.) indargetuxe ematen duen arren. Dena den, aktibitate-tasa globala %3,1ean jaitsi da hiru urteko epe barruan (1976.eko bigarren urtelaurdenako %51,74 etik 1979.eko aldi bereko %50,16ra, hain zuzen). Gizonezkoen aktibitate-tasaren beheranzko joera historikoa, eskolatzeko aldia luzatu eta jubilazio-adina piskana piskana beheratuz doalako batipat, biziki areagotu da bi adin puntetako taldeetan (25 urtetik beherakoetan eta 55 urtetik gorakoetan). Dihardugun epealdian, gizonezkoen aktibitate-tasa 3,67 puntuz jaitsi zen (bere haserako balioaren %4,8). Emakumeen taldean berriz, frenatu egiten da 1968.etik 1974.era bortizki hazkorra izan zen eboluzioa. Euskal Herriko emakumeen aktibitate-tasa 0,69 puntuz bakarrik goratzen da 1976.etik 1979.era (bere haserako balioaren %2,5). Gorabehera hauek hertsiki lotuak daude lanposturik aurkitzeko gero eta zailtasun haundiagoekin, gazteen artean bereziki. Nabarmen aski geratzen da emakumeen lan-indarrak dagoen produktio-sistemarentzat eta gizartearen kontzientziarentzat duen subsidiariotasun eta konjunturaltasunezko jitea.

Bilboko Merkatal Ganbararen estimazioen arauera<sup>16</sup>, hamalau urtetik gorako euskal populazioaren hazkunde netoa, urteko 29tik 30 mila pertsonarako izango litzateke 1975-85 hamarkadan. Dagoen aktibitate-tasa globala aplikatuz, guti gora behera hamabost mila pertsonaz ugalduko litzateke jendetza aktiboaren kopurua. 1972-75 urtealdian aktibitaterako sarrera netoek gainditu egin zuten urteko 23 mila pertsonaren kopurua, lanaren merkatuan sartzeko joeraren gorakada nabarmenduz (inmigrazioaren efektua barne, nahiz eta berau atzerakada garbi batetan aurkitzen zen aurreko hamarkaden gonbarazioan). Behin 1975.az gero, kontrakoa da egoera, eta azken hiru urteotan urteko seiren bat mila pertsonatara gutitu dira aktibitaterako sarrerak, aktibitate-tasen aipatu inflexioaren ondorio bezala.

Urteko sarrera-zifraon arteko diferentziak argi erakusten digu zein den potentzialki aktiboa izanda ere ekonomi kojuntura horrek «etsierazi» duen jendetza, zeren krisi aurreko baldintzetan pertsona hauek lanaren merkatura sartuko baitziratekeen. Iritzi desberdinak daude, hauek ere langabe bezala kontatu

Euskal Herria bere %14eko langabezi tasarekin, Espaniako batzbestekoa baino gorago aurkitzen da, eta aise doblatzen du Europa mailakoa.

behar diren ala ez erabakitzeko orduan, baina ez da inoiz dudan jarri ere egiten kolektibo honen funtsezko zati bat behinik behin lanaren merkatura sartuko dela ekonomia inoiz zuzperetzen baldin bada. Eta aktibitate-tasen zuzperdura hori gerta liteke, partzialki bederen, atzeraldiko garaian bertan ere, baldin eta hau eperik gabe luzatuko balitz, zeren zenbait mekanismo disuaditzailek (eskolaldia luzatzeak, adibidez) jite iragankor bat baitu. Guzti horrengatik, bada, langabetuen artean kontaktu ala ez aparte utzirik «etsipenaren» norainokoa ezagutu beharra da goela dirudi, eta hori egungo egoeraz jabetzeko, alde batetik, eta krisiari inolako irtenbide posiblerik eman ahal izateko bestetik.

Zifra hori kalkulatzeko normalean erabili ohi den metodologia, aktibitate-tasak historian zehar izan duen joera-motaren bat lortzean datza, eta joera honen gonbarazioan zifra errealek duten desbiderazioa kalkulatzean, hain zuzen<sup>36</sup>. Euskal Herriko daturik ez dugunez gero (ikus 10. oharra), bi hurbilketa alternatibo erabili dira kolektibo honen garrantziaren zenbatekoa estimatzeko. Lehenengo, Estatu mailen sexu eta adin-talde bakoitzarentzat oharteman diren aktibitate-desberdintasunak aplikatu zaizkio 1979. urtearen erdialderako estimatu den Euskal Herriko populazio aktiboari. Kalkulu honek hamabi milatik hamabostetako «etsitako» pertsonen zifra jaurtiki zuen (hori aldaketa netoa ala tasek gutipen bat erakusten duteneko adin-taldeak bazarrik erabiltzen diren kontu), berorietako %70 inguru emakumeak zirelarik. Metodo alternatiboa, bere aldetik, honetan datza: 1975.aren azken aldera eman ziren aktibitate tasak (historian zehar eman den maximotik hurbil daudenak) 1979.eko populazioko talde egokiei aplikatzean hain prezeski. Gero aktibo potentzialen zifra hau, oinarri populazio berari 1979.eko batezbesteko tasa errealek aplikatuzetik ateratzen denarekin gonbaratzen da, eta diferentzia bezala lortzen dena fetxa horretako «etsien» zenbakia izango da. Kalkulu honen emaitzak 55 mila aktibo potentzial etsiko zifra jaurtikitzen du<sup>37</sup>.

Hitz batez esateko, «etsien» kolektiboari eman nahi litzaiokeen kontsiderazioaz aparte, negatiboki baloratu behar da krisi garaiko aktibitate-tasen eboluzioa, eta hori bai bere baitan daraman problematika sozialarengatik eta berdin suposatzen duen produkzio-ahalmenaren gutxiketa artifizialarengatik ere. Kontutan hartu behar da, gainera, garrantzizko kolektibo bat (hamabost eta berrogeita hamar mila arteko pertsona kopurua izan daitekeena) sar daitekeela lanaren merkatura, batez ere ihardueraren ekonomikoa zuzperetzen baldin bada. Krisiak era horretan iz-



kutuko problema bat sortu duela esan daiteke hemen, eta haren ondorioak ekonomia bere atzeraldi honetatik irteten hasterakoan ager daitezkeela, hots, aktibitate-tasaren emendio potentzial horrek berreragiketa ekonomikoarekin sor ditzakeen lanpostu berriak irensterakoan.

## Gaurregungo egoeraren laburpena

Desenpleguaren arazoa Euskal Herrian gaurregun zein larria den ikusteko, begiratu besterik ez dago 1979.eko udazkenean ematen zen 150.000tik gorako langabeturen zifrari (eta hori kontutuan hartu gabe EPAREN beraren %20ko azpiestimazioa), eta gero enplegu bat lortzeko dauden zailtasun eta eragozpenengatik lanaren merkatura hurbildu ere egin ez diren milaka eta milaka pertsona horiei (hamabost milatik berrogeita hamar milara bitartean, erabili diren hipotesien arauera). Euskal Herriko produktio sistemak, bere gehiengoan bere lanindarra salduz bizi behar duen gizarte bat sortu digu, bere hazkunde garaian etorkin-jendetza itzala enplegu bila erakarrit, eta orain ez da gauza lanpostu bat emateko sistemak berak sortu duen kolektibo honi.

Eta langabeziaren arazoarekin nahikoa ez bagenu bezala, bai drama pertsonal, bai arazo kolektibo bezala, Espainol Estatuan desenpleguaren kontrako babes-legeak beren atzerapenez nabarmentzen dira Europan dituzten sistemen gonbarazioan eta atzerakortasun nabarmen batez, azken denboraotan. Enpresalgoa eta Gobernuak bere bozeramaleak sekulan baino erabakiagoak daude langabeziaren ondorioak arintzera destinaturiko baliabide murrizten zati on bat aldaratzeka ere. Eta bien bitartean, langabezia hori ez da merkatu-ekonomiak gaurregungo krisi luze eta sakon honetan enplegua sortzeko edo daudenak mantentzeko erakusten duen ezintasunaren ondorio zuzen bat besterik.

Espainiako Kongresuak 1980.eko ekainean onartu zuen «Ley Básica del Empleo» delako hori, langabetuen desenplegu-egoera arintzera destinaturiko fondoei Gobernuak azken urteotan egin dizkien etengabeko erasoetan gogorrena dugu inongo ezpairik gabe. Uste denez, lege horren 20. artikuluan jasotzen diren laguntzen iraupenaren murriztapenekin, gaurregun desenplegu-asegururako destinatzen diren fondoetatik ia %40 aurrera daiteke. Murrizte-politika hau, bestalde, egungo egoera eta etorkizun hurbilerako perspektibak behin mundu gerra amaitu zenez geoztik inoiz baino ilunagoak direnean planteatzen da.

Azaldu da jadanik Euskal Herriko egoera: bere guti gora

behera %14eko langabezi tasarekin, Espainiako batezbestekoa baino gorago aurkitzen da, eta aise baino aiseago doblatzen du Europa mailakoa. Pasa gaitezen orain Euskal Herriko enplegu eta langabeziari buruz etorkizun hurbil batetarako egin daitezkeen aurrikuspenak aztertzeraz.

## EPE ERDIRAKO PERSPEKTIBAK

Enpresa-ordezkariek eta politikaren arduradunek luze eta zabal egunero errepikatu ohi diguten iritzi batek dioenez, berriragiketa ekonomikoan legoke langabeziarekin behin betikoz bukatzeko erremedio bakarra. Eta hori, berriz, alokairuak geldieraziz eta laneskuaeren produktibitatea fermuki goratuz bakarrik omen litzateke posible. Horrela, produkzioaren konkurrentzialtasunaren eta kapitalaren errentagarritasunaren hobekuntza substantziala lortuko omen litzateke. Jokabide horrekin produkzio-inbertsioaren berrabiadura sortuko litzateke eta, ondorioz, gaurregun dakusagun langabezia irentsiko lukeen berriragiketa ekonomikoa. Hitz batetan esateko, diziplina gehiago eta errendimendu hobea lanean eta alokairu-exigentzia gutiago behar litzateke hemen. Aplika litezkeen gainerako neurri guztiak, ardatz nagusi horren inguruko elementu lagungarri hutsak izango litzateke. 1977.eko udazkenean sinatu ziren Moncloako Paktuak analisi horrixek jarraitzen zitzaizkion. Instituzio mailako zenbait puntuz aparte —hauek ere lausoki definituak eta gero ia batera kunplitu ez direnak—, paktuak alokairuen geldierazpenean (1977.ean jasan zen lormenaren narriaduraren azpitik) eta espainol produktuen konkurrentzialtasunaren hobekuntzarako neurrietan zentratzen ziren (osasuntzeko egitarauaren xederik behinena inflazioa geldieraztea baitzen). Desenpleguaren kontrako borroka bigarren mailan geratzen zela frogatzeko, ikusi besterik ez dago paktuetan enpleguari eta langabeziari buruz ez zela inongo xede expliziturik eman. Gehiago oraindik, xede implizitua (ehun mila langabetu gehiago 1978.ean zehar) nabarmenki zentzugabea zen planteatutako hazkunde-helburuekin gonbaratuz gero. Praktikan, 350.000 lanpostutik gora galdu ziren, eta Barne Produkzio Gordinaren hazkundeari buruzko aurrikuspenak ez balira aise gaudituz, zifra hori hel zitekeen erraz aski milioi erdiraino ere.

Gobernuak 1979.eko udan aurkezturiko ekonomi programa ere bide «liberal» berari jarraitzen zaio. Enpleguak sortzeko

xedea inflazioaren kontrako borrokaren menpean jartzen da orain ere. Teoria honek dioenez, behin Espainiako ekonomia «osasunduz» gero, osasuntze horrek berak amaituko du, inoizaldiko etorkizunen batetan, gaurrengungo langabeziarekin. Tesi «liberal» hau kontrastatzeko xedearekin, Euskal Herriari aplikagarri litzaiokeen eredu txiki bat aurkezten da ondoren eta berorrekin baloratzen saiatuko gara ekonomiaren berrerragiketa batek enpleguarekiko izan ditzakeen ondorioak<sup>18</sup>.

### **Berrerragiketa ekonomiko posible batek Euskal Herriko enplegu mailan izan ditzakeen ondorioak**

Euskal Herriari buruzko datuak urriak baldin badira ere, bertako ekonomi aktibitatearen zuzperdura hipotetiko baten aurrean enpleguaren gorabeherak jaso ditzakeen eredu xume bat formulatzen saiatu gara. Horretarako, Bilboko Bankuaren «Renta Nacional de España y su distribución provincial» delakoan biltzen diren datuak erabili ditugu. 1964.etik 77.era bitarteko datuak erabiliz, sektore-partaidetzak Barne Produkzio Gordinean (BPG) eta sektore-produktibitateek Euskal Herriko pertsona enplegatutako bakoitzeko izan dituzten denborazko joerak estimatu dira, eta guzti hori ekonomiaren berezketa ohizko lau aktibitate-adar haundietan eginez: lehen sektorea (nekazaritza, abelazkuntza eta arrantza), industria, eraikuntza eta zerbitzuak. Sektore-produktibitateak doitzeko, funtzio linealak erabili dira<sup>19</sup>, eta jakina, horrek, aztergai hartu dugun aldi horretan lanaldiaren iraupenaren laburtzeko joera bat dagoela suposatzen du inplizituki.

Euskal Herriak datozen urteotan ekonomi aktibitatearen pizkanako zuzperdura bat ezagutuko duela suposatzen da. Hori argitzeko erabili den hipotesia, aurtengo BPGren hazkunde-tasa %1-ekoa, %3koa datorren urteari dagokiona eta ondoko urteetakoa %5ekoa izango dela ustetik abiatzen da.

Hala ere, egin den bezain hipotesi optimista batek ere ez du ematen behar hainbat lanpostu sortuko dela sinesteko esperantzarik. *Enplegua oraindik ere gutituz joango da lehen bi urteetan, eta 1983.ean bertan ere enplegu-maila ia hoge mila pertsona gutiagokoa izango litzateke 1979.aren gonbarazioan.*

Zikloaren produktibitatearekiko eragina jaso ahal izateko, alde batez bakarrik izango bada ere, BPG globalaren hazkunde-tasa ere erabili da, industri sektoreko produktibitatearen ebo-luzioaren aldagai expligarri bezala. 1978. eta 1979. urteetarako, hurrenez-hurren, %1,3 eta 0 hartu dira Euskal Herriko BPGren hazkunde-tasa bezala.

Gisa honetan eraikitako ereduaren fidagarritasun erlatiboa, ikus daiteke 1978. eta 1979. erako ematen dituen erresultaduak (enplegu globalaren murriztapenak 22,9 eta 32,9 mila pertsonatan hurrenez hurren) EPAk ematen dituen datuekin gonbaraturaz (19,9 eta 17,7 mila landun gutiago urte horietan). Argi dago ereduak gainestimatu egiten duela, neurri batetan bederen, enpleguaren 1977-79.eko uzkurdura. Eta hori, ereduaren faktore ziklikoei garrantzi mugatu bat eman zaielako da funtsean.

Izan ere, eredu honek ez ditu kontutan hartzen aktibitate beherakadak pertsona enplegatu bakoitzeko produktibitatean dituen ondorio negatiboak, hala nola lanaldiaren moztea (dela ordu extrak gutituz, edo eta ohizko lanaldia bera ere enplegu-arauketaren agiriaren bitartez murriztuz). Dena den, aldaketaren zeinua eta nolorebait haunditasuna ere jasotzen dira ereduaren emaitzetan. Beste aldetik, kontutan hartu behar da zuzperdura hipotetiko batek kontrako zentzuan jokaeraziko liekeela faktore hauei berei, hau da, ereduak berreragiketa garaiko enplegu berriaren sorkuntza gain-estimatzeraz joko lukeela, lanaldia luzatu eta eskariaren inkrementuaren aurrean lana efizienteagoa izango litzatekeela kontutan ez hartzearen ondorioz.

Labur esateko, aurrikuspen hauez nahiago litzateke euskal produkzio-sistemaren baitako joerak aztertzeke tresna bezala zerbitzatu, ezen ez enpleguaren geroko eboluzioari buruzko estimazio zehatzak ematen saiatu.

Euskal Herriak datozen urteotan ekonomi aktibitatearen pizkanako zuzperdura bat ezagutuko duela suposatu da. Hori argitzeke erabili den hipotesia, aurtengo BPGren hazkunde-tasa %1ekoa, %3koa datorren urteari dagokiona eta ondoko urteetarako %5ekoa izango dela ustetik abiatzen da. 3. taulan jasotzen dira ereduak 1979-83 urtealdirako ematen dituen produkzioari, produktibitateari eta enpleguari buruzko estimazioak. Hala ere, egin den bezain hipotesi optimista batek ere ez du ematen behar hainbat lanpostu sortuko dela sinesteko esperantzarik. Ikus daiteke taulan enplegua oraindik ere gutituz joango dela lehen bi urteetan, eta 1983. ean bertan ere enplegu-maila ia hogeita mila pertsona gutiagokoa izango litzateke 1979.aren gonbarazioan.

Eman den sektore-desglosea kritika badaiteke ere (berrerragiketarako eraikuntzako sektorean izango lukeen eragina azpi-estimatuagatik bereziki), emaitza globala nahiko errepresentagarritzat eman daiteke.

### Desenpleguaren eboluzioa berrerragiketa garaian

Aurreko apartatuan lorturiko enplegu aurrikuspenak Euskal Herrian eman daitekeen laneku-eskaintzaren eboluzioarekin konbinatzen baditugu, berehalaxe egin dezakegu euskal langile-riari irekitzen zaion desenplegu-aldi luzearen perspektiben ideia bat. Esan da jadanik zein nolako eragozpenak dauden aktibitate-tasen biharko eboluzioa nolabaiteko fidagarritasunez kalkulatzeko, eta hori bere ez-egonkortasun ziklo erlatiboarengatik, alde batetik, eta estatistik datu egokien faltaz, bestetik. Nolanahi ere, ezar daitezke datozen urteetako jendetza aktiboaren eboluzioa hurbildik zedatzeko posibilitatea eman dezaketen balizkako xume batzuk.

Lehen hipotesi bat, aktibitate-tasen eboluzioaren «behepuntuatutzat» eman daitekeena, 1979-83 urtealdian 1976-79 urtealdiko eboluzio bera mantenduko dela suposatzean datza. 1983. urteko ataratzaren diren tasak (%67,86 gizonezkoentzat eta %29,19 emakumezkoentzat) Bilboko Merkatal Ganbararen estimazioei aplikatuz gero (ikus 15. oharra) 26.400 pertsonako sarrera netoa lortzen da 1979-83 lau-urteko epealdirako; 2.400 gizonezkoren beharakada eta 28.800 emakumezkoren gorakada, hain zuzen.

Bigarren hipotesia, eta egungo zirkunstantzietan «gailurtzat» eman daitekeena, aktibitate-tasak 1979. urtean zuten maila berarekin tinko eutsiz lortzen da. Kalkulu honek euskal jendetza aktiboaren 56.300 pertsonako ugaltze netoa ematen du 1979-83 urteko (40.200 gizonezko eta 16.100 emakumezko).

Ondorio gisa, 19.500 pertsonako enplegu-uzkurdura eta lanindarraren ugaltze aurrikusgarria (26.400 eta 56.300 pertsona, emandako hipotesien arauera) batzen baldin baditugu, 45.900etik 75.800era langabetu gehiago ataratzaren zaizkigu 1979-83 urte-aldirako. 3. taulan zehazten diren datuetatik egiaztatu daiteke 1981-83 urtealdian ere, urteko %5eko hazkunde-tasarekin, langabezia gorakadan egon daitekeela urteko bost mila pertsonako ugaltzearekin.

Analisi honen azken ondorio bezala, zera esan behar da:

gaurrengungo (eta egunero-egunero gorakadan doan) langabezia irensteko ez dela aski berreragiketa ekonomiko soil batekin. Urteko %5ekoa bezain hazkunde-tasa optimista bat ere ez da nahikoa egungo langabezia gutxitzeko. Orain arte erabili dugun analisi tresna aplikatuz, kalkula ditzakegu 1980-83 lau-urtekoan mantendu beharko liratekeen hazkunde-tasa globalak, 1979.aren azken aldera aurkitzen zen langabeziaren funtsezko zati bat irensteko<sup>30</sup>.

Xedea	Urtero beharko litzatekeen hazkunde-tasa
1980.aren azken aldeko langabezi mailari eustea ... ..	%5,2
Langabezia %25ean gutxitzea ...	%6,3
Langabezia erdira gutxitzea ... ..	%7,3
Langabezia 1974.eko mailara gutxitzea (28.400en bat langabe) ...	%8,4

Ikus daitekeenez, bada, jomugarik apalenak ere %22,5eko hazkunde suposatzen du aipatu lau urteetarako, eta hori ezin dezake inondik inora ere euskal ekonomiak. Krisi aurreko langabezi mailara itzultzea bezalako jomuga anbiziosoagoek, berriz, %40 inguruko hazkunde eskatzen dute. Hitz batez esateko, hainbat bider errepikatu eta onartu izan den langabeziaren kontrako formula «liberal» hori ez da inolako soluzio, ez bakarrik epe laburrerako, ezen ezta epe erdirako ere, Euskal Herriak duen langabezi arazo itzal hau konpontzeko. Produkzio-aktibitatearen zuzperdura simple bat postulatzearekin —dela inbertsioa edo eta lanaren produktibitatea azpimarratuz—, soluzionatu gabe geratzen da beti langabeziaren arazoa. Beste alternatibak bilatu behar dira, baina planteatzen den erronkari egokiro erantzun diezaioketen alternatibak ordea.

### ALTERNATIBAK, LANGABEZIAREN KONTRAKO BURRUKAN

Ezin espero daiteke euskal ekonomiak egungo langabezia konpontzen hasteko bezainbateko zuzperdura bizkor eta indartsurik lor dezakeenik. Aregoa oraindik, nahiko zaila ematen du gaurrengungo desenplegu-mailari berari eustea, baldin eta ez ba-

dira horretarako neurriak hartzen. Panorama honen aurrean, Euskal Herriak gaurregun jasaten duen langabezia masibo hau konpondu ez bada ere, nolabait arindu dezaketen neurri posibleen azterketa serio bat planteatu behar da.

Azpimarratu dugu jadanik berreragiketa ekonomikoak, berez, zein posibilitate eskasak eskaintzen dituen. Orain erantsi diezazkiokegu guzti horri, Euskal Herriak bere ekonomia autonomoki berrabiatzeko aurkitzen dituen oztopo izugarriak. Ekonomi sistema kapitalista, gaurregun, mundu mailako inter-erlaziozko sare konplexu bat da, eta bertan estatuen autonomia —eta bigarren eta hirugarren mailakoena bereziki—, ondo gauza ñimiñoa gertatzen da. Krisiak jotako europar ekonomia baten barruan espainol ekonomia berreragitea ezin pentsatuzkoa da. Eta Euskal Herria oraindik ere dependentzia haundiagoan dago mekanismo arrotzetiko, zeren bere dimentsio eskasak, bere produkzio-espezializazioak, bere exportazio eta inportantzioarekiko dependentziak, bere ekonomi politikarako tresna propioen ausentziak (Autonomi Estatutuaren desarroiloarekin hein batetan bakarrik konpon daitekeen ausentziak, bestalde), eta bai politikoki eta bai ekonomikoki Estatu Espainolean duen integrazio mailak, benetan muga estuak ezartzen bazitziote botere autonomoari euskal ekonomia berreragiteko.

Panorama honen aurrean, langabeziaren kontrako burruka ezin gera daiteke inbertsioa bultzatu eta berreragiketa animatzeko (hots, inflazioa geldierazi eta irabaziak zuzpertzeko) politika soil batetan, UCDe aplikatu duen ereduaren barruan; aitzitik baizik neurri espezifikoak hartu behar ditu desenpleguaren kontra. Eta zentzu honetan, hiru ihardun-fronte haundi azpimarratu beharko liriateke: dagoen enplegua banatzeko neurriak, enplegua sortzera zuzenduriko politika publikoa eta desenpleguaren kontrako babes-neurriak.

Ezin espero daiteke euskal ekonomiak egungo langabezia konpontzen hasteko bezainbateko zuzperdura bizkor eta indartsurik lor dezakeenik. Areago oraindik, *nahiko zaila ematen du gaurregungo desenplegu-mailari berari eustea, baldin eta ez badira horretarako neurriak hartzen*. Panorama horren aurrean, Euskal Herriak gaurregun jasaten duen langabezia masibo hau konpondu ez bada ere, nolabait arindu dezaketen neurri posibleen azterketa serio bat planteatu behar da.

## Dagoen enplegua banatzeko neurriak

Kapitalismoak azken urteotan alokatu bakoitzari lanpostu bat eskaintzeko erakusten duen ezintasunaren aurrean, zentzu arruntak begien bistako «soluzioa» proposatu ohi du: dagoen enplegua laneskua eskaintzen duten guztien artean banatu, denentzako lanik izan dadin, lanaldia murriztu bada ere (edo lanaldia murrizteko, proposamena egiten duenaren ikuspuntua zein den kontu). Anitz formula dago helburu hori lortzeko, berrietako adibide arruntenak ohizko lanaldia laburtzea, gainorduak gutitzea, derrigorrezko oporraldiak ugaltzea, plurienpleguari eragozpenak ezartzea, edo lanaldi partzialak egiteko erraztasunak ematea izango liratekeelarik.

Gisa honetako neurriak beren selektibitate eskasiarengatik bereizten dira eta, produkzio-sistema osoari eragiteagatik, hain zuzen ere. Jokabide honek ekonomi sektore guztietan sortuko luke enplegua era horretan krisialdiak gehien jipoitu eta marginatu dituenentzat (gazte eta emakumezkoentzat bereziki) lanpostuak sortzeko aukera emanaz. Balantzaren beste plateran, ordea, eta selektibitate eskasia horretxengatik zailtasunik larrienak jasaten dituzten produkzio-sektoreak gerta daitezke negatiboki afektatuak. Neurri hauen aplikazioak sortuko lituzkeen lanpostuek kontrapisu bat izango lukete sektore horietako uzkurdua posiblean.

Neurri horiek Euskal Herrian izango luketen ondorio posiblearen adibide erakusgarri soil bezala 1980-83 lau-urtealdian produktibitatea enplegudun pertsona bakoitzeko %7,5ean beharrezaren ondorioz sor litezkeen lanpostu alokatu berrien zenbakia kalkulatu da<sup>21</sup>. 3. taulan aplikatutako hipotesiak mantenduz eta neurri horiek ez diotela eragingo enpresen jokabideari suposatuz, estima daiteke, 1983. urtean, 58.300 langile enplegudun gehiago izango liratekeela, neurri horien ondorioz. Gisa honetako neurrien efikazia bistakoa da, emaitza, urteko %5eko hazkunde-tasak sortuko lituzkeen hamar mila lanpostu berri eskas horiekin gonbaratzen bada. Kontutan hartu behar da, bestalde, ezen 1983. urteko %7,5 inguruko lanaldiaren mozte batek, 1979.aren azkenaldiko langabetuen %40 baino gehiago irentsi-ko lukeela. Eta hori ezin daiteke inola ere euskal ekonomian, produkzio-hazkundearen bidez egin nahi izanez gero.

Horrelako «zentzu arrunteko» neurriak ezartzeko, eragozpen haundi bat dago, tamalez. Sistema kapitalistak irabazien funtzioan produzitzen du, eta, beraz, bere mozkin-tasa ez gutitze-



kotan bakarrik onartuko lituzke antzeko neurriak. Honek, jakina, lanaren banaketa alokatu enplegudunen bizkarretik egitea suposatuko luke, beren lanaren eta soldataren zati bat langabetuei emanaz. Horrelako neurriek langile klaseko enplegudunen eta enplegugabeen artean istiluak sortuko lituzkete, lanaren eta kapitalaren arteko gatazka, horrela, langileen beren arteko burruka bilakatuz.

Bestetik, kostuaren banaketari buruz, enpresarien eta langileen arteko konpromezuzko soluzio bat lortuko balitz ere<sup>22</sup>, enpresarien interesa bera kontraesanean aurkitzen da lan erabilgarria banatzeko ideiarekin. Bi arrazoiengatik hori. Alde batetik, lanaldia mozteak murriztu egiten du kapitalaren maniobratzeko ahalmena, mugatu egiten baitu plusbalioa ateratzeko oinarria, nahiz absolutua nahiz erlatiboa izan plusbalio hori. Eta, historian eman dena kontutan harturik, oso zaila da lanaldiaren murriztapenean atzera jotzea. Beste aldetik, berriz, langabezi maila haundi bati eustea, bai-ala-ezko elementu bat da gaurengungo krisia gainditzeko, produkzio-sistema kapitalistaren barruan<sup>23</sup>. Langabezia desagertzearen ondorioz langilariaren homogenoztazeak eta erreserbako industri langile sail hori gutitzeak, kapitala bera desabantailan jarriko lukete hurrengo batailetarako, nahiz eta gisa honetako neurrien kostuaren parterik haundienari ihes egin ahal izan.

Zirkunstantzia horietan, ez da batere harriztekoa gobernuak lanaren banaketa suposatzen ez duten neurritara jo nahi izatea. Eta neurri hauen artean, lanindarra artifiziaalki gutitzera jotzen dutenak izan ohi dira tipikoenak. Hor daude, adibide bezala, eskol urteen luzapena, jubilazioak aurreratzea, eta lanaren merkatutik irtenerazteko pizgarriak, lan autonomoa, kooperatiboa edo denboraldi partzialekoa hartzera bultzatuz. Langilearen ikuspuntutik, eta askotan gizarte osoarenetik oro har, soluzio baino

Euskal Herrian, langabeziaren kontrako burruka ezin gera daiteke inbertsioa bultzatu eta berreragiketa animatzeko (hots, inflazioa geldierazi eta irabaziak zuzpertzeko) politika soil batetan, UCDDk aplikatu duen eredu horren barruan; aitzitik baizik neurri espezifikokoak hartu behar ditu desenpleguaren kontra.

Eta zentzu honetan, *hiru ihardun-fronte haundi azpimarratu beharko liriateke: dagoen enplegua banatzeko neurriak, enplegua sortzera zuzenduriko politika publikoa eta desenpleguaren kontrako babes-neurriak.*

gehiago problema izan ohi dira neurriok, zeren ez baitute lanposturik sortzen, lan-eskaintza gutitu baizik. Jubilatua ostrazismora kondentzen da; derrigorrezko estudianteari gero ezin aseko zaizkion esperantzak sortzen zaizkio; autonomia edo kooperatibista lanaren merkatutik irtetera bultzatzen da, epe erdira ere iraun ahalko ez duen produktu-merkatuan sartzera behartuz. Arazo guzti hauen gainera, ordea, klase dominatzaileak nahiago du beti adabakizko politika, dagoen lana banatzea baino.

### Enplegua sortzeko politika publikoa

Langabeziaren kontrako bigarren neurri-mota bat Estatuak (eta/edo sektore publikoak) enplegu sortzaile bezala duen betebeharraren zentratzen da, bai zuzenean lanpostu berriak sortuz eta baita sektore pribatua neurri fiskal edo finantzazkoen bidez lana sortzera bultzatuz<sup>24</sup>. Zentzu honetan, euskal Parlamentu eta Gobernu jaioberriek beren postura hartu beharko dute Administrazio Publiko Autonomoak enplegua sortzen zein jokabide hartuko duen definituz. Ekonomi plangintzaren alorreko kompetentzia eksklusiboen desarrolloak (Autonomi Estatutuko 10. 25 art.), Kontzertu Ekonomikoan negoziaketarekin batera, berebiziko premiasuna aurkezten du enplegu-sorkuntzarako politika-mota hauek martxan jartzeko.

Langabeziaren kontrako politika publiko hau enplegu gehien sortzen duten sektore ekonomikoak sustatzera zuzen daiteke. Ekonomiako lau adar haundien agregazio mailan industria da (eta honen barruan Euskal Herrian hain garrantzizko diren siderurgia eta oinarrizko kimika) produktu- edo inbertsio-unitate bakoitzeko lanposturik gutien ematen duena. Horregatik, badi-rudi, enplegua sortzeko programak antolatzeko garaian, lehen sektorean, eraikuntzan eta zerbitzuetan zentratzea dela bidezkoena. Jakina, horrek ez du esan nahi industria ahaztu egin behar denik; behar beharrezkoa zaio euskal ekonomiari berorren berregiturapena, bertan milaka eta milaka lanpostu dardenez gero jokoan. Hala ere Gobernuak gainerako sektoreek eskaintzen dituzten enpleguak ugaltzeko posibilitateak estudiatu behar lituzke bereziki, eta kolektibo alokatuari eraikuntzak eta zerbitzuek eskaintzek dizkiotenak partikularki.

Zerbitzuen eta eraikuntzaren sektoreak sustatu behar direla esaten bada, ez da egiten beroriengandik enplegua sortzeko posibilitate haundiak espero direlako bakarrik, badaude horretara

obligatzen duten arrazoi sakonagoak ere. Gogoratu besterik ez dago, zer nolako defizita dagoen Euskal Herrian era guztietako azpiegituren mailan (hirigintzan, garraioan, etab.) eta baita zerbitzuen mailan ere (pertsonalean bereziki: hezkuntzan, osasunean, aisian, kulturalan, etab.). Oraindik egin berria den estudio batek<sup>25</sup> 525.000 milioi pezetatan jotzen du Bizkaia eta Gipuzkoako defizita: 270.000 garraioetan, 42.000 ingurugiroan, 39.000 osasunean eta 37.000 oinarriko azpiegituran.

Politika-mota honek Euskal Herriko enpleguarentzat izango lukeen eraginaz argi piska bat egitearren, eman dezagun ekonomi politikazko eta gastu publikozko neurriak aplikatuz, euskal BPGn industriak duen partea 1979.ean lortutako maila berean finkatzen dela eta 3. taulan aurrikusten den %3,64eko industri inkrementua eraikuntzaren eta zerbitzuen artean banatzen dela. Aldakuntza honek hamabitik hogeita hiru milarako lanposturen sorkuntza netoa suposatuko luke 1979-83 lau-urterako (inkrementu hori eraikuntzaren eta zerbitzuen artean 1979.ean zuten bolumenaren proportzioan ala erdibanatan partitzen den kontu). Bi sektoreen artean sortutako 35.000 lanpostu berri horiek (46.000 bigarren balizkakoaren arauera) aise gainditzen dituzte industrian galdutako 23.000 postuak. Hala ere zera ikusi behar da hemen, alegia, enplegu-maila zuzpertzeko laguntza substantzial bat emanda ere, ez direla lortzen oro har enplegu-banaketarekin bezain garrantziko emaitzak. Gogoratu beharra dago, ordea, zerbitzuen sektorea hedatzeko neurriek beste hainbat ondorio mesedegarri izango luketela enpleguan. Sektore honetan, adibidez, industrian (eta bereziki industria astunean) baino emakumezko gehiago izaten denez gero, murriz liteke zertxobait behintzat euskal emakumeak lanaren merkatuan gizonarekiko jasaten duen diskriminazio itzal hori.

Finantzapen publikoak garrantziko zeregin bat betetzen

Euskal gizartearen gaurrengungo egoeran, ezin segurta daiteke lehiakideek interes garbiegirik dutenik langabeziaren arazoari larriagotzen uzteko; batzuentzat, lehendik erradikalizatuta dagoen gizarte batetan ustekabeaz zapart egiteko moduko egoeran sartuko litzatekeelako; eta besteentzat lehendik ere nahiko geldierazia eta zaitua dagoen langilerian etsipenezko ondorio zaitzaileak izango litzatekeelako. Gisa honetako indarren erlazioaren aurrean, *possible litzateke, agian, proposaturiko neurriak eta berorien ondorioen kostuak elkarren artean banatzeko akordiotara iristea.*

duen neurri-mota honetan (bai sektore publikoaren bidez zuzenean inbertituz, bai gastu publikoaren bidez, edo eta baita sektore pribatura zuzenduriko pizgarrien bidez ere), erabili beharreko fondoen iturburuan eta neurri horiek faboratzen dituztenei administrazioak ezartzen dizkien baldintzetan aurkitzen da eragozpenik larriena. Erabilitako fondoen iturburuak mila kontratan sozial sor ditzake: presio fiskalaren emendioa eta zein klase edo kolektiboren gainean, dauden fondoen izendapen berria (defentsatik herrilantetara edo hezkuntzara transferituz, enpresa pribatuen subentzioak sektore publikoa potentziatzera destinatuz, adibidez), kredituen bidezko finantzapen inflazionista, etab. Kapital pribatuaren pizgarriei ezarritako baldintzek edo sustatu beharreko sektoreen hautaketak berak ere tirandura bortitz askoak sor ditzakete klase dominatzailearen beraren baitan ere.

Ustez neurri-talde honetan sartu beharko litzateke espainol gobernuak azken bi urte hauetan praktikatzen duen enpleguaren sustaketa-politika. Prentsak aldiro aldiro iragartzen digun bezala, ehundaka mila postu berri sortzen ari dira urtero ematen diren atsegin-sarien bidez. Neurri horiek eskaintzen dituzten hutsune edo akats ugariekin sartu gabe (hala nola, desenplegu-asegurua ez gozatzen dutenak kontratatzeke lehentasuna atsegin-sariez gozatzeko, edo eta kontratatzeke prozesuarekiko kontrol-falta), langabezia etengabe goraka doala ikusi besterik ez dago, enplegua sustatzeko programak ez direla esaten duten enplegua sortzen ari sospetxatzeko. Eraitza zehatzik argitaratu ez bada ere, langile finkoen ordez aldizkakoak hartzeko prozesu bat sortzen ari dela ematen du alde guztietatik, eta, jakina, guzti horrek bidezko arrisku bat suposatzen du lanpostu «berri» horien etorkizunerako. Ez dira lanpostu berriak sortzen ari, nolahi ere sortuko zirenak subentzionatzen baizik. Egia esateko, atsegin-sarien bidez enplegua sustatzeko plan horiek, enpresen errentagarritasuna zuzpertzten laguntzeaz gainera, atzeko atetik halako plantila-malgutasun bat sartzeko balio dute.

### **Desenpleguaren kontrako babesa**

Enplegu-politikak, nahiz lana banatuz nahiz lanpostu berriak sortuz enpleguak sortzen saiatzeaz aparte, arindu egin behar du baita lanik gabe geratu diren pertsonen egoera ere. Eta puntu honetan desenplegu-asegurua prestazio-politikak duen garrantzia azpimarratu beharko litzateke oso bereziki.

Esan da lehenago ere espainol sistema ez dela hain xuxen bere eskuzabaltasunaz bereizten. Eta frogagarri soil besterik ez ematearren, esan dezagun 1979.eko azaroan desenplegu osoagatik prestazioa hartzen zutenak ez zirela 38.000ra iristen Euskal Herrian (erregistratuta zeuden langabetuak 79 mila ziren eta EPAREN arauera 110 milatik gora). Kontutan hartzen badugu fetxa horietan 9.500en bat aurkitzen zirela garaiz aurretik jubilatuta eta enplegu-etendurarekin, aseguruaren estaldura ez zen langabetuen heren bat ere estaltzera iristen<sup>26</sup>. Krisiak Euskal Herrian duen gogortasuna nabari daiteke, bestalde, honako datu honetan ere: alegia, aseguruaz babesten zirenen %61,5 jandik prestazioaren lehen edo bigarren luzapen edo prorrogan aurkitzen ziren, estatu mailan %54,2 zeuden bitartean. Eta egoera oraindik larriago egiten da, enplegu-arauketaren agiriak eraginda beren geroko eskubideen zati bat galduta aurkitzen diren langileen zerrenda luzea ere kontutan hartzen baldin bada. Prestazioaren batezbesteko kopurua hileko 28.00 pezeta inguruan zebilen, estatu mailako batezbestekoa %17z gaintutuz.

Desenplegu-aseguruaren estaldura-maila hain eskasa izanik eta ikusirik nolako lazerian uzten dituen lanaren merkatuan sartzen diren gazteak eta beren eskubidea enplegurik aurkitu gabe bukatu zaien langileak, arrazoizko litzateke aseguruaren eremua zabaltzeko metodoak bilatzea. Alabaina, gorago adierazi den bezala, horretxan kontrakoa egiten du, hain zuzen, oraindik berrikitan onartu den Enpleguaren Oinarrizko Legeak<sup>27</sup>. Gauza berri bezala aplikazio mugatua duen eta gehienez ere sei hilabetez luza daitekeen subsidio bat sartzen badu ere, prestazio-aldia murriztearen ondorioa dramatikoa izan daiteke (batez ere aldikako enplegua ugaria den sektoreetan, eraikuntzan adibidez). Horrela bada, lehenik bajuak ziren estaldura-indizeak oraindik beherago jaitsiko dira lege berriaren ondorioz. Horrela egoera lehargarri bat sor liteke, eta ez litzateke batere gaizki egongo, luzaro gabe bere garratzasun osoan ager daitekeen problema bati oraintxetik bertatik soluziobideak ematen saiatzea<sup>28</sup>.

Desenplegu-egoera arintzeko beste neurri mota bat, lanaren merkatuaren gardentasunaren eta mugikortasunaren (bai profesional, bai geografikoaren) mekanismoak efikaziaz funtzionaraztera zuzenduko litzateke. Zentzu honetan, ez da sekulan gehiegi exajeratuko lanpostuak sortzeko eta hezkuntza profesionalerako zerbitzu bizkor eta eraginkor bat sortu behar dela azpimarratzen baldin bada. Zorritzarrez, ordea, INEM delakoa ez da kualitate hauengatik ezaugarritzen<sup>29</sup>, ez lanpostu-gestioaren eremuan (ez dago ia ezertxo ere ikerkuntza, orientazio eta birkoalifikazio

mailan, eta gestio administratiboari dagokionez burokratizatu-  
gia dago), ezta hezkuntza profesionalaren eremuan ere (plangin-  
tza razional baten eta beharrezko medioen gabezia osoan aur-  
kitzen da, eta 1978.aren azkenaldeaz geroztik neurri batetan be-  
deren langabetuak kontrolatzeko erabili izan da). Euskal Go-  
bernuak eta enpresarien, langileen eta administrazio publikoaren  
arteana sortutako organo egokiek, Estatutuko 12.2 eta 18.2 ar-  
tikuluetan babestuz, INEMen funtzionamendu eta gestioaren  
arduradun egin behar lukete lehenbailehen, langabeziak sortuta-  
ko tirandurak lasatzeko oinarritzko erakundea denez gero.

### AZKEN ONDORIOAK

Eragozpen estatistikoak azaldu ondotik, desenpleguak Eus-  
kal Herrian aurkezten duen larritasuna erakusteari ekin dio ar-  
tikuluak. Bigarren partean, arazoaren etorkizuna piska bat ara-  
katzen ihardun dugu, ondorio honetara iritsiz: alegia, ekonomi  
zuzperdura inportante bat ere ez litzatekeela gauza izango jada-  
nik geure artean dugun problema hau epe erdira konpontzeko.  
Azken partean langabeziaren kontrako zenbait neurri proposatu  
dira, nola enpleguak sortzeko hala irentsi ezin daitekeen desen-  
plegua arintzeko. Orain, bada, proposamen horien bideragarri-  
tasun praktikoari buruzko gogoeta labur batzuekin amaituko  
dugu.

Gizarte osoaren benetako helburua hainbeste aldiz agindu-  
tako enplegu bete izango balitz, ez litzateke zailtasun handirik  
erongo seinatu diren neurriak aplikatzeko eta arazoa konpon-  
bidean jartzeko. Baina egiatan haxe gertatzen da: nahiz eta  
langabeziak Euskal Herriko langileriaren %17 zanpatzen duen  
gaurregun eta oraindik kopuru askoz handiagoa meatzatzen  
duen; nahiz eta langabeziaren ondorioak kaltegarriak izan dai-  
tekeen sektore burges txiki askorentzat (dendari, profesional  
liberal eta abarrentzat); nahiz eta horrela inkubatutako ondoezak  
kostu politiko eta sozial handiak izan ditzakeen «establishment»-  
arentzat berarentzat ere; nahiz eta guzti hori horrela den, lan-  
gabeziak zeregin bat betetzen du gaurregungo gizarte-egituraren  
barruan. Izan ere, langabezia, ekonomi krisi honetatik irteteko  
mekanismoetako bat baita, eta garrantzizkoenetakoa, agian.

Kapitalismoaren eta desenpleguaren arteko ezinbesteko lotu-  
ra estu hori argi eta garbi adierazi behar den arren, zera esan  
beharra dago: langabezi mailari eta langabezia aurkezten den

baldintzei dagokienez, badela maniobratzeko posibilitaterik. Klase sozialen interesak (eta kapitalarenak eta lanarenak bereziki) kontrajarriak izan arren, badituzte beren artean zenbait alderdi osagarri ere, bai nazio mailan hirugarren baten kontra, bai eskarien gehiegizko depresioak kapitalmetaketaren mekanismoari berari ere azken batez kalte egin diezaiokelako.

Gerra luze honetan bataila erabakiorrik gertatzen ez den bi-tartean, beti egongo da guduxkak eta treguak egiteko abagadunerik. Euskal gizartearen gaurregungo egoeran, ezin segurta daiteke lehiakideek interes garbiegirik dutenik langabeziaren arazoari larriagotzen uzteko; batzuentzat, lehendik erradikalizatuta dagoen gizarte batetan ustekabeaz zapart egiteko moduko egoeran sartuko litzatekeelako, eta besteentzat, lehendik ere nahiko geldierazia eta zatitua dagoen langilerian etsipenezko ondorio zaitzaileak izango litzatekeelako. Gisa honetako indarren erlazioaren aurrean, posible litzateke, agian, proposaturiko neurriak eta berorien ondorioen kostuak elkarren artean banatzeko akordiotara iristea. Horrela, nahiz eta aspaldiko klase-borrokak aurrera jarraituko lukeen, lehiakide bakoitzak hats piska bat hartzeko aukera izango luke eta langabetuei ere beren larrialdia zertxobait lasaitzeko itxaropena sortuko litzaietxe.

Euskaratzailea: **Gotzon Nazabal**

I. G.

<sup>1</sup> Azterketa labor batetarako, ikus I. Perez Infanteren «Rasgos estructurales del empleo y paro en la formación social española», I.C.E.-ren 553. zenbakian argitaratua, 1979.eko iraillean. Kontsulta daiteke baita O. Fanjueren liburu hau ere: «Crecimiento y generación de empleo», Madrid, 1976.

<sup>2</sup> «Informe sobre el paro en Euskadi: Análisis de su evolución en 1979», Lanerako Kontseilaritzaren barruko Enplegu-idazkaritzak argitaratua.

<sup>3</sup> Ez litzateke hau izango herrialde subdesarrolatu gehienen kasua, non maioritarioak baitira sarritan beste langabezi eta subenplegu-mota estruktural batzuk.

<sup>4</sup> Langabeziaren definizioaren eta neurketaren inguruan sortzen diren arazo eta soluzio praktikoko desberdinei buruz xehetasun gehiago nahi izanez gero, ikus OCDEko langabeziaren eta enpleguaren estatistikei buruzko Lan-taldeak eginko txostena: «L'emploi et le chômage: Critères de mesure», Paris, 1979.

<sup>5</sup> Ikus, esate baterako, C. Marcos, M. Giraldez eta I. Perez Infanter, 1978.eko azaroan gaurregungo enplegu-arazoei buruz Madrilen ospatutako Mintegi Frantses-Espaniolean aurkeztu zuten «Las estadísticas de paro en España» agerpena. Mintegi horretako lanak Ekonomiako Ministeritzak argitaratu zituen liburu tankeran.

<sup>6</sup> Hutsune hau bete nahiz, Ekonomiako Ministeritzaren barruko Eko-

1. taula: Enplegua eta langabezia Euskal Herrian (1980-eko 1. urtelaurdena)

	Jendetza osoa					Gizonezkoak			Emakumezkoak			Lanegiten duen jendetza (a)			
	14 urtetik gorako jendetza	Jendetza aktiboa	Landun hartaki deituak	Aktibo marginalak	Langa-beak	14 urtetik gorako jendetza	Jendetza aktiboa	Langa-beak	14 urtetik gorako jendetza	Jendetza aktiboa	Langa-beak	Nekazaritza eta Arrantza	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
Araba	192,8	98,6	91,3	0,4	6,8	94,2	69,6	3,5	98,6	29,0	3,3	8,7	42,1	7,2	34,0
Bizkaia	910,8	448,4	390,4	0,5	57,5	440,8	315,7	34,4	470,0	132,6	23,1	19,2	157,3	26,2	188,2
Gipuzkoa	527,5	265,4	232,8	1,5	31,1	263,4	191,3	18,3	264,1	74,1	12,8	22,0	109,8	12,9	89,8
Nafarroa	365,9	179,9	157,0	1,5	21,4	178,0	128,2	11,8	187,9	51,7	9,6	20,4	57,9	12,7	68,1
Euskal Herria	1.997,0	992,3	871,5	3,9	116,8	976,4	704,8	68,0	1.020,6	287,4	48,8	70,3	367,1	59,0	380,1
Espainol Est.	27.635,0	13.117,0	11.545,0	101,0	1.471,0	13.300,0	9.281,0	987,0	14.336,0	3.836,0	484,0	2.257,0	3.182,0	1.050,0	5.184,0

Iturria: "Instituto Nacional de Estadística" (EPA). Zifra absolutuak milakotan daude.

(a) Landun guztiak hartzen ditu (hertsiki deituak eta marginalak), eta soldaduskan egon arren enplegu bat dutenak.

2. taula: Euskal Herriko erregistratutako langabezia (1980.eko 1. urtelaurdena (a))

	Erregistra- tutako langabezia	Estaldura % (EPA)	Gizonez- koak	Estaldura % (EPA)	Emaku- mezkoak	Estaldura % (EPA)	Gazteak (25 urtez beherakoak)	Erregistratutako langabezia sektoreka				Aurreko enplegurik gabek	Enplegu-es- keri arre- gistratuak	Kolokazio erregistra- tuak	Desenplegu- prestazioa- ren hartzai- leak
								Nekazar.	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak				
Araba	6.251	91,9	3.755	107,3	2.496	75,6	3.399	5	3.610	1.241	812	583	4.852	2.534	3.547
Bizkaia	40.463	70,4	28.656	83,3	11.807	51,1	23.167	216	11.800	9.412	6.993	12.042	19.313	6.338	15.956
Gipuzkoa	27.360	88,0	17.267	94,4	10.093	78,8	14.985	991	9.006	4.370	4.477	8.517	8.801	3.324	13.549
Nafarroa	11.489	53,7	7.271	61,6	4.218	43,9	6.980	59	3.765	2.454	1.769	3.442	9.490	3.871	7.323
Euskal Herria	85.563	73,3	56.949	83,8	28.613	58,6	48.530	1.270	28.181	17.478	14.051	24.584	42.456	16.067	40.375
Espainol Est.	1.179.366	80,2	830.316	84,1	349.050	72,1	555.379	63.332	286.791	323.043	284.197	222.003	843.051	427.433	585.427

Iturria: "Instituto Nacional de Empleo".

(a) Datuak EPArenekin konparagarriak izan daitezzen, abendutik martxora hilabete bukaeran eman diren datuen hiruhileroko batezbesteko orekatua erabili da.



### 3. taula: Produkzioaren eta enpleguaren estimazioa, Euskal Herriko hipotesizko berreraigiketa ekonomiko baten aurrean.

Urtea		1979 (a)	1980	1981	1982	1983
P.I.B. (1970 eko mi- lio pezetakoak)	Nekazaritza	15 047	14 419	14 084	13 983	13 909
	Industria	178 025	182 818	191 373	204 131	217 576
	Eraikuntza	12 191	11 730	11 514	11 529	11 554
	Zerbitzuak	115 560	115 063	116 780	120 797	124 923
	GUZTIRA	320 823	324 031	333 752	350 440	367 962
P.I.B.en aldaketa-tasa (%)		0,0	1,0	3,0	5,0	5,0
Produktibitatea, enplegu- (1970.eko mila pezetakoak)	Nekazaritza	193,03	199,62	206,21	212,80	219,39
	Industria	421,51	443,45	467,59	491,74	511,46
	Eraikuntza	163,94	166,07	168,23	170,42	172,64
	Zerbitzuak	344,39	351,70	359,01	366,62	373,64
	GUZTIRA	352,47	367,26	383,05	399,03	413,41
Produktibitatearen aldaketa-tasa (%)		3,74	4,20	4,30	4,17	3,60
Enpleguak (b) (milakotan)	Nekazaritza	77,95	72,23	68,30	65,71	63,40
	Industria	422,35	412,26	409,28	415,12	425,40
	Eraikuntza	74,36	70,63	68,44	67,65	66,93
	Zerbitzuak	335,55	327,16	325,28	329,76	334,34
	GUZTIRA	910,21	882,29	871,31	878,24	890,07
Jendetza landuna (b) (pertsonak milakotan)		878,99	852,03	841,42	848,11	859,54
Jendetza landunaren aldaketa (pertsonak milakotan)		-32,9	-26,96	-10,61	6,69	11,43

Iturria: Autorearen beraren elaborazioa, Bilboko Bankuaren eta INEren datuen gainean.

- (a) 1979. urteari dagokion kolumnak ez ditu urte horretako balio ohartuak ematen. ereduak urte horretarako egozten dituen emaitzak baizik. Bi helburu ditu datu horiek taula honetan sartzeak: alde batetik, erabilitako metodologiak, lortu diren aurrikuspenetan, sartzen dituen soslaiak egiaztatzeo aukera ematen du; bestetik, ereduaren egitura barruko aldatetak kalkulatzeko aukera ematen du, horrela lortutako konklusioak aipatu soslaiak biziatuta agertzeko arriskutik ihes eginez.
- (b) «Enpleguak» kontzeptua Bilboko Bankuko agerrikari bere homonimoari dagokio. Kontzeptu horretatik «jendetza landuna» kontzeptura pasatzeko, iturri berean 1973-77 urtealdirako ematen den erlazio ohartu batezbestekoa erabili da. Erlazio horren balioa 0,9567 da.

4. taula: Iharduera ekonomikoarekiko erlazioa Euskal Herrian

Aldia	14 urteik gorako jendetza	Aktiboak	% Aktibitate-tasa	Landunak		Langa-beak	% Langabezi-tasa	GIZONEZKOAK				EMAKUMEZKOAK				
				hertsiki deituak	marginalak			Aktiboak	% Aktibitate-tasa	Langa-beak	% Langabezi-tasa	Aktiboak	% Aktibitate-tasa	Langa-beak	% Langabezi-tasa	
1976	T3	1.890,1	978,8	51,79	909,3	30,6	38,9	3,97	714,2	76,25	20,4	2,86	264,6	27,75	18,4	6,95
	T4	1.898,7	981,4	51,69	917,2	21,7	42,6	4,34	715,3	76,12	23,3	3,26	266,1	27,75	19,2	7,22
	Euskadi Estaturia	1.894,4 26.718,7	980,1 13.257,7	51,74 49,62	913,3 12.321,2	26,2 253,4	40,8 683,2	4,16 5,15	714,8 9.427,8	76,19 73,68	21,9 466,0	3,06 4,94	265,4 3.829,9	27,75 27,51	18,8 217,2	7,08 5,67
1977	T1	1.907,4	965,9	50,64	909,7	15,6	40,5	4,19	710,3	74,71	23,8	3,35	255,5	26,71	16,6	6,50
	T2	1.916,0	972,7	50,77	920,1	16,7	35,9	3,69	715,6	74,91	18,2	2,54	257,1	26,77	17,8	6,92
	T3	1.924,6	980,7	51,06	919,4	18,4	42,7	4,35	715,4	75,20	21,9	3,06	265,3	27,26	20,6	7,76
	T4	1.933,1	972,7	50,32	905,7	16,4	50,4	5,18	702,6	73,96	24,2	3,44	270,0	27,46	26,1	9,67
	Euskadi Estaturia	1.920,3 26.958,5	973,0 13.194,9	50,70 48,95	913,7 12.253,9	16,7 192,6	42,4 748,5	4,35 5,67	711,0 9.386,7	74,69 72,60	22,0 509,7	3,10 5,43	262,0 3.808,2	27,05 27,14	20,3 238,7	7,74 6,24
1978	T1	1.941,8	976,4	50,28	897,0	14,1	65,2	6,68	708,3	74,12	34,1	4,81	268,0	27,18	31,2	11,64
	T2	1.950,5	983,4	50,42	894,2	21,0	68,4	6,96	715,9	73,92	36,7	5,13	267,5	27,24	31,6	11,81
	T3	1.959,0	987,8	50,42	901,3	8,7	77,9	7,89	717,7	73,69	42,0	5,85	270,1	27,42	35,7	13,22
	T4	1.967,7	994,9	50,56	899,7	5,5	84,8	8,52	714,8	73,21	46,6	6,52	275,2	27,76	38,2	13,88
	Euskadi Estaturia	1.954,8 27.281,4	985,6 13.180,4	50,42 48,31	893,1 12.039,6	12,3 149,6	74,1 991,2	7,52 7,52	714,2 9.354,5	73,73 71,36	39,9 655,2	5,58 7,00	270,2 3.826,0	27,40 26,99	34,2 336,0	12,65 8,78
1979	T1	1.969,0	980,9	49,82	887,5	4,4	88,9	9,06	705,9	72,30	52,0	7,37	275,0	27,71	36,8	13,38
	T2	1.976,0	992,5	50,23	890,4	7,1	94,9	9,56	708,8	72,59	55,8	7,87	283,7	28,38	39,1	13,78
	T3	1.983,0	995,6	50,21	885,4	8,4	101,9	10,24	711,9	72,81	60,8	8,54	283,5	28,20	41,1	14,50
	T4	1.992,2	998,3	50,11	881,0	6,6	110,6	11,08	708,1	72,22	63,9	9,02	290,2	28,68	46,7	16,09
	Euskadi Estaturia	1.980,1 27.482,8	991,8 13.101,3	50,09 47,67	886,1 11.785,4	6,6 110,7	99,1 1.205,3	9,99 9,20	708,7 9.278,0	72,48 70,37	58,1 804,3	8,20 8,67	283,1 3.823,4	28,25 26,74	40,9 401,0	14,46 10,49
1980	T1	1.997,1	992,3	49,69	871,5	3,9	116,8	11,77	704,8	72,18	68,0	9,65	287,4	28,16	48,8	16,98

Iturria: INE (Encuesta de Población Activa). 1978.eko 2. urteaurdenaren arte, behinbehineko datuak dira.

5.taula: Euskal Herrian lan egiten duen jendetzaren sektorekako banaketa

Aldia	Jendetza osoa (a)	LAN EGITEN DUEN JENDETZA (b)						PORTZENTAIAZKO EGITURA				
		Guztira	Nekazaritza	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak	Saikatu ezina	Nekazaritza	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak	
1976	T1	2.563,8	943,1	95,0	402,9	85,7	350,3	9,2	10,2	43,1	9,2	37,5
	T2	2.570,7	942,7	93,8	408,8	85,2	354,2	0,9	10,0	43,4	9,0	37,6
	Euskadi Estatua	2.567,3 35.913,8	942,9 12.611,3	94,4 2.753,2	405,9 3.430,1	85,5 1.216,0	352,3 5.163,2	5,1 48,9	10,1 21,9	43,3 27,3	9,1 9,7	37,6 41,1
1977	T1	2.582,3	930,9	86,9	405,3	80,0	358,5	0,3	9,3	43,5	8,6	38,5
	T2	2.594,0	942,1	85,9	414,9	78,4	361,8	1,0	9,1	44,1	8,3	38,4
	T3	2.605,5	941,0	87,9	407,1	78,9	365,2	1,9	9,4	43,4	8,4	38,9
	T4	2.617,2	924,9	87,0	397,4	78,0	362,2	0,2	9,4	43,0	8,4	39,2
	Euskadi Estatua	2.599,8 36.368,2	934,7 12.479,5	86,9 2.604,1	406,2 3.423,2	78,8 1.221,2	361,9 5.206,8	0,9 24,4	9,3 20,9	43,5 27,5	8,4 9,8	38,8 41,8
1978	T1	2.627,9	913,6	84,1	394,9	71,5	361,8	1,2	9,2	43,3	7,8	39,7
	T2	2.640,7	918,0	83,0	396,5	72,3	365,7	0,6	9,0	43,2	7,9	39,9
	T3	2.652,4	911,8	84,0	387,3	74,0	366,6	—	9,2	42,5	8,1	40,2
	T4	2.664,1	907,1	81,4	381,6	73,9	369,9	—	9,0	42,1	8,1	40,8
	Euskadi Estatua	2.646,3 36.810,6	912,6 12.217,3	83,1 2.502,1	390,1 3.359,9	72,9 1.180,1	366,0 5.166,2	0,5 9,0	9,1 20,5	42,8 27,5	8,0 9,7	40,1 42,3
1979	T1	2.665,8	893,6	75,5	372,1	67,3	378,7	—	8,4	41,6	7,5	42,4
	T2	2.675,3	899,7	74,5	377,6	64,6	383,0	—	8,3	42,0	7,2	42,6
	T3	2.686,8	895,2	73,1	372,8	67,7	381,8	—	8,2	41,6	7,6	42,6
	T4	2.699,2	889,5	71,5	367,9	67,1	382,9	—	8,0	41,3	7,5	43,0
	Euskadi Estatua	2.681,8 37.122,9	894,5 11.922,1	73,7 2.348,8	372,6 3.258,3	66,7 1.112,2	381,6 5.202,8	— —	8,2 19,7	41,7 27,3	7,5 9,3	42,7 43,6
1980	T1	2.703,9	876,6	70,3	367,1	59,0	380,1	—	8,0	41,9	6,7	43,4

Iturria: INE (Encuesta de Población Activa). 1978.eko 2. urtealdenera arte, datuak behinbehinekoak dira.

(a) Ez dira kontutan hartzen e'xebizitza kolektiboak (Estatuko totalak ez ditu jasotzen Ceuta eta Melilla ere).

(b) Jendetza landuna eta soldaduskari egon arren lan egiten duten pertsonak.

6. taula: Euskal Herrian erregistratutako langabezia eta desenpleuagatiko prestazioa jasotzen dutenak

Aldia (a)	Erregiratutako langabezia osoa	% EPAREN zifren gainean	Sexuka		Gazteak (25 urtez beherakoak)	Sektoreka					Prestazio osoaren hartzaileak			Hileroko koitokazioak	
			Gizonak	Emakumeak		Nekazar.	Ind.	Eraik.	Zerb.	Aurreko enplegurik gabek	Hartzaileak (b)	% INEMen langabezi zifren gainean	% EPAREN langabezi zifren gainean		
1977	T1	27,5	68,0	19,5	8,1	11,3	0,9	11,9	5,7	4,1	5,0	11,9	43,3	29,5	6,7
	T2	31,0	86,3	21,5	9,4	14,5	1,0	11,6	6,0	4,8	7,5	13,0	42,0	36,2	6,1
	T3	36,2	84,8	24,9	11,3	18,6	0,6	14,0	6,5	5,8	9,3	14,4	39,8	33,8	5,8
	T4	44,4	88,2	30,4	14,0	25,6	0,8	17,2	7,8	7,2	11,3	15,9	35,7	31,5	5,5
	Euskadi Estaturia	34,8	82,1	24,1	10,7	17,5	0,9	13,7	6,5	5,5	8,3	13,8	39,7	32,6	6,0
1978	T1	50,3	77,1	34,0	16,3	26,6	1,2	19,3	9,9	8,2	11,7	19,8	39,4	30,4	4,7
	T2	55,2	80,6	37,0	18,1	28,9	1,0	21,2	11,1	9,3	12,6	23,9	43,4	35,0	6,6
	T3	58,0	74,4	38,8	19,2	30,6	0,8	22,1	11,7	9,5	13,9	25,1	43,4	32,2	5,5
	T4	63,5	74,9	42,3	21,2	33,9	0,9	24,2	12,3	10,1	16,0	29,3	46,1	34,5	6,6
	Euskadi Estaturia	56,7	76,6	38,0	18,7	30,0	1,0	21,7	11,3	9,3	13,6	24,5	43,3	33,1	5,8
1979	T1	62,8	70,7	41,3	21,6	34,9	1,0	21,2	13,2	10,2	17,1	36,7	56,9	40,2	6,5
	T2	69,7	73,4	46,2	23,5	38,6	1,0	23,5	14,6	11,1	19,6	37,3	53,5	39,3	6,8
	T3	77,2	75,8	50,6	26,6	42,9	1,1	26,6	15,6	12,1	21,8	35,5	46,0	34,8	6,6
	T4	79,6	72,0	52,2	27,4	45,3	1,1	26,7	15,8	12,5	23,5	37,0	46,6	33,5	5,0
	Euskadi Estaturia	72,3	73,0	47,6	24,8	40,4	1,1	24,5	14,8	11,5	20,5	36,4	50,3	36,7	6,2
1980	T1	85,6	73,3	57,0	28,6	48,5	1,3	28,2	17,5	14,1	24,6	40,4	47,2	34,6	5,4

Iturria: INEM (Estadística de Empleo); INP. Datuak milakako pertsonatan daude.

(a) Datuak EPAREnekin homogenotzeko, urtelaurdeneko batezbesteko zentratuak atera dira (ikus 2. taula).

(b) Sail hau ezin gonbara daiteke erabat INEMek erregistraturiko langabeziaren sailarekin, bai arrazoi administratiboengatik eta baita INEMen datuek jasan dituzten aldaketengatik ere (ikus estaldurak 1978 urtearen azkenaldera ematen duen jautzia; ikus 11. oharra).

(c) 1977. erako, SEAF-PPOren langabezia erregistratuaren datuen gainean egiten da estimazioa.

## 7. taula: Enplegu-arauketaren agiriak Euskal Herrian.

Aldia		Agiri- kopurua	LANGILE AFEKTATUAK			
			Guztira	Botatzea	Denborazko etendura	Lanaldiaren moztea
1976	T3	54	818	369	385	64
	T4	86	1.343	485	620	238
	Euskadi	70	1.081	427	503	151
	Estatua	—	—	—	—	—
1977	T1	83	1.235	474	723	38
	T2	77	1.867	502	1.076	289
	T3	83	2.547	443	1.958	146
	T4	127	2.684	590	1.669	425
	Euskadi	93	2.083	503	1.357	224
Estatua	588	13.015	4.316	6.346	2.353	
1978	T1	164	4.609	791	1.385	2.433
	T2	172	6.617	837	2.456	3.324
	T3	178	6.818	687	3.055	3.075
	T4	209	7.502	796	2.343	4.362
	Euskadi	181	6.387	778	2.310	3.299
Estatua	852	23.008	5.517	9.511	7.980	
1979	T1	267	8.804	1.075	3.824	3.904
	T2	308	7.719	1.199	2.836	3.684
	T3	289	7.428	785	2.177	4.466
	T4	320	11.036	572	4.400	6.064
	Euskadi	296	8.747	908	3.309	3.530
Estatua	1.139	27.738	6.254	12.706	8.778	
1980	T1	320	8.318	943	3.390	3.985

Iturria: Lanerako Ministraritza. Datuak hileroko batezbestekoel dagozkie.

nomi Politikako Zuzendaritza Nagusiaren enplegu arazoei buruzko Lantaldeak bere azterketa argitaratu du 1979.ean: «Población, actividad y ocupación en España». Bertan, EPAk 1964-78 urtealdirako eman zituen datu heterogenoetatik abiatuz sail homogenoak berreraiki nahi dira aldi bererako.

<sup>7</sup> Fenomeno hau ez da Euskal Herrikoa bakarrik, berdin gertatzen da beste zenbait zona industrialdutan ere (Madrilen eta Bartzelonan, adibidez), krisiaren piskanako gogortzearen ondorio bat besterik ez delarik. Laborantza latifundistak eman duen etengabeko langabeziaren eta sektore ahulenetako (eraikuntza eta zenbait zerbitzu) lehen efektuen ondoan, industri sektorean bazkatzen da krisia.

<sup>8</sup> Aktibo marginal bezala, inkestako erreferentzi astean lanaldi normalaren heren bat baino gutiago edo azken hiru hilabeteetan lanegunen heren bat baino gutiago lanegin duen pertsona definitzen da.

<sup>9</sup> Langabeziaren geografi intzidentzia desberdinarengatik, zifra dramatiko hau oraindik ere haundiagoa dateke krisialdiak gogortasun berezi batek jipoitu dituen Euskal Herriko zenbait zonaldean (Gipuzkoa eta Bizkaiko zenbait zonatan eta Iruñeko arroan batez ere).

<sup>10</sup> Bereziki azpimarratu beharra dago erregistratutako langabeziaren eta egiazko langabeziaren arteko diferentzia, zeren organismo kompetenteek (Lanerako Ministraritzak eta EKN zenaren Lanerako Kontseilari-tzak) datu hau erabili dute etengabe, EPAREN estimazioaz baliatu ordez, horrela, desenpleguaren benetako haundia gutietsiz. Ministraritza horrek buruan sartu nahi digunez, Enplegu-bulegoan inskribatzen ez dena ez litzateke lan bila ibiliko, eta Kontseilari-tzak, berriz, EPAREN langabeziari buruzko zifren probintzi mailako errore-maila aipatzen digu. Zera esan beharra dago, ordea, bigarren arrazoi honi buruz: EPA ez dela langabezia neurtzeko sortua izan (eta gutxiago probintzi edo erregio mailan), aktibitatea neurtzeko baizik, eta horregatik desenpleguarekiko erakuskari-keta-errorea Euskal Herrian %5 ingurukoa dela. Alabaina, erregistratutako langabeziak inkestak baino %28 beheragotik jotzen duela desenplegua Euskal Herriko ikusten badugu, argi dago, langabezia erreala ezagutzeko, iturri fidagarriagoa dela EPA bere mugatasun gutzietan, hain erabilia den INEMen langabezia erregistratua baino.

<sup>11</sup> 1978.eko azaroan sartutako aldaketak nabarmentzen dira, duten garrantziarengatik (desenplegu-aseguruaz baliatzen diren zenbait kategoria, erregistratutako langabeziaren zifretatik eskluditzea). 6. taulan ikus daitekeenez, 1977-79 urtealdiko hamabi urtelaurdenetatik, hau bakarria da erregistratutako langabeziaren zifra jaisten denekoa, inmediateki aurreko eta ondoko joerarekin kontraesan osoan. Beste kasu batzuetan (1979.eko irail-urriko fitxategi-garbitaketak, adibidez) eraginak ez du aldaerazten ebo-luzioaren zeinua, nahiz eta indargetzen duen erregistratutako langabezia-ten hazkunde-ritmoa.

<sup>12</sup> EPAREN datuetan oinarritutako espainol Estatuko jendetza aktiboaren eta langabearen egituraren azterketa labor eta interesgarri bat, A. Espina, C. Miguel eta J. Leguina-ren «La oferta de fuerza de trabajo: situación y perspectivas» (I.C.E., 533 zenb., 1979.eko iraila) artikuluan aurki daiteke. Nahiz eta euskal egoerak badituen bere berezitasunak, aplikatu geniezazkioke Euskal Herriari ere han erabilitako faktore asko.

<sup>13</sup> 4. eta 6. tauletak datuak gonbaratzen badira, erraz ikus daiteke infralaborapen hori. Gizonezko langabetuen %82 egongo litzateke erregistratuta, emakumeetan berriz %61 bakarrik egongo liratekeen bitartean. Emakumeen langabezi tasa, EPAREN arauera, gizonezkoena baino

%76z haundiagoa den arren 1979.erako, INEMen estatistikak dioenez, %30ez bakarrik izango litzateke haundiago.

<sup>14</sup> Ikus, 12. oharren aipatzen den artikuluan, fenomenoaren eta beronen kausen deskribapen laburra. Lanindarraren eskaintza eta eskariaren arteko inter-erlazioa, eta sexua, adina eta eskolatz-maila azpimarratzen dira artikuluan, elementu diskriminatzaile bezala.

<sup>15</sup> Bilboko Merkatal, Industri eta Nabigazio Ganbara Ofiziala, «Dinámica de la Población y del empleo en el País Vasco», Bilbo 1978 (99. eta hurrengo orrialdeak). Batezbesteko hipotesiak erabili dira Araba eta Nafarroarako, eta minimoak berriz kostaldeko probintziarako.

<sup>16</sup> 6 eta 11. oharretan aipatutako erreferentziak estatu mailako «etsipena» zenbatzen saiatzen dira. Erabili diren hipotesientzat eta aldiarentzat estimazio hauek duten azken puntako sentikortasuna (eta baliozkotasun mugatua, beraz) juzgatzeko, aski izango da esatea G.T.E.k hamabi hilabete baino guttiagoren barruan egindako bi zenbaketetan, 601.500 eta 170.700 bezain zifra ez-berdinak ematen zirela «aktibo etsientzat» 1978. aren azkenaldirako; ikus 6. oharra eta Joaquin Leguinak enplegu-ekonomiaren gaurregungo problemai buruzko Frantses-Espainol Mintegira aurkeztutako txostena (Madrid, 1978).

<sup>17</sup> Ohargarria da, euskal aktibitate-tasak ez direla estatalak bezain ziklikoak. Euskal Herrian gizonzkoen populazioaren aktibitate-maila gehixeago jaisten bada ere 1976-79 urtealdian (3,67 puntu 3,38ren aurrean), emakumeen tasak gainditu egiten du 1977-78.eko zuloa eta 1979.ean 0,69 puntuz gorago jartzen da 1976.eko balioaren gonbarazioan (espainol tasak berriz, 0,75 puntuz beherako jarraitzen du aldi horretan bertan). Zera adierazi nahi duela ematen du honek, lanaren merkatutik erretiratzera bultzatzen duten mekanismoak ahulagoak direla Euskal Herrian, emakumezkoentzat bederen.

<sup>18</sup> Estatu Espainol osorako egindako antzeko lan baten emaitzak ikus daitezke autorearen «El desempleo como mecanismo de salida de la crisis. Evolución y perspectivas» artikuluan. I.C.E., 558. zenb., 1980.eko otsaila.

<sup>19</sup> Eraikuntzak krisiaren hastapenetik beretik nahiko jokabide bihurria izan duelako, ezin lortu izan da doikuntza esanguratsurik. Nahiago izan da, beraz, sektoreko 1964.etik 1975.erako produktibitatearen hazkunde-tasa 1977.eko datuari aplikatuz extrapolazio bat egitea. Beste aldetik, sektore honen BPG globalean parte hartzeko joerak zerikus haundia du bere azken urteotako atzeraldiarekin, eta, seguraski horretxegatik, ereduak ere azpi-estimatu egiten du sektore honen garrantzia.

<sup>20</sup> Urteko, 10.300 pertsonaren lanera-sartze netoak suposatu dira; aipatu bi balizkako extremoan erdibideko hipotesia alegia. Gogora deza-gun, seinalatu diren helburuak lortzeko behar hainbateko berreragiketa baten aurrean aurrikus litekeela aktibitate-tasen nolabaiteko zuzperdura bat ere. Eta honek bere aldetik helburu beroriek bete ahal izateko seinalatu diren baino hazkunde-tasa global haundiagoak inplikatuko litzuzke. Beste alde batetik, kalkulu hauetan ez da kontutan hartu sortutako lanaren zati bat pertsona ez-alokatuek irentsiko luketela (hala nola langile autonomoek, enpresariak eta famili laguntzek). Honek esan nahi du, beharko liratekeen BPGren hazkunde-tasek, sinplifikazio hau erabiliz, kalkulatu direnak baino haundiagoak izan beharko luketela.

<sup>21</sup> Beherapen honek, lanaldiaren (arruntaren eta bereziaren) balioberdineko murriztapena suposatuko luke, baldin eta orduko produktibitateak konstante iraungo balu. Kasu horretan, %7,5eko gutitzeak asteke sei ordu baino gehixeagoko batezbesteko gutitze bat suposatuko luke lau-

-urteko horretarako, hots, urteko 36 ordu inguru gutiago urte bakoitzean. Produktibitatearen %7,5eko gutitze hatek lanaldia ere proportzioan gehiago murriztea eskatuko luke seguraski, zeren Euskal Herriko enpresa askotan ez baita behar bezala probetxatzen erabil daitekeen lanindarra.

<sup>22</sup> Konpromisuzko soluzio bat, neurriaren parte bat Estatuak finantzatzea izan daiteke (despleguagatik prestazioen aurrezkiaren bidez, esate baterako). Horrelako soluzioek, enpresarien eta langileen arteko zuzeneko kontraesana leuntzeko aukera ematen dute, nahiz eta kontraesana lekuz aldatu besterik ez den egiten (alor fiskal edo monetariora, norma-lean). Lanaren banaketa politikaren ikuspuntu sindikal batetarako, ikus E. Ferrer Inglés-en «Una política para la mejora de la productividad y la creación del empleo: la reducción de las horas de trabajo», *Ekonomi Ministraritzak antolaturik produktibitateari eta enplegu-politikari buruzko Mintegira aurkeztua*, Madrilen, 1979.eko azaroan.

<sup>23</sup> Ikus 18. oharrean aipatutako artikulua.

<sup>24</sup> Noski, badago berez lanpostuak sortzera zuzendua ez dagoen politika makroekonomikoaren marko globalago bat. Azalpen eta balorapen labor batetarako ikus J. Freyssinet-en «Política de empleo y sus condicionantes: productividad y creación de empleo» izenburuko txostena, produktibitateari eta enplegu-politikari buruzko *Mintegira aurkeztua*, Madrilen, 1979.eko azaroan.

<sup>25</sup> Ikus Bilbo eta Gipuzkoako Merkatal Ganbaren «Inventario de los déficits de equipamientos de Guipúzcoa y Vizcaya» estudioa (1980.eko otsaila).

<sup>26</sup> Estatu osoari zegozkion estaldura-mailak %45,1.ekoak ziren erregistro-tutako langabeziaren gonbarazioan eta %37,6.ekoak EPAREN datuen gonbarazioan. Euskal Herriko estaldura tipiago hori emakumezkoen estaldura eskasari dagokio.

<sup>27</sup> Artikulu hau idatzi ondoren, lege hau aldaketa batzuekin berriro Kongresura bidali du Senatuak. Dena den, aldaketa hauek ez dute aldatzen legearen zentzu nagusia.

<sup>28</sup> Legezko alderdi hauei Aseguru Sozialaren gestio-organismoen (INP/INSS) inefikazia erantsi behar zaie, zeren bi urte luzeren ondoren oraindik inkapazak baitira prestazioen ordain-epeak 1978/3/31.eko Dekretuak seinalatzen duen bezala betetzeko. Dekretu horrek ezarritako epea, hama-bost egun alegia, ez da inon ere betetzen. Zenbait kasutan gauzak askoz ere okerrago dira: Gipuzkoan, prestazio-eskaria egin egunetik bost edo sei hilabete geroago jasotzen dute langabetuek, batez beste, lehen pagua.

<sup>29</sup> Ikus L. Cachon-en «Los servicios públicos de empleo» artikulua, I.C.E. 553. zenb., 1979.eko iraila.

## EL PARO EN EUSKADI LE CHOMAGE AU PAYS BASQUE

Este artículo presenta la situación y perspectivas a medio plazo del desempleo en el País Vasco Peninsular. En una primera parte se analiza la situación actual y se trata de cuantificar el número de trabajadores en paro. Una segunda parte trata de prever la evolución del empleo y del paro a



medio plazo ante el supuesto de una cierta reactivación económica en los próximos años. La tercera y última parte, presenta brevemente algunas alternativas para luchar contra el creciente desempleo.

1. Aunque limitados por la inadecuación de los datos estadísticos disponibles, podemos estimar que el paro en sentido estricto alcanzaba a fines de 1979 a más de 110.000 personas en el País Vasco. Añadiendo los colectivos afectados por diversas situaciones de paro no considerados en la definición estricta, el colectivo afectado superaba las 150.000 personas. El 15,4% de la población activa, o mejor aún, el 18,7% de la población asalariada vasca está afectada por una situación de paro total o parcial.

Tras unos breves comentarios sobre la inadecuación de las fuentes estadísticas (INE e INEM) y sobre la evolución de las tasas de actividad desde el comienzo de la crisis, se termina esta parte con unas consideraciones sobre los grupos más duramente afectados por el paro en el País Vasco.

Destacan con nitidez los jóvenes (en especial los que buscan su primer empleo) y las mujeres como colectivos en peor situación. El problema del paro se agrava en nuestro caso por la escasa cobertura del seguro de desempleo, que a fines de 1979 no llegaba a cubrir al tercio de los desempleados totales.

2. Utilizando las tendencias temporales de producción y productividad sectoriales del País Vasco se ha elaborado un sencillo modelo de cuatro sectores con el que se trató de cuantificar el efecto que sobre el empleo tendría una recuperación económica que alcanzase el 5% de crecimiento anual en 1982-83 (se suponía un crecimiento medio anual del 3,5% para 1980-83). El resultado obtenido, que hay que tomar con la debida precaución dada la sencillez de las hipótesis subyacentes en el modelo, no daba pie al optimismo. En el cuatrienio 1980-83 se produciría una pérdida neta de unos 20.000 puestos de trabajo. Utilizando diversas hipótesis sobre las entradas netas en el mercado de trabajo, resultaba para 1983 un aumento del paro del orden de 46.000 a 76.000 personas sobre el existente en 1979.

Alcanzar modestos objetivos en la lucha contra el paro a través del mero relanzamiento económico resultaría imposible de acuerdo con el modelo empleado. Por ejemplo, mantener el paro en su nivel actual exigiría una tasa de crecimiento por encima del 5%, objetivo a todas luces fuera del alcance de la economía vasca en la presente situación. Estos cálculos, invalidan la repetida teoría de que la mera reactivación económica generará suficiente empleo a medio plazo.

3. Antes tales resultados es indispensable plantearse políticas que ataquen específicamente el problema del paro. Dentro de estas políticas cabe diferenciar tres grupos:

a) El reparto del trabajo disponible esto es, medidas de reducción de jornada, aumento de vacaciones, anticipación de la jubilación, etc.). Este tipo de fórmulas son las que pueden tener un mayor efecto sobre la cifra de paro, pero su aplicación requiere encontrar fórmulas que sean aceptables al capital y al trabajo.

b) Fomento público de la generación de empleo, sea directamente a través del sector público, sea a través de ayudas diversas al sector privado. En el caso del País Vasco existe un amplio campo para estas actuaciones habida cuenta del enorme déficit de infraestructura que sufrimos. Nuevamente es importante encontrar fórmulas de reparto del coste, que en estos casos se desplazan del campo estrictamente laboral a los de la política monetaria y fiscal.

c) Finalmente, hay que tomar medidas para aliviar la situación de desempleo mientras éste exista. A la vista de la insuficiencia del seguro de desempleo español, parece urgente presionar por su extensión tanto en cobertura (en especial, a los jóvenes en busca de su primer empleo) como en duración (sobre todo en los casos especialmente necesitados). Igualmente se impone exigir del INEM una gestión eficaz de la colaboración y de la orientación y formación profesionales, para lo que es imprescindible que se proceda a su transferencia al Gobierno Vasco y su control por parte de empresarios y trabajadores.

Desgraciadamente, hay que constatar que la política del Gobierno Español no sigue estos derroteros. Se confía la creación de puestos de trabajo al mero crecimiento económico, los planes de fomento de empleo se limitan a subsidiar empleos que en muchos casos iban a generarse de cualquier forma y se aprovechan para flexibilizar la plantilla a través de contratos temporales, la Ley Básica de Empleo recorta las prestaciones del seguro de desempleo y se trata de escamotear la transferencia del servicio de empleo a las comunidades autónomas.

Aunque no podrá garantizarse el pleno empleo en tanto sobreviviera el sistema económico capitalista, causa última del desempleo, cabe señalar que existen posibilidades de paliar la situación de paro aun en ausencia de soluciones revolucionarias. La adopción de medidas del tipo de las arriba señaladas tras la negociación del reparto de los costes (y contrapartidas políticas y sociales) entre capital y trabajo puede ser la vía que permita empezar a resolver el problema del paro en el País Vasco.

On présente dans cet article la situation et les perspectives à moyen terme du chômage au Pays Basque péninsulaire. La première partie est une analyse de la situation actuelle, où l'on essaie de délimiter le nombre de travailleurs en chômage. Dans la deuxième partie on essaie de prévoir l'évolution de l'emploi et du chômage à moyen terme en supposant une relance économique pour les années à venir. Dans la dernière partie on présente brièvement quelques alternatives pour lutter contre un chômage qui va croissant.

1. Bien que limités par l'inadéquation des données statistiques, nous pouvons estimer que le chômage au sens strict, touchait vers la fin de l'année 1979 plus de 110.000 personnes au Pays Basque. Si on ajoute les collectifs affectés par diverses situations de chômage, que ne sont pas pris en compte dans la définition, le collectif affecté dépasse les 150.000 personnes. Le 15,4% de la population active, ou mieux encore, le 18,7% de la population salariée basque est touchée par une situation de chômage total ou partiel.

Après quelques brefs commentaires sur l'inadéquation des sources statistiques, (INE et INEM) et sur l'évolution des taux d'activité depuis le début de la crise, la première partie s'achève par des considérations sur les groupes les plus durement touchés par le chômage au Pays Basque.

Ces groupes sont composés d'abord par les jeunes, surtout ceux qui cherchent le premier emploi, et par les femmes. Le problème du chômage est aggravé dans ce cas par une assurance chômage très réduite, qui à la fin de 1979 ne couvrirait pas le tiers de l'ensemble des chômeurs.

2. A partir des tendances temporelles de production et productivité des secteurs de Pays Basque, on a élaboré un modèle simple de quatre sec-

teurs avec lequel on a essayé de mesurer l'effet qu'aurait une relance économique sur l'emploi, relance que atteindrait le 5% de croissance annuelle en 1982-83). Le résultat obtenu, qu'il faut considérer avec prudence à cause de la simplicité des hypothèses contenues dans le modèle, n'était pas optimiste. Dans les années 1980-83 il se produirait une perte de 20.000 emplois. En partant des différentes hypothèses sur les entrées nettes dans le marché du travail on avait pour 1980 une croissance du chômage de l'ordre de 46.000 à 76.000 personnes à ajouter à celui de 1979

Il serait impossible avec le modèle employé d'atteindre des objectifs modestes dans la lutte contre le chômage par la seule relance économique. Par exemple, pour maintenir le chômage à son niveau actuel, il faudrait un taux de croissance supérieur à 5%, objectif visiblement hors de portée pour l'économie basque dans la situation actuelle. Ces calculs infirmer la théorie bien connue que la seule relance économique produirait suffisamment d'emplois à moyen terme.

3. Devant de tels résultats il est indispensable d'envisager des politiques qui s'attaquent en particulier au problème du chômage. Dans ces politiques on distingue trois groupes:

a) La distribution de travail disponible, c'est à dire, des mesures comme la réduction de la journée de travail, des vacances plus longues, retraite anticipée, etc. Ce genre de formules peut être d'une grande incidence sur le chiffre du chômage, mais son application exige des formules qui soient acceptables pour le capital et pour le travail.

b) Aide publique à la génération de l'emploi, directement par le secteur public, ou par des aides diverses au secteur privé. Au Pays Basque il existe de multiples possibilités pour ces actions à cause du grand déficit d'infrastructure que nous avons. Il faut encore trouver des formules de répartition des frais, qui dans ces cas, se déplacent du monde du travail à celui de la politique monétaire et fiscale.

c) En fin, il faut prendre des mesures pour soulager la situation de chômage tant qu'elle existe. Vu l'insuffisance de l'assurance chômage espagnol, il est urgent de demander son élargissement pour qu'il couvre en particulier les jeunes à la recherche de leur premier emploi, et qu'il dure plus longtemps, surtout pour ceux qui sont dans le besoin. Il faut également exiger de l'INEM une gestion efficace de la collaboration et de l'orientation et formation professionnels, ce qui exige son transfert au Gouvernement Basque, et qu'il soit contrôlé par le patronat et les travailleurs.

Il faut constater, malheureusement, que la politique du Gouvernement espagnol, ne suit pas ces sentiers. On espère que la seule croissance économique créera des emplois, les plans de l'aide à l'emploi se limitent à aider des emplois qui, souvent, allaient surgir inévitablement, et on en profite pour embaucher du personnel sous contrat temporaire, la «Ley Básica de Empleo» recoupe les prestations de l'assurance chômage et on essaie d'écarter le transfert des services de l'emploi aux communautés autonomes.

Bien qu'on ne puisse garantir le plein emploi tant que survivra le système économique capitaliste cause dernière du chômage, il faut signaler qu'il existe des possibilités de pallier la situation de chômeurs sans avoir recours à des solutions révolutionnaires. L'adoption de mesures du type de celles signalées plus haut, après la négociation de la distribution des coûts, et les contreparties politiques et sociales, entre capital et travail, peut être la voie qui permette de commencer à résoudre le problème du chômage au Pays Basque.

## Piaget

Zaila da, zinetan, Piaget bezalako ikertzaile baten nortasuna eta lana bost lerrotan laburtzea. Are gehiago, ikertzaile hori «XX. mendeko psikologorik handiena» izan dela esaten badizute. Hori Paul Fraisse psikologoak esan zuen orain lau urte, Piaget-i, larogei urte betezen zituela eta, egin zioten omenaldian. Ulertzekoa da giro horretan horrelako zerbait esatea. Batez ere kontu eginik omen-*duak larogei* urte betetzen zituela. Baina, gizona hil ondoren, bazter guztietan gauza bera (Piaget «XX. mendeko psikologorik handiena») irakurtzeak amorrua ematen dizu. Eta ez dauka batek ezer Piaget-en kontra. Baina, tira, seriotasun piska bat, mesedez. Dena dela, azkena izango naiz ni, Piaget-i, bai psikologian eta bai beste hainbat zientzi alorretan izan duen garrantzia kentzen. Eztabaidagarriak badira ere —eta eztabaidatuak ere bai— haren teoriak, ez dago zalantzarik emankorrak direla, besterik ez bada, hainbat eta hainbat ikerketa bultzatu dutelako.

Hemen ematen zaidan espazioan, deus gutxi esan nezake Piaget-en mailako zientzigizon bati buruz. Ea norbait animatzen den gizon honek merezi duen azterketa sakon eta luzea egitera. Euskaraz, noski.

Eta lehenbizi esan dezagun zerbait Piaget gizonaz.

### Piaget pertsona

Egun hauetan gizon honi buruz irakurri ditudan lan guztietan esaten da, batek bakarrik ere huts egin gabe —eta kontu egin ez direla denak orain bertan idatziak—, bereziki goiztarra izan zela Piaget: hamaika urte zituela argitaratu omen zuen bere lehenengo lana. Mirari-haurra? Berdin da. Garrantzia, gero egin duen lanak du, eta ez haurtzaroko artikulu horrek. Dena dela, haurtzaroak era berezian erakartzen zuela argi adierazi zuen norbaiti esan zion honetan: «Azkeneraino haurra izaten jarraitzea da nire ideala». Izan ere, haurtzaroa zen Piaget-entzat bizitzako aldirik kreatzaileena.

Piaget-engan harritzen duena lanerako zuen gaitasuna da. Berrogeitamar bat liburu eta ehundaka artikulu utzi dizkigu. Nola zen posible hainbeste idaztea galdetu zioten batetan, honela erantzun zuen: «Piaget irakurri beharrik ez daukadanez, nahikoa denbora gelditzen zait idazteko». Beste behin, oso antsiasua zela aitortu

zuen, eta lanak bakarrik lasaitzen zuela. Bestalde, ez omen zuten batere kezkatzen gizarte-bizitzak ezartzen dituen obligaziotxoek. Adibidez, oso jende gutxi izan omen du Piaget-en karta bat hartzeko zortea.

Ikasgelan, gehiago ematen omen zuen bere lana bukatu ondoren berrikerlan aritzeko gogoak jotako baratzaina, benetako irakaslea baino. Xaloki, baina esaten zuenaz ziur zegoenak bezala hitzegiten omen zuen (beti omenka ari behar!) bere experimentu eta lanei buruz. Nekez aipatzen zuen beste inoren teoriarik, eta hori, diotenez, ez harrokeriaz, zintzotasunak eraginda baizik. Ez omen zen inoiz makurtu, oso ongi ezagutzen ez zuen gai batez jendaurrean hitzegitera.

### Piaget ikertzailea

Piaget-en lanek, azaleko lehen begiratu batetan, bere bokazioa oso garbi ikusten ez zuen ikertzaile baten aurrean zaudela pentsarazten dizute. Zer nahi izan zuen izan Piaget-ek: biologoa?, filosofoa?, logikoa?, haurraren psikologoa?

Galdera horrek ez luke zentzurik izango Piaget-entzat. Piaget-en ikerlan guztiak galdera edo kezka nagusi baten inguruan antolatzen dira, kezka epistemologikoaren inguruan, hain zuzen. Problema epistemologikoek gidatzen dute Piaget-en lan guztia, eta hor aurkitu behar da, itxuraz hain eremu desberdinak ukitzen dituzten haren lanen batasun sakona. «Baliozko ezagutzen erakuntzaren azterketa» bezala definitu zuen epistemologia. Problema epistemologikoa dago haren biologo-lanen azpian: ezagutzen tresna eta iturria den adimena adaptazioa da, eta adaptazioa problema biologikoa da, organismoen eta hauen ingurunearen arteko harremanen problema, hain zuzen. Epistemologian, subjektu ezagutzailearen eta ezagutzeko objektuaren arteko adaptazioa da arazoa. Lan psikologikoei dagokienez: subjektuaren eta objektuaren arteko elkarrekintzen problema epistemologikoak, adimenaren ihardueren eta beraren funtzionamenduen segidako mailen deskribapena eskatzen du. Piaget, batez ere haurraren psikologo bezala izan zen ospatsua (nahiz eta psikologia, epistemologia praktikatzeko bide bat baizik ez izan harentzat). Urte asko eskaini zizkion adimenaren garapenaren azterketari. Adimenaren garapenean (desarrolloan) hiru alderdi hauek dira funtsezkoenak: 1) haurraren ezagutzak beraren gorputzaren ezaugarri eta aktibitateetan oinarrituta egotetik, ezagutzak objektibotzera eta erlatibizatzerara pasatzea; 2) itzulgarritasunaren agerketa, lehenbizi ekintzetan eta ondoren pentsamendu mailan; 3) eboluzio hau, haur guztien gan ordena berari jarraitzen zaizkion estadio edo mailatan ematen da. Hasieran ezagutza erabat praktikoa da. Objektuak erabiliz ikasten du haurrak beroriek ezagutzen. Ezagutza ez datorkio organismo pasibo bati, jaiotzatik bertatik subjektuaren aktibitatea da. Baina aldi berean elkarrekintza da: objektu desberdinak asimilatu ahal izateko, objektuaren ezaugarrietara egokitu behar du subjektuak.

Ikerketa psikogenetikoek, bere epistemologiako bi teoria osagarriak bermatzeko balio izan diote Piaget-i.

1) Ezagutza-tresnak hobetu, *haurrak berak* egiten duen erakuntza bati esker hobetzen dira, bere ingurunearekiko harremanen barruan egiten duen erakuntza mentalari esker, hain zuzen. Ondorio pedagogikoa: subjektuak ezin du ikasi, ez baditu eraiki, helerazi nahi zaizkion ezagutzak asimilatzeke era emango dioten eskemak.

2) Adimenaren erakuntza orekatze-prozesu bat izango litza-teke, tartean ezagutu nahi duen subjektua eta honen mementuko ezagutza-tresnetara: makurtzen ez diren ezagutza-objektuak daudelarik. Une bakoitzean, egoera berriek hautsi egiten dute aurrez lorturiko subjektuaren eta objektuen arteko oreka, eta adaptazio berria eskatzen dute. ■ *Pello Huizi*.

## Idazle berrien bila

Makina bat aldiz aldarrikatu dugu idazle berrien erreleboaren premia. Euskal idazleen artean aurpegi berriak behar dira. Nekez baizik ez dira ikusten. Idazle berrien premia hau aipatzen soilarekin ikastoletara, unibertsitatara zuzendu ohi ditugu begiak, idazle berriren bat non ikusiko. Idazle berria eta idazle gaztea bat bailiran ikusten ditugu.

Eta idazle bila zaharragotara joko bagenu? Zergatik ez berrogei urterekin idazten hasi, edo hirurogeirekin? Edozeinen baitan liteke idazleren bat lotan. Iratzartzea behar. Eta batez ere beste batzuegan pentsatzen dut, hots, gaztetan (giroak lagunduta edo) idazten zuten eta gerora erabat abandonatu duten horiengan. Ez da sekula beranduegi.

J. B. Etxeberri euskal idazlearen kasuak pentsabidetan jarri nau. Irailaren 25eko Herria astekarian, bere obraz mintzo delarik, aitormen hau egiten du ipar idazle honek: «Hiruetan hogoi urtetara hurbildua nintzan hasi nintzalarik funtsez euskaraz izkiriartzen». Ia hirurogei urterekin hasi eta zazpi liburu argitaratu. Ez dago batere gaizki.

J. B. Etxeberri gehiago ere badagoke gure artean. P. Lafitte bezalako gehiago behar, hitz bihotz-pizgarritz jendea idaztera bultzatzeko. ■ *Joan Altzibar*.

## Histori saileko berrikuntza (UEU)

Jasoak ditugu UEUko Histori Sailaren arduradun berriak bidali dizkigun albisteak. Uste dugunez, indarberrituxea den sail honetako asmoak benetan jakingarriak dira.

Koordinatzailearen ardurapean, hiru azpisailetan eratu zen Histori Saila: Iker, Irakas eta Hiztegi azpisailak. Sailari sailburu koordinatzaile berri bat eman zitzaion (Agustin Azkarate), eta azpisail bakoitzak bere arduraduna izanen du. Oraingoz bi hautatu dira: Iker azpisailerako Jose Agirreazkuenaga, eta Hiztegi azpisailerako Joseba Intxausti. Irakas azpisailerakoa laster aukeratuko da, esan digutenez. Iparraldearekiko harremanetarako «Lauburu» taldearen idazkaria, Mattin Lartzabal izendatu zen.

UEUko Sail honek ez du berehala lortu aurten hainbateko hazkunderik. Azken ekinaldian, jende berriak ezezik, espezialitateko lagun gehiago bildu da. Urtean zehar, elkartuta, aurrera eraman litezkeen Histori lanetarako agintari on bat dute hori.

Lankideen elkarganatzea errazagoa gerta zedin, uztailearen 25-erako dei berezi eta ireki bat egin zieten lagunek UEUn ez zeuden historilari euskaldunei Larraonan bil zitezen. Sailaren arduradun ohiak, Joseba Intxaustik, gidatu zuen bilera eta beronetan mugatu nahi izan ziren lan-talde berriak, elkartzeko, premiazkoak izango lituzkeen oinarri orokorrak.

Euskaltzaindiaren batasun-lana onartu egiten du taldeak; haseratik bertatik, ideologi tolerantzia oso bat aitortzen da, sail-lagun orori, ideologian eta politikan, inolako trabarik jarri gabe. Sailaren egiteko nagusiena Historia euskaraz lantzea izango da, helburu hori lortzeko, premiazko lana bultzatuz eta aurreratuz. Euskara batua, mintzaera tekniko finkatua, irakaslanak, ikerketa historiko euskalduna: horietxek dira batez ere landu nahi diren ikuspegiak. Eginkizun horiek arestian aipatutako hiru azpisailetan antolatu dira.

Jakin dugunez, azpisail hauek hasi dira lanean eta datorren UEU-rako zenbait lan egin nahi lukete. Historiaz arduratuek, beraz, badakite nora bil litezkeen bere jakintza elkarren babespean eta euskaraz burutu nahi baldin badute (Agustin Azkarate, Irakaslego-Eskola-Magisterio. Eskoriatza. Gipuzkoa). Pozgarri da, noski, euskal lan-taldeak indartuz datozkigula jakitea. ■ *Joan Larrinaga.*

## Euskadiko IV. Pedagogi Jardunaldiak

Euskadiko IV. Pedagogi Jardunaldiak Donostian burutu dira aurten, iragan Abuztuaren 25-30 bitartean. Datu argigarrien bezala zera esan dezakegu, 132 ikastaldi mota eman direla han bildu maila guztietariko (B.U.P. eta F.P. II.a barne) irakasleentzat, eta 3.000 irakasleko kopurua izan dela.

Lehen-balantze bat egiterakoan, gero zehazkiago egin daitekeelarik ere, oro har, esan dezakegu nahiko pozik atera dela jendea jardunaldiotatik. Hara, 787 irakasleren artean burutu inkesta eredu batetan, «oro har ongi» irizten zioten 626 lagunek; aldiz, hუსgune

gehiegi aurkitu dituztela 124 lagunek. Uste da, hein batetan behintzat, «hugune gehiegi» horiek antolakuntzaren mailakoak direla. Nagusiki, kausa bi hauei zor zaie: jende kopuru handiegia eta jardunaldion «txandakatze» berezitasuna: urte oro hiri ezberdinean egin ohi direnez, berauen ekipo antolatzailea ere desberdina gertatzen da. Arazo honek leku jakin batetan finkatzera garamatza, baina inkestatu 787 lagunetik 612 ez dira txandakatze posibilitatearen aldeko azaltzen.

Jardunaldion masa-kopuruaren arazoari buruz, ADARRA beste puntu bat ere planteatu beharrean aurkitzen da: zenbait aldakuntzaren premia, ez bakarrik antolakuntzaren aldetik, baita Jardunaldien enfokearen aldetik ere. Are gehiago zehaztu behar ditugu helburuak eta hauen arabera moldatu geure eginbide guztia.

Zeren ADARRA Elkartearen ekintza ez bait da Euskadiko Pedagogi Jardunaldietara soilki mugatzen. Hauek gerta daitezke, bai, kanpoko ekintza ikusgarri nahiz deigarri bat. Baina ADARRAK urte guztian zehar dihardu. Lau urteren ondotik, gero eta ahalegin biziagoz ari gara esaten, ez dela oraino Euskadiren barne egiazko mugimendu pedagogikorik eraiki, eta haren behar nagusia aldarrikatzen. Eskola eta irakaskuntza sakonetik ukituko duen mugimendua behar dugu, ez «irakaskeria» delako ekintza soila: ez gabiltza soilki metodo hobegoen bila, gero aurpegia garbituxeago baizik izan ez dezakeen edukinik gabeko eskola egiten. Metodoz aldatzeak, beste gabe, ez du eskola-beraren aldakuntza suposatzen. Horregatik, derrigorrezko dugu mugimendu pedagogiko serio eta sakona, ADARRA bila dabilena. Izatez, bada jadanik ADARRA elkartearen barne eta ADARRA gero eta gehiago aurkitzen ari da mugimendu pedagogiko honetaz egiazki axolaturik dagoen jendea. Baina guztiz beharrezko zaigu, egun, oraino ez dugun oinarri zientifikoa, eta pentsamendu propioa, bidea argi diezagun eta urratsak emankor egin.

Mugimendu pedagogiko honek, bada, irakaskintzaren maila eta eremu guztiak bere barnean behar ditu hartu. Agian ikastola munduan hoztasun kezkarri bat ari da zabaltzen, eta soldata baten trukean ilusio gehiegi gabe «saripeko» jendea ugaltzen. Estatal zentruetan beste bide batetik heldu da erresistentzia, egun oroko lan modua eta haren arazoak kritikatzetik nahi ez dutenen aldetik. Irakaskintza pribatuaren sektorean, azken aldi honetan ematen ari den ideologiazioa bitarteko, ADARRAri eta bere Jardunaldioi susmo handienez begiratzen dien jendea hainbat ikastetxe erlijiosoetan gertatzen da.

Ingurumundu honetan, beraz, ari da lanean ADARRA bere helburu propioak zehaztu ezinik. Euskadiko Pedagogi Jardunaldiak behar dira aztertu eta azterketa honetan nahitaez presente egon behar du mugimendu pedagogikoaren gaiak. Hori jakinik, berau izanen da punturik nagusienetarikoa ikasturte honetan zehar. ■  
*Mikel Sagues.*



## Hirugarren mundu-gerra

Hirugarren mundu-gerra ezinbestekoa omen da.

Zeinek piztuko, ordea?

Bi dira piz dezaketenak: Estatu Batuek eta Soviet Batasuna. Baina Estatu Batuek defentsiban eta beldurrez bezala daude orain. Soviet Batasuna, oster, harro eta erasotzaile.

Zergatik, baina, gerrara jo?

Europagatik: «Je dis que la troisième guerre mondiale éclatera pour l'Europe». Argiago ezin esan. Europagatik, alegia, Europako ekonomi sendoagatik, Europaren eragin politikoagatik, Europaren indar militaragatik. Hori dena behar duelako Soviet Batasunak mundua gobernatzeko: «Les Soviétiques ne pourront établir l'hégémonie globale à laquelle ils aspirent que s'ils ont l'Europe».

Deklarapen hauen alkantzua? «Antikomunista primario baten deklarapenak ote? Ez dut uste, maoistak ere antikomunista direla aurretik deklaritzen ez bada behintzat. Europearron begietara hautsa botatzea ote? «Bat bitan banatzen denaren» eta «eztabaitaketa» ezkutukiak ikasi dituenak hala usteko du, noski. Nik, simple-simple, Txinako agintarien analisiaren fruitu bezala ulertzeko joera dut.

Izan ere, deklarapen hauek ez dira edozeinenak. Deng Xiaoping jaunaren hitzak dira, abuztuan Oriana Fallaci entrebistari sonatuari esanak. Deng Xiaoping hau, Maoren burkidea, irailaren seian dimittitu arte, Lehen ministrordea zen, Txinako bigarren gizona. ■  
*Joanes Lekerika.*

## Bakantzetan historia ikasi

Paradore Nazionalean zegoen salgai liburutxo hau, *Peñiscola*, 1962, J. Catalán Bolinches batek egina, 70 orrialdetako foileto historiko ttipi bat, eta erosi egin nuen, eguzkia hartuz, aurrez-aurre neukan gaztelu harroak zer historia ote zuen, ikasteko, patxadaz etzanda hondartzan.

Izan ere, bidezkoa da: Paradore Nazionalen prospektoak dienez, Secretaría de Estado de Turismo-k Paradore sare bat zabaldu du Estatu guztian, «paraje gutxien frekuentatu, baina interes turistikoa nabarmenekoetan», leku historiko inportanteetan bereziki. Eta bidezko da, turismo nazionalari begiratzen dion Estatuak, lekuotan hain zuzen turistari behar bezalako informazio historikoa ere eskaintzea. Informazio nazionala. Nik holaxe irakurri nizun, beste batean, *Navarra* liburuxka ere, Herriberri/Oliteko Paradorean. Egilea,

informazio objektiboa turistei emateko Nafarroan egon zitekeen egokiena noski: J. I. del Burgo.

Peñíscolako historia ere guztiz egoki, hots, guztiz Paradore-nazionalalki, hots, espainol eta nazionalalki, esplikatuta. Hasi eta buka, gaztelu honen historiak Espainiaren historia kalkatzen du oso-osorik. Ideologia oso ezagun batetatik ezagutzen ditugun eskema eta klitxe eta hizkera topiko guztiz ezagun batzuen aplikazio perfektua. Eskema kronologiko garbi bat: Espainiaren etsai historikoen zerrendarena, eta are hizkera garbiagoa: ideologia nazional-txobinista-katoliko-faxista rotundoena. Aita Estatuak ez du bakantzetan ere ahazten, bere menpekoak beti izpiritu nazionalean behar bezala heziaz joateko obligazioa.

Adibide batzuekin aski. Barka testuak erdaraz ematea: beharrezkoa da.

Peñíscola «broche de oro» bat da —oso poetiko—, «a la conquista del cual se lanzó el califato de Damasco... para arrancarlo del poder visigodo y de la civilización cristiana española». Hasteko.

Goto/espainolen eta mohamedanoen konfrontazioa: «Manadas de almorávides lanzó desde el Oriente la media luna a la conquista del fértil suelo y peñón de Peñíscola, ocupado pacíficamente por los godos, vencedores de los romanos». *Manadas — Pacíficamente*: kontrastearen maisu bat, gure autorea. (Halare goto baketsu horiek errotatzen menderatzaile ditugu). Adjektibazioaren maisu halaber: «a los *cristianos godos* les cupo la mala fortuna de batirse con los *sanguinarios almorávides*», etc. Arabe ikaragarri gaiztoak alde batek, espainol ikaragarri kristauak bestetik.

Jaume I Konkistatzaileak berkonkistatu zuen Peñíscola. Eta horrela —biba salto historiko mortalak— «Peñíscola volvió a ser la ciudad cristiana del español erudito San Isidoro»!!!

Kataluniarik ez da ezertarako aipatuko guzti honetan, beti Arago: «vanguardia cristiana del reino de Aragón», «muralla del reino de Aragón», eta azken finean Arago = Espainia. «Los reyes de Aragón... enarbolaron el pendón de la España cristiana en la cumbre de tu castillo». Nazional-katolizismo biribil-biribila: «la cruz y la espada se abrazaron en el gran castillo de Peñíscola...». Etabar.

Mairuen ondoren frantsesak, hurrengo etsai nazionalak. Berdin italiariek. Arabeak «el infiel árabe» dira, eta frantsesak eta italiariek «los enemigos de la cristiandad», ez bait diote omen egiten Aita Santu «espainolari». Eta egiten ez badiote, nazionalismo hutsez bakarrik da: frantses horiek, Eliza desagiteraino dira nazionalistak eta txobinistak. Beraz, «bandas francesas», «intrusos italianos», etab., parra-parra. Eskerrak espainolek guztiaren gainetik Elizaren interesak zaintzen dituztela: «el papa español y aragonés, no doblegando jamás la cerviz a los ataques y pretensiones de Francia...». Eta beti: «Albornoz, cardenal español y aragonés don Pedro de Luna», «el cardenal español, enfrentándose valientemente con los

intrusos italianos». Peñíscolako Aita Santua polliki-polliki hispanitatearen inkarnazioa bera bilakatzen da, Frantziaren aurka bereziki: «El Papa Luna se enfrentó con dos enemigos poderosos (de la cristiandad, noski!): Roma y Francia», eta «ciertamente no cejó jamás a las demandas imperativas de Francia», «la intriga francesa», «el capricho de Francia», etab. etab.

Kosta hala kostá, Espainia salbatu beharra dago. Eliza ere salbatu beharra dago oren gainetik. Nola zen posible Jainkoaren Elizan zismarik egotea? Eliza bat, baina hiru Aita Santu batera, elkar deskomunikatuz? Orapilo hau zail samarra da eta hemen gure autorea poetiko-kuasimetafisiko jartzen zaigu; zisma bai, baina here-siarik (fedean etenik) ez zegoela demostratzeko: «El mismo símbolo de los apóstoles, el mismo credo, el mismo dogma y la misma moral enseñada por unidad ontológica en tres mentes fisiológicas». Hor gelditzen da hori. Para la historia.

Espainol Inperioa dator gero: «las gigantes figuras de Fernando e Isabel, Reyes Católicos por antonomasia», Karlos I, Felipe II, etab. Eta Frantzia gaiztoa, berriz ere, Espainia birrindu nahita. Baina ederra eman zion, eman, Espainiak: «el vecino enemigo vuelve a herir al león español, y siguiendo éste las huellas de sus invictos progenitores, se lanza al combate...»

Austriaren ondoren Borbondar monarkia. Frantziatik hain zuzen, baina hori isilik pasatzen da. Orain errebelde katalan antizentralistak izango dira Espainiaren etsaiak: «Peñíscola sirve de destacamento al ejército de Levante del monarca español en lucha contra Cataluña...»

Espainiaren etsaiak alde guztietatik eta beti Espainia defendatu izanaren ospea nondinahi. Ez da makala Peñíscolako gaztelua!

Gero, Peñíscola aldean zenbat jende ilustre ibili den. Epartero, horien artean: karlisten kontra han ere. Alfontso XIII, etab., etab. Makina bat historia ikasi dut oraingoan: zalea naiz, baina ase ere, majo ase naiz aldi batetarako. Eta Franco? Ibili ote zen hemendik Espainia defendatzen, edo ba ote zuen Peñíscolarekin zer ikusirik? Inon ez da esaten Franco hemen sekula agertu zenik, edo zer ikusirik zuenik, ezer ez, baina bat-batean, zertara datorrenik gabe, «y el último jinete del Apocalipsis —disparatzen digu Autoreak— de la gloriosa historia de Peñíscola es el genio militar que cierra sus páginas con broche de oro inmortal: Caudillo Francisco Franco». Beste «broche de oro» bat eta bapo.

Ikusten duzue, aurren ez ditut bakantzak alferrik egin, Fraga Iribarrenen Paradore Nazionalak egiteko jenialtasunari eskerrak.

Patentatu ez dut egingo, baina orain metodo apropos bat ere badaukat eguzkizaleentzat: Benicarloko eguzkiak ez duela aski moreno jartzen, uste duenak, liburuxka hau irakurtzea dauka, bel-bel-beltz jartzeko. ■ *Gabriel Noss.*

## Euskal lirika gortesauari buruzko oharrak

Jon Kortazar

Gure lirika herrikoiak behar duen ikerketa lana, laster egingo du Juan Mari Lekuonak. Lan horren zain geratzen garen artean, gai beraz ohar batzu egitea pentsatu dugu. Oharrok, egia esan, gaur egun euskal lirika herrikoiari eta ahozko euskal literaturari buruz sentitzen diren interesen artean kokatzen dira. Eta Luis Mari Mujikak bere *Historia de la literatura euskerika* liburuan herriko lirika tratatzen duen kapituluari zordun zaizkio.

Ikerketatxo honen metodologia, testu azterketa izango da; eta helburu legez, sistematizazio bat lortzea darabilgu. Baina ez dugu euskal lirika herrikoi osoaren sistematizazioa lortu nahi, Mujikak XVI, XVII, XVIII. mendeetako lirika deitu duenarena baino. Hau da, XV. mendean hasi eta XVIII. mendera arte, euskal erromantzea egiteko balio izan duen estetikaren sistematizazioa. Eta gainera, Mujikak bere liburuan erabili dituen poemak erabiliz; hain zuzen, A. Onaindiaren *Milla euskal olerki eder*<sup>1</sup> liburuan *gerta-olerki* deitzen diren poematik, maitasun poemak. Zehazki: «Urrutiago anderia (I), «Egun bereko alarguntza» (II), «Urdurain anderian kanta» (III), «Atarratze jauregiko anderearena» (IV), «Andere lokartua» (V), «Arboiti'ko prima eijerra» (VI), «Neskatx ontziratua» (VII), eta «Urtsua'n ila» (VIII)<sup>2</sup>. Eta gainera, «Prantzie korteko erromantzea» (IX) ere kopuruan sartu dugu. (Manuel Lekuona: Lan Guztiak I. Aozko literatura).

Irakurleak ikusiko duenez, olerkien kopurua nahiko urria da, eta ezin atera ahal izango dugu ondorio handirik. Lana, bigarren problema batekin aurkitzen da: poemok hiru mendetan zehar za-

baltzen dira. Ez dago batasunik kronologiaren aldetik, baina beste eratako antzekotasunik badagoen esperantzan hasten dugu lan hau.

Antzekotasunok, lau eratakoak direla uste dugu: a) Gai mailakoak; b) Ideologi mailakoak; d) Teknika mailakoak; e) Topikotasuna.

## I. — Gaiak

Gai mailan berdintasun, antzekotasun bat dute bederlatzi poemok: irakurlearen arima hunkitu nahi dute. Hunkigarriak dira, sentimenduzko joera dute, irakurleak beragan sentitu behar ditu poemetan zehar agertzen diren bortxakeriak. Gai aldetiko ezaugarria hau dugu beraz: bortxakeria eta indarra nagusitu egiten dira poemotan: Lantainako alaba hil egingo dute Urtsuan (VIII), neskatxa ontziratua urrunera eramango bere gogoaren aurka (VII), andere lokartua Parisera (V); Ozazeko anderea ezkontzara behartuko (IV); alargunak mina gaudituko du (II); eta Prantziako gorteko Juanita bidean hila (IX). Pertsonaia emeek ezin gauditutu dituzten penak sufritzen dituzte. Ezin gauditutu dituzten penok ez dituzte berek bilatu. Horrela, hirugarrenez, poemek badute Fatalismo kutsu bat. Pertsonaiak ez dira geroaren jabe, gertaerak eta zorigaiztoak etorri datoz, beste bage, eta jasan baino ez dute. Ez dago beste biderik. Sufrimendu horrek tonbara eramango ditu pertsonaiok (Frantziako gortekoa, Andere lokartua (?), eta Urtsuako Juanita. VIII), zorotasunera (alarguna. II), Deserrira (Atarratzeko anderea. IV). Eta horrela, olerkiok Patetismoa bilatzen dutela ikusten dugu.

Beste aldetik, eta laugarrenez, Onaindiak ere sail bakar batean bildu ditu gai aldetik olerkiok: «gerta-olerkiak» deitzen ditu<sup>3</sup>. Horrela da izan ere. Olerkiok gertakari bat kontatzen dute, gertaera bat olerkiaren eragile bezala. Baina gertakariak joera narratiboa izan beharrean, joera lirikoa dutela aitortu behar. Pertsonaien sufrimenduen adierazleek anekdota hutsak baino indar handiagoa dute eta, horrela, lirika nagusitu da testuetan.

Bukatzeko, erraz labur ditzakegu gai guztiak hirukote honetan: sexua, maitasuna, bortxakeria. Sexuaren adibide dira ezkontza behartuak, Lantaineko alabaren sasikoa (VIII), hiru kapitainen (V) eta ontziko kapitainen (VII) bortxaketa saioak. Maitasunaren adibideak, berriz: Urrutiako anderea (I), Egun bereko alargunsa (II) eta Undurain anderia (III). Bortxakeria, indarra, denetan agertzen dela uste dut; agian, batzuetan (Atarratze jau-regikoan (IV), neskatxa ontziratuan (VII), andere lokartuan (V),

Urtsuako abestian (VIII), besteetan baino nabarmenago. Baina argiak direla uste dut, halaber, Urrutiako senarraren jelsia (I), heriotzaren eragina alarguntsaren kasuan (II), aitaren ukamena Unduraingo anderearen kasuan (III).

Laburpen bezala, hauxe pentsatzen dugu: poemek, gai alde-tik, trajedi eta sentimendu munduko gaiak erabiltzen dituztela, gertakarietan oinarritzen direla eta irakurlearen gogo-irudimena ukitu nahi dutela.

## II. — Ideologia

Poemotan, ideologiak zerikusi handia du ikuspuntuaren teknikarekin. Kontalaririk dagoenean (kasu batzutan poemak el-karrizketa huts direnez, ez dago kontalaririk), objetiboa izaten da narratzailea, irakurlearengan kuriositatea sortu nahi du, eta ez du inoiz ekintza aurreratzen. Horrelako ikuspuntu batek moralejatik ere urruntzen du kontalaria. Eta poemotan mezu ideologikorik ematen bada, pertsonaien nahiz ekintzen bitartez azalduko da.

a) Pertsonaiak bitarteko direla, kasu berezia dugu Undurain anderaren (III) poemaren azken ahapaldia. Estrofa honek mezu ideologiko bat, dotrina bat ematen du:

*Alaba diener  
erranen dit erori  
so'gideziet eni,  
beha en'ereran* (MEOE, 48).

Baina ez da hau izaten kasurik normalena nahiz eta andere lokartuaren poeman ere (V) beste mezu ideologiko bat agertu:

*Hori hala egin ba'duzu, bear bezalakoa zira zu*  
(MEOE, 51)

alabak egin duen birjinitatearen defentsari buruz.

b) Ekintzen bitartez, hiru ideiak nagusitzen dira: birjinitatearen defentsaren gorespina: Andere lokartua (V) eta andere ontziratua (VII) (bata behar bezalakoa da, eta bestea zerura doa). Beste ikuspuntu batetatik, oso berezia da (teknika sailean zabalago ikusiko dugu puntu hau) arrotzen kontrako xenofobiaren antzeko zerbait (Prantziako gortekoan batez ere); baina Atarratzeko jauregia (IV) poeman ere badago, deserriratzekoan, Espainaren kontrako zerbait:

*bai eta desterratu, oi! Española* (MEOE, 49).

Beste poemetan, xenofobiara heldu ez arren ere, badago etxea/kanpoaldia kontrajarpen bat. Poemotan zihurtasuna eta baretasuna da etxea, eta kanpoa mentura eta zihurtasun falta. Horrela interpreta dezakegu Neskaxa ontziratua (VII) poeman, honek etxetik egindako irteera zorigaiztokoa.

Dena dela, poemarik moralena, ideologia moralezko kargarik handienekoa (zentzu erlijiosoan ulertuz, zuzen/oker oposizio bezala), Urrutiako anderearen kanta (I) da, agian hein batetan, miraria azaltzen da hor: oneginak Ahaltsuaren laguntza izango duela azpirakur dezakegu, eta mirari hori karitatearekin lotua agertzen da poeman.

Baina denetan, Urrutiako anderiarena (I) salbuespen delarik, kontalariak ez du parterik hartzen mezu ideologikoa zabaltzeko orduan; ikusten dugunez, pertsonaiengandik eta ekintzetatik da-torkigu gehienbat.

### III. — Teknika

Poemotan tekniken erabilera bera agertzen dela pentsatzen dugu edo, behintzat, teknika berak erabiltzen direla. Taxuketa berezia dute poemok teknika aldetik. Oharron bitartez, taxuketa tekniko hori deskribatu nahi genuke.

#### 1. Genero literarioen erabilera

Poemok lirikoak direna argi dago noski. Pertsonaia batzuren sentimenduen adierazpen dira. Baina kuriosoki, forma dramatikoak emanak, eta noizbehinka, narrazio forma ere erabiliz.

Hau da, poemok gerta-olerkiak direla esan dugu, eta gerta-kari bati kontaketa dagokio; baina garrantzitsuena poemotan ez da zer gertatu den, anekdota bera; horregatik narrazioak ez du leku handirik. Garrantzitsua, pertsonaien sentimenduak adieraztea da: lirika; baina elkarrizketaren bitartez: dramatika; dramatiko, trajikoa bait da, hain zuzen ere, pertsonaiei gertatzen zaiona: «Y es dramática la contraposición instinto erótico — instancias represoras»<sup>4</sup>.

Hiru generoen erabilera, bederatzi poematik zazpitan ematen da. Undurain anderearenean (III) elkarrizketa bakarrik dago, narrazio bage, eta Alargunarenean (II) kontakizun narrazioa lehen pertsonan dago. Beraz, narrazio botasuna lirika bihurturik.

## 2. Egitura orekatuak

Egitura aldetik, poemek oso distribuzio argia dute, ia matematikoa; baina ekilibrioa ez da hemen, klasikoeak ulertzen duten antzera, simetria hutsa. Simetriarantz jotzen duen oreka gordetzen dute poemok, bai, kriterio bi jarraituaz batez ere: zenbat bertso pertsonaia bakoitzak, eta zein lekutan bertsook. Adibideen bidez obeto ulertuko da guzti hau.

Egun bereko alarguna (II) poemak 4 ahapaldi ditu: lehenengo eta laugarrena andrearenak; bigarrena, andreak hasi eta senarrak bukatu; hirugarrena ere senarrarena. Joku simetrikoa jarraitzen da, osorik simetrikoa izan bage. Begira dezagun honela: Lirika/Elkarrizketa/Elkarrizketa/Lirika; kontutan izanik, gainera, lehen eta hirugarren ahapaldiek narratibotasunarekin duten zerikusia.

Undurain andereak (III) egiturarik ximpleena du: ahapaldi bana pertsonaia bakoitzarentzat, azkena izan ezik.

Atarratze jauregiko (IV) poemak badu bere lehen partean horrelako joku bat ere: lehen ahapaldia narratzailearentzat; 2. eta 5. ahapaldiak pertsonaia garrantzitsuarentzat; 3. eta 4. ahapaldiak Klararentzat. 6. ahapaldi ondorio bezala. Gero, kontalariaren estrofa birekin jarraitzen du poemak, eta azken estrofan, bigarren ondorio bat azaltzen da, zati liriko batez bukatu rik.

Arbotiko prima eijerra (VI) poeman argi ikusten dugu egitura. Hiru estrofa kontaketarako eta beste hiru elkarrizketarako.

Neskatxa ontziratuan (VII) 7. eta 14. estrofetan mintzatzen da kontalaria, poeman simetria bat eraikiz; baina simetria eten bat da, 12. ahapaldia ere narratiboa da eta.

Urtsuan hila (VIII) poeman badago beste simetri joku bat. Lehen, 2. eta 4. ahapaldietan pertsonaien arteko elkarrizketa ematen zaigu, pertsonaiako bina bertso; 3., 5. eta 6. ahapaldietan lau bertsoan azaltzen da poemaren muina, bai lirikaz, bai narrazioz.

Frantziako gortekoak 17 ahapaldi ditu, eta ondo bereizten dira zati bi: semea-amarekin, semea-Juanitarekin, eszena bi: lehenengoak 8 ahapaldi eta bigarrenak 9. Simetria ez da berriro oso-oso-rik gordetzen, nahiz eta ekilibrio bat nabaritu.

Ez dugu horrelako joku teknikorik topatu Urrutiako anderea (I), eta Andere lokartu ((V) poemetan, kontalariak gehiago parte hartzen duen poemetan<sup>5</sup>.



### 3. Ikuspuntua

Poemotan oso urria da kontalarien papera. Objektiboa da, ekintzari buruz ezer aurreratzen ez duen narratzailea. Todorov-en hitzetan, irakurleak beste dakien narratzailea. Kontalariok eta poemok hasi-hasieratik biztu eta harrapatu nahi dute irakurlearen kuriositatea, eta irakurlea laster sentitzen da ekintzaren barnean. Dei-funtzioa duela esango nuke nik poemen hasierak.

Dei-funtzio hori geroago ere ikusiko dugunez topikoen arloan irakurlea zuzen-zuzenean ekintzan sartuz lortzen da, haren kuriositatea bat batean biztuz. Ez dago planteamendurik. Adibide legez: Frantziatik datorren mutikoaren kasua:

*Ama aurkitu nuen  
Suitian tristerik*

Lehen ahapaldian, zerbait gertatu den susmoa. Irakurlearen interesa tente. Baina zer gertatu den, elkarrizketaren bitartez azalduko zaio: amak ez du nahi ezkontzarik, emaztea hil behar du, egingo duen ala ez, emazteak bizirik irtetzeko egiten dituen ahaleginak... irakurlearen arreta erne dago poema bukatu arte.

Urrutiako anderea (I) bere etxean dago «korpitzez», baina ez gustora: «kanpoan da biotzez». Egun bereko alarguntsak (II) ahapaldi batean kontatzen du bere historia, eta pena. Urdurain anderearen poeman (III), maitaleak lehen ahapaldian planteatzen du bere mina:

*Nurat galdu zira?  
Ala kanbiatu da zure deseña?*

Atarratzeko kantan ere (IV) lehen ahapaldian aurkitzen dugu gatazka. Joko berbera Andere lokartuan (V): «Hirur kapitainek hor daramate gortez enganaturik». Baita Neskata ontziratuan ere (VII). Urtsuan hila (VIII) poeman ere lehen ahapaldian azaltzen da biolentziaren eta gatazkaren seinalea, bururik altxa nahi eza.

Salbuespen bat da, agian, Arbotiko prima eijerra (VI). Ez bait dago poema honetan besteetan agertzen den dramatikotasunik. Baina, lehen ahapaldian, gertatuaren laburpen bat ematen zaigu, Egun bereko alarguntsa poeman (II) ematen zaigun bezala.

Teknika zuzen hori deskribatzeko, sail tekniko bi izan behar ditugu kontutan: ikuspuntuaren aldetik objektibotasuna eta kro-

nologiaren aldetik <sup>6</sup> kenketa, hasiera «in media res» izatea, alegia, poema hasi baino lehen zerbait gertatu den susmoa, irakurlearen atentzioa lehen lerroetan lortzeko.

#### 4. Etenak

Irakurlearen atentzioa ez dute bakarrik egiten poemok. Ez-pada interpretazio bide bat zabaltzen diote irakurleari, leku-denborazko eten eta jauziekin. Horrela, irakurleak kreaio lanean partehartu beharko du, ezin dezake pasiboki jarrai.

Etenon artean nabarmentzekoa dugu poemak lehen aldiari hastea, gertatutakoaren oroitzapen bailiran.

Baina ez da hori izaten handiena. Nahiz eta kontakizunaren atzerakadarik ez egon, aurrerantz egiterakoan etenak daude. Eta narratzaileak ia ezer aipatu bage, beste leku eta denbora batetan gaude. Prantziako gortekoan, 8. eta 9. ahapaldien artean, pertsonaia bat tokiz eta denboraz aldatzen da, irakurlea horretaz ohartzeko pista bakarra bokatiboa izanik «Juanita, jatsi zaitetz».

Urrutiako anderean (I) 9. eta 10. ahapaldien artean, denborazko jauzia dago: beste egun batez gertatzen da ekintza hau. Hemen, ordea, badaude toki-denborazko indizeak: «Goizian goizik» «bidean». Alargunarenean (II) lehen eta 2. ahapaldien artean: hemen ere bokatiboa dugu jauziaren indikadorea: «Musde Irigarai». Baina poemak ez dago ez espazialtasunik (non, noiz gertatzen da elkarrizketa sineskaitz hori?), ez denboraltasunik.

Atarratzeko kantuan (IV), nabariak dira jauziak: lehen eta 2. ahapaldien artean, bokatiboaz baliaturik; 8. eta 9. en artean bokatiboaz eta espazialtasunaz baliaturik.

Espazioaren baliapenak honako poemotan agertzen dira: Andere lokartuan (V) («Pariserat»), Andere ontziratuan (VII) («Hiru ehun lekutan»). Kasu batean, etenaren ezagupidea bizitzatik heriotzera iragatea da, «defuntu» hitzaren bitartez.

Dena dela, badira beste eten eta batzu. Ikusi dugunez, narraziotik elkarrizketara iragatea. M. Lekuonak azterturiko teknika, hain zuzen; interlokutorearen aipamenik egin bage, eta berak *movimiento* izendatzen duena.

Bukaera-falta ere agertzen zaigu poemotan, Espainako erromantzeetan agertzen den teknika bera: Prantzie kortekoa, Egund bereko alarguntsa (II). Poema osatzeko irakurlearen irudimenari egiten zaion deia dugu teknika hau, poemaren bukaera berak egin dezan deia.

Poema batean bakarrik aurkitu dugu elkarrizketatik ba-

karrizketara jauzia: Prantzie kortekoan, 14. eta 15. ahapaldien artean.

### 5. Estilizazioa

Irakurleok behar ditugun datu juntuak ematen zaizkigu poemotan. Horregatik poemaren aurrean adi egon behar dugu. Teknika honi estilizazioa deitzen diogu: errealitatetik datu juxtuena azaldu, poema uler dadin, batere luzatu bage. Tokiaren eta denboraren azalpen handirik ez ematea estilizazioaren ezauzgarri bat dugu. Baita deskripziorik ez agertzea, eta jantziei eta pertsonaiei buruzko datu eskasak ematea ere. Pertsonaien izaera ezagutu, esaten eta egiten dutenetik ezagutuko dugu, ez inolako narratzailek esanda. Estilizazio prozesuan, pertsonaien arteko tentsioak (ama/semea Prantziekoan, emaztea/senarra Urrutiakoan (I), maitalea/aita Undurainenean (III), alaba/ama Atarratzekoan (IV), alaba/kapitainak Lokartuan (V), neskatxa/kapitaina Ontziratuan (VII)) bilusik, huts-hutsean, besterik bage, bere muinean heltzen zaizkio irakurleari. Tentsioa da nagusi. Beste guztiak axola guttiago du.

### 6. Ambiguitatea / Zehaztasuna

Estilizazioak berekin darama anbiguitate karga. Edo nahiago bada, interpretazioari bideak irekitzen dizkio. Hainbat arazo ez dira argi geratzen poemotan: Zergatik da jeloskorra Urrutiakoren (I) senarra? Zergatik sinesten du hain arin bere emazteagan? Zerk bultzatzen du alarguna senarraren menpekotasun gaixo horretan egotera? Zergatik «igaiten» da neskatxa ontzira?

Galderon erantzunak susmatu egingo ditugu, duda bage, baina poemetan sujerentziak dauzkagu, ez zihurtasunak, ez bait zaizkigu erantzunok argi ematen. Beraz, interpretaziorako bidea izango du irakurleak. Irakurlearen asmamenak partehartu behar du. Eta hona hemen poemon balio bat: Irakurlearen partehartzea.

Baina anbiguitate horretan, gauza batzu, objektu batzu, indarrez agertzen dira lainoartean eguzkia bezala. Gauzok bizi-bizirik agertzen dira irakurlearen irudimena zaurituz; eta, inguru lainotsu horretan, gauza zehatzek interpretazio sinbolikoa posibleztatzea ez da batere arraroa. Gauzok eguneroko ingurunetik hartuak daude, eta poemaren giro anbiguoarekin kontrastatuz lortzen dute beren balioa. Irakurlearentzat beste interpretazio bide den sinbolizazioz jantzirik, gainera.

Gauza konkretuon zerrenda bat egitea ez da batere zaila. Baina asko eta asko daudenez, hona hemen zerrenda urgente bat: Urrutiako anderearen poeman (I): korpitz/biotzen pertsonifikazio indartsuak, «biloa, terresta» biolentziaren ezaugarri, «ogi-opilak, zareta, ailikoak» ekintzaren ingurua azaltzeko.

Alargunaren (II) kasuan: «goizian, ekia, eguerdi, zitru hura». Ikusten dugunez, beti izadiko elementuak. Luis M. Mujikak seinالاتu duenez, garrantzi handia dute, olerkiaren elementu edergarri bezala.

Azken adibide bezala, Prantziako gortekoarenak: «suitia, puñala, kanpaiak»: bai kolorez, bai hotsez, bai sentimenduz, inguru bat osotzarekin batera, irakurlearen sentimendua bultzatzen duten elementuak.

Sinbolizazioa dela eta, argi dago «zitru hura» garraztasunaren, penaren irudi bizia dena, puñala biolentziarena den bezala, kanpaiak heriotz ordukoak, eta suetea etxe eta tradizioena.

Elementu aberasgarriak ere agertzen dira (Cfr. beherago «Goreste topikoa»). Askotan erabiltzen da horien funtzionaltasuna. Sinbolizazioaren bitartez, poemaren irakurketak aberastu egiten dira; bestalde, poema zehaztasunez jantziaz batera, argia da elementuok duten egiteko indargarria, zauritzalea, bortitzaila irakurlearen irudimenean. Nire ustetan, jokuak, eta poemetan agertzen diren elementuok, zoragarriko plastizitatea ematen dio poemari. Agertzen diren gauzei interesgarri deritzet kolorez eta formaz irudimenaren bultzatzaile izateko.

## 7. Etxea / kanpoa

Gaiak planteatzen dituen borroken artean, pertsonaien artekoak ez dira bakarrak. Aipatu dugu etxe/kanpo kontrajartzeak ideologi aldetik duen ukitu eta garrantzia.

Teknika aldetik begiraturaz gero puntu hau, hiru teknika nagusi bereiz ditzakegu:

a) Kontrastea ezkontzak sortua da. Urrutiako anderea (I), Atarratzeko kanta (IV) eta Urtsuako poemak (VIII) dira adibiderik argienak. Etxetik irtetearen ondorio tragikoak hiruetan agertzen dira; baina, nolabait esateko, gizarteak onartzen dituen irteerak dira. Gurasoen baimenarekin irteten dira neskatoak etxetik.

b) Kontraste hau, xenofobia legez interpreta dezakegun zer-bait bihurturik agertzen da Prantziako gortekoan:

*Ez dot gura frantzesik*

d) Beste kasu bitan protagonistak beharturik irteten dira etxetik, kapitainek eramanda, Andere lokartua (V) eta Neskatxa ontziratua (VII) poemetan. Bigarren kasu honetan, ordea, badirudi kanpoak («aire bat entzun nuen») baduela neskatxoaren begietan interes izpi bat, lilura bat. Bera aurreratzen bait da kapitaina gonbidatzera. Gero, interes horregatik okertuko zaio egoera. «Etxean egon balitz, ez balitz irten, ez zitzaion horrelakorik gertatuko» mezua agertzen da poema zehar.

Dena dela, ideologi planteamenduak alde batera utzita, kontraste honek pertsonaien arteko kontrastea indartzen du teknika mailan, eta, beste alde batetik, bertso mailan eta hitz mailan dauden kontrasteen teknika azpimarkatzen.

#### IV. — Topikotasuna

Elementu topikoak erabiltzea teknika arloan aipatua dugu. Baina horien garrantzia estiloaren arloan hemen ukitzen dena baino handiagoa dela uste izanik, sail berezi bat egingo dugu datuokin.

Euskal lirika herrikoia irakurtzen dugunean, inpresio bat sortzen zaigu berehala. Badirela estetika era bat eraikitzen duten elementuak, behin eta berriro agertzen diren elementuak, eta, dirudienez, estetika hori konplexua dela, mila elementu txiki-kiz osatua. Eta sistema osoa oraindik egin eta aztertu bage daukagu. Hurren doazen oharrak sistema oso horren, topikotasun horren parte txiki bat baino ez dira izango, zihur asko.

##### 1. Pertsonaiak

Nahiz eta gertakari batzutan oinarriturik egon (eta Onaindiaren edizioaren kasuan, esate baterako, gertakaria, poemaren aurretik doan sarreratxoan azaltzen da) poemotan agertzen diren pertsonaiek arketipoak, abstraktuak izateko joera dute, matizatuz baina.

Pertsonaien ezaugarri zehatz gutxi ditugu poemetan. Atarratzeko jauregia (IV) poeman ez zaigu nongoa den besterik esaten. Kasurik abstraktuenak andere lokartua (V) eta ontziratua (VII) dira, eta baita Prantzioko gorteko pertsonaiak. Identifikazio zehatzagoak daude Urrutiakoarenean (I), Alargunarenean (II) eta Arbotikoanean (VI): hauetan agertzen bait zaigu izenen bat edo beste. Horrela, hiru era nagusi bereiz ditzakegu pertsonaien identifikazioan:

a) Etxea edo senarraren edo aitaren izena aipatzen duten poemak. Identifikaziorik zehatzena dugu hau: Ahetzeko anderia (I), Lantainako alaba (VIII), etb. Baina pertsonaiaren izena ez da esaten, teknikarik zehatzena izan arren.

b) Izenak erabili: Klara, Jaunita (poema bitan). Baina dirudienez, izenok ere oso topikoak dira, hau da: ez dira benetako izenak, poemaren gaiarekin sinbolizazioaren bitartez lortzen direnak baino. Ez dakigu oraindik zein den izen bakoitzaren esanahia, baina, dirudienez, «Juanita»k maitasun erreala adierazten du, maitasun ideal bati kontrajarria. Poemotako Juanita biek harreman sexualak izan dituztela dirudi.

d) Izen arruntak: ama, seme, andre gazte xarmanta, Jaun kapitaina, mariñel ona. Izenik zabalenak dira adierazpenez, sinbolo huts bihurtuak ia. «Ia» diogu, zeren izenlagunen bitartez (gaixo, xarmanta, on) pertsonaiok gorpuztu egiten bait zaizkigu, afektiboago, hurbilago bihurtzen, ez dira huts-hutsean irudi abstraktu bat.

## 2. Zenbakiak

Zenbakien erabilera sinbolikoa ere ematen da gure lirikan. Gehien erabiltzen direnak «zenbaki lehen» edo «primoak» dira (salbuespen bat dago bakarrik). Hauexek:

a) Hiru zenbakia: «hiru kapitainek» (V), «hiru ehun lekutan» (VII).

b) Zazpi zenbakia: «zazpi urtez etxeko dizut» (II), «zazpi errota berri» (VIII), «zazpi zaldi» (IX).

Zenbaki hau dugu, bederatzi poemetan gehien erabiltzen den zenbakia. Perfekzioa edo, gehiena edo, adierazten du, eta goreste topikoarekin lotua joan ohi da. Dena dela, zazpiarekin batera «zortzi» zenbakia ere agertzen da.

d) Zortzi zenbakia: zazpia agertzen den kasu batzutan agertzen da zortzi ere, eta perfekzioa baino zerbait gehiago adierazi nahi du:

*Zazpi errota berri  
zortzi jauregi xuri (VIII)*

*Saspi saldi deukadaz  
Ixeras jantzi-ta;  
Sortxigarrentzoa, barriz,  
Perlas estali-ta (IX).*

Adibide biotan «zortzi» zenbakiak daraman izena, zazpiak duena baino ederragoa, aberatsagoa da: zazpi errota, baina zortzi jauregi; zazpi zaldi izeraz jantziak, zortzigarrena perlaz.

### 3. Goreste topikoa

Gazteleraz «tópico del sobrepujamiento» deitua da. Pertsonaia bati buruz informazioa emateko eta, bide batez, haren arruntasun eza aiderazteko, elementu liluragarri inguratua agertzen da pertsonaia hori. Elementu liluragarriok beste helburu bat ere badute, teknika sailean apuntatu dugunez: hain zuzen, poemaren plastizitatea, poema ditziraz, hotsez eta kolorez hornitzea.

Adibideak ugariak dira: «Neskatxa ontziratua» (VII) poema: «brodatzen» ari da neska, ez iruten, «gortean» (ez etxean), «salan» neskatxaren inguruan adierazgarri dira hitzok. Prantzieko gortekoan (IX): zaldiak, izenak, perlak, urre kaliza, sobrepelliza, e.a.

### 4. Estilo zuzena

Agian, estilizazioaren ondorioa dateke, baina poemok estilo zuzena darabilte; ez bakarrik kontalaria ezkututzen delako, eta elkarrizketak zuzenean ematen direlako. Ez da hori bakarrik, nahiz eta hori ere estilo zuzena izan. Estilo zuzena da, halaber, batere zirkulokiorik bage, irakurlea bat batean ekintzaren barnean sartzea, eta pertsonaiak ere bat batean, ia gertakizunik bage, ekintzarekin aurrez-aurre aurkitzea.

*Juanita jatzi zaitte  
Zaldien gañetik  
Sar daitzudan puñalau  
biotzen erditik (IX)*

Hau da nire ustez, estilo zuzen horren adibiderik argiena. Inguru-mingururik bage aurkitzen da Juanita bere heriotzaren berriarekin, esaldi basati eta bortitz horretan. Gaia, horrela, ez da batere leuntzen, gogor-gogor, den bezala, komunikatzen du poemak.

### 5. Lehen ahapaldia

Estilo zuzen honekin zerikusi handia du lehen ahapaldiaren tratamenduak. Ahapaldi giltzarria dugu hau. Hiru marka nagusi agertzen dira:

- 1) Iraganaren erabilera aditzetan, bost poematan.
- 2) Aditzaren lehen pertsona, hiru poematan.
- 3) Lehen ahapaldian kontraste bat agertzea, guztietan. Horrela, bada, hauxe dela pentsatu behar dugu ezaugarri giltzarria.

Kontraste hori beti berdin agertzen da, eta honetan datza teknika: Poema hasi, ekintza neutro batez hasten da beti, informazioa (nor non dagoen) ematen duen ekintza batez. Informazio-ekintza horrek ez du irakurlearen irudimena mugitzen, hitzaren zentzu estilistikoan. Baina horren ostean, bigarren ekintza desorekatzaile, sosegu gabeko, emotiboa datorkigu, trankil-tasuna apurtu, eta trageriari hasiera ematen dion ekintza bat. Irakurlea, horrela, golpean harrapatua geratzen da, bere interesa piztuta, gaiak zelan jarraituko duen bere buruari itaunduz, eta irakurtzen/entzuten jarraituko du.

Adibidez edozein poematan dauzkagu:

A) *Elorri xuriaren azpian anderea lokartu...*

B) *hirur kapitainek hor deremate  
gortez enganaturik (V)*

A) *Etorri nintzanean / Frantzie kortetik*

B) *ama aurkitu neban / suitian tristerik (IX)*

A) *Brodutzen ari nintzen...*

B) *aire bat entzun nuen itsasoko aldetik (VII)*

A) letraz lehen ekintza markatu dugu, eta B) letraz ekintza desorekatzaile eta interes-sortzaile hori.

Nik ikusten dudana bezala, irakurlearen identifikazio bi bilatzen dira poemotan. Pertsonaiekin identifikatu lehenik, hauei jartzen zizkien ezaugarri sentimental eta afektiboen bitartez, eta aditzaren lehen pertsona erabiliz, erabiltzen den kasuetan. Eta bigarren identifikazio bat gaiarekin, lehen ahapalditik hasita zihurtasun falta adieraziz.

## 6. Hartzailea

Elkarrizketaren hartzailea, beti forma bereziaz izendatzen da, teknika sailean etenak ikusterakoan esan genez. Etenak direla medio, narratibotik elkarrizketara iragatea bokatiboen bitartez jakinerazten dute poemek. Baina hartzailearen deitura («andre gazte xarmanta»), «jaun kapitaina») beti berdina da, pertsonaia aragizkoak ez balira bezala, edo tratamendu kortes bat



hartuko balute bezala, haien sinbolotasuna markatu nahiko balute bezala.

### 7. Errepikapenak

Euskal lirika herrikoiak asko erabili izan duen topikoa da; bertso bat berresan, bigarrenean «eta» juntagailua gehituz:

*Urre kalizia;*  
*Urre kalizia ta (IX)*

Beste poema batzutan, juntagailurik gabe ere egiten da hori bera.

*Jin zaiten afaitera, hantxet deskantzazera,*  
*hantxet deskantzazera... (VII)*

### 8. Esaera bereziak

Poema batean, Prantzie kortekoan (IX), oso topiko berezi bat aurkitu dugu. Esaldi bat baino ez da, eta oso joskera berezia duena. Hain zuzen, Izena + /-ren/ Izena + /-ren/ Izenondoko-a. Adibide bakarra:

*Ai! horren puñalaren*  
*Puntien zorrotza (IX)*

### 9. Gorputza/arima kontrastea

Era ezberdinetan agertu arren, izen bion kontrajarpena hiru bider daukagu poemotan.

a) *Ahetze'ko anderia*  
*Urrutia'n korpitzez;*  
*or dizu bere buria,*  
*kanpoan da biotzez (I)*

b) *Züntüdan biotzian, armak oro eskian:*  
*Present espiritian, manka besuen artian (VI)*

Beraz, korpitza/buria, bihotza/eskia, espiritua/besua kontrasteek badute biolentziaren erakusgarri zerbait, bere kontrajarpen horretan. Ikusten dugunez, adierazleak nahiko berdinak dira, eta bestalde badago beste espresabide bat: dena esan beharrean, zati bat esan.

## 10. Paralelismoak / Kontrasteak

Hain dira ugariak, ez bait du merezi adibideak emateak. Bakarrik, aipa dezagun poemaren egitura duten garrantzia.

## V. — Ondorioak

Lan hau ez luzatzearen ondorio nagusi bi seinalatuko ditugu:

- a) Poema guztiok estetika arau berak jarraitzen dituzte.
- b) Estetika hori elementu ezberdinez osatua dago; baina, adierazte aldetik, badirudi topikotasun baten barnean mugitzen direla poemok. Euskal lirikaren azterketa serio batek kontuan hartu beharko duela uste dugu topikotasuna. Eta topikotasun horren barnean kontutan izan beharko dugu izadiak duen tokia. Metaforen eta deskripzioen bitartez, beti dugu begien aurrean izadi liluragarri bat, kontrastez, giza pasiorik bortitzenak lekutzeko.

J. K

<sup>1</sup> A. ONAINDIA: *Milla euskal olerki eder*, Amorebieta 1954. 9-19 zb. daramatzate. Ez dira kontutan hartu «13. Musde Sarri» eta «17. Peru gurea». Zitatzerakoan errespetatu egin da ortografia.

<sup>2</sup> Zenbaki erromatarrez baliatuko gara poemok zitatzekoan.

<sup>3</sup> Gertakariei buruz, bereizkuntza bat egin beharrea aurkitzen gara. Protagonistak, ezagunak ditugu batzutan (Urrutiako anderia, Undurain anderia, Atarratzeko anderea, Arbotiko prima), eta bestetan askoz ere anonimokoak agertzen dira. (Prantziako kortekoak, neskatxa ontziratua, neskatxa lokartua).

<sup>4</sup> X. LETE: «Cancionero popular vasco a través de la historia», in: *Muga*, 1. zb. (1979 Ekaina), 96 or.

<sup>5</sup> Guzti hau, jakina, poemaren transmisioarekin eta poemaren bariantekin oso loturik dagoen arloa da; baina datuok hor daude nahiz eta ondorio larregirik ataratzeko balio ez.

<sup>6</sup> Lehen ahapaldiek lehen aldia erabiltzen dute II, IV, V, VI VII, VIII, IX poemetan poema bera gertatuaren oroitzapena balitz bezala.

## Euskadiren kontzeptua galdu zaigu

Joxe A. Otaegi

Grabea hori da, nire ustez. Herri bat omen gara, baina bakoitza bere tegian atrintxeratu da jadanik, PNVtarrak PNVn, HBtarrak HBan, EEtarrak EEan, Eliza kanpandorrean, ontzak kukuleihoan, eta inori ez dio axola bestea zer dabilen, denak ibili arren nahikoa larri eta Euskal Herria bera apenas 68an edo 75an baino askoz hobeto.

Ezkerra eta Errekaren detentzioak, esate baterako: lehengo EEren beraren arazoak izango ziren, baina ez ziren gutxiago Euskadi osoaren arazoak, holako Estatu boterearen abusadioek edozeini doakion printzipiozko problema bat planteatzen dute eta beste gabe. Manifestapenak eta protestak horren kontra egitea EERI berari zegokion lehenengo. Baina ez dut uste hari bakarrik tokatzen zitzaionik: ez da ikusten, zentzu nazional askorik ezezen, zentzu zibiko handirik ere, besteen aisa desentenditze horretan.

Adibide hutsa da eta ez diot eman nahi adibidearena beste inportantziarik. Duda gabe, Alderdi bakoitzak bere antzeko kasuak aipatu ahal izango lituzke: nola bera ere makina bat aldiz bakar-bakarrik aurkitu izan den, beste Alderdi guztiek abandonatuta, inoren laguntza eta solidaretasun gabe. Konforme.

Hau idazten ari naizen momentuan, Urbiola preso dago: uste dut nahiko grabea dela, gure politikaren sentidoaren aldetik, gure instituzio demokratikoen balioaren aldetik, espresio libertatearen eskubideen aldetik, edozeini zor zaion errespetoaren

aldetik..., justiziaren kapritxo krudelen aldetik, justizia zenbait Estaturen eta legeren esku dagoenean. Preso Pikabea ere. Egungo detentzio berriak. Igande goizez tiroka ibili dira Durangoko kale erdian terroristak. Markinan doilorkeriaz bi mutil zauritu dituzte modu txarrean Goardia Zibil (ez) omen zirelako batzuek. Ez da inoiz argituko noski zeintzuk izan diren gaizkileok. Etab., etab. Horiek ez dira Alderdi arazoak, Alderdiaren bati edo besteri doazkion arazoak. Guztionak ez badira, ez gara ezer guztiok.

Lehenago, torturen arazoak, esate baterako, herri hau bero-bero jartzen zuen, torturaratuak zein Alderditakoak ote ziren asko galdetu gabe. Grebak eta protestak altxatzen ziren, Frantziako poliziak espainolari iheslari batzuk eskuratzen bazizkion: holakorik apenas ikusi da olandresak gauza bera egin duenean... Hori sektore jakin baten arazo bezala geratu da. Hor dago torturen arazoa, komisio santu bati abandonatuta.

«Demokraziak» zatikatu egin gaitu. Alderdikatu. Euskadi taldekatu, alderdikatu, egin da. Giza eskubideen defentsa taldekatu, alderdikatu, egin da. Hau da, gizona zatikatu da eta alderdikatu. Giza eskubideak, duintasuna, gizona bera, «Euskadi», ez dira berdin sentitzen nor bere Alderdian eta bestearen.

Borroka soziala eta politikoa ere banatu egin dira. Michelin, Nervacero... Berdin borroka politikoa eta kulturala: ikus eskal prentsak azken aldia sofritzen duen abandonoa.

Ezaguna da hori dena. Horrelako lantuak honez gero jende askori entzuten zaizkio. Edozein Alderditako jendeari. Eta egia da, «demokraziak» nahitaez ekarri behar zigula horrelako zenbait. Baina, gauzak horrelaxe direla eta, nahitaezko prozesu bat omen dela eta, nik ez dut uste beste gabe hor konpon uztea daukagunik arazo hau. Prozesu positiboegia behintzat ez da, prozesu honen alderdi positiboena ez behintzat, eta pentsatu beharrean gaude, zer ari zaigun gertatzen.

Lehenengo, orain ikusten da, orduan baino hobeto, frankismoaren pean generabilen gure Euskadiren kontzeptua, orduan batzuek kritikatu ohi zutenaren kontra, ez zela politiko hutsa, «nazionalista» hutsa, kontzeptu formal soila eta indeterminatua, edukin sozial konkreturik gabekoa. Politiko hutsa eta formal soila, orain ari da bilakatzen.

Orain ari da Euskadiren kontzeptua Estatutu baten, Alderdi interes konkretu batzuen, programaren baten, neurri eskasak

hartzen. Hauek dute gaur Euskadiren kontzeptua sostengatzen (Euskadiren zenbait kontzeptu), alderantziz beharko zukeena.

Lehen, frankismoaren pean, karga demokratiko eta humanista aberatsa zuen oraindik Euskadiren kontzeptuak, PNVtik ETAraino, eta guztiok kapaz ginen Blanco Chiviteren gartzelaz edo preso komun en egoeraz justu Euskadi-zale, abertzale, giza indignatzeko eta asaldatzeko. Gizonak zerbait esan nahi zuen, Alderdiak eta ideologiak gabe. Eskubideak haragi eta hezurrezkoak ziren.

Lehen, «Euskadi» aipatzen genuenontzat, izen horrek exijentzia batzuek adierazten zituen. Exijentzia demokratiko eta humanistak. Herri eta giza eskubideen defentsa kontsekuentea. Postura garbi bat, blokeen eta ideologi en gainetik ere. Opor-tunismorik eta konpromisorik gabe.

Euskadi kontzeptuaren inguruan, orduan ere, projektu poli-tiko desberdinak bururazten zirela, begien bistan dago. Zegoen, baita orduan ere. Zergatik idealizatuko dugu iragana. Inork ez du inoiz pentsatu PNVk eta ETAk asmo berdinak zerabiltzatenik. Baina politika bere inguru guztian etikarekin mugatzen da, gi-zonarekin, hots, politikak beti ere gizonaren eta komunitatearen eta komunitate bizitzaren kontzepzio bat suposatzen du. Eta, za-palkuntzak berak eraginda ere, giza eta komunitate eskubideen kontzientzia hori biziagoa zen eta orokorki denok konpartitua-goia zen orain baino. Orduko deklarazioak —Elizarenak, Alder-dienak— errepasatuz ageri denez, orduan giza eta herri eskubi-deak hitzetik hortzera eta solemneki aipatzen ziren, orain piska bat bitxi irudituko litzai gukeen insistentziarekin. Gutxienez sin-toma nabarmena bait da. Euskadi, batez ere aspirazio batzuen espresioa zen, eta inolako edukirik bazuen, demokratikoa eta humanista zen. Hots, etikoa.

Baina demokrazian eta giza eskubideen erreinuan ote gabil-tza egiaz?... Hobe dugu oraingoz alde bat utzi galdera hori. Orain «Euskadi» denek aipatzen dute eta, Beltzak saminki erre-paratu ohi duen moduan, denak dira abertzaleak edo Euskadi-zaleak, UCD ere bai, baina abertzale batzuk beste abertzale batzuen gartzelatan daude. Batzuen Euskadi besteen gartzela da. Euskadi izenak edozer gauza esan nahi du, ez du ezer esan nahi.

Dena dela, ez gaude Francoren pean, ez nuke iragan den-boren nostalgiko bezala ihardun nahi («contra Franco vivíamos mejor»), orduko gure idealen harmoniari edo solidaretasun na-zionalari ondotik eder eta mira eritiz (zerbaiti mira eritzi, zer-

baiten mira izan: *añorar, sentir nostalgia*). Ez diegu ukatuko nahitaezkoak omen diren prozesu horiei berea. Eta orduan ere gure harmoniak eta solidaretasunak beti ziren franko problematikoak.

Gauzak diren bezala dira. Borrokak eta diferentziak ezinbestekoak dira Alderdien artean, Euskadiren kontzepzio politikoari buruz, eraman behar den estrategiari buruz, etab. Eta ezinbestekoa edo da, giza eskubide sakratuenen defentsan ere, kasu konkretuaren aurrean, Alderdien artean interes konfliktoak sortzea.

Baina ez dezagula nekearen nekez orain amore eman, «errealitateen» aurrean, eta terrore frankistaren urte beltzetan zein zen gure guztion xedea ahaztu. Euskadi egin nahi genuen. Gu guztion xedea zen Euskadi berregitea. Gure gutziona. Baina Euskadi, gure helburuetako Euskadi, ez zen formula politiko abstraktu bat, ez zen *res publica* bat soil, paper batetan definitua (hala-holako Estatuturen bat edo): gure ametsetako Euskadi, lehen-lehenik, emakume eta gizon guztientzako sorterrria eta aberria bezala bururatzen genuen. Herri eta pertsona bezala zor zaigun begirunearen espresio eta proiektio bezala. Edozeinek bere nortasuna duintasunez burutzeko espazio bezala. Eta hori denoi berdin zor zaigu: Estatutuari baitetsi diotenei, ezetsi diotenei, eta Estatutua porru bat axola zaienei. Ez da elkarbizitza posibilitatzeko minimo demokratiko bat besterik.

Hemen egunoro ikusten ari garenak, ordea, ia izenik ere ez du. Egunak joan, egunak etorri, gaur egurra eta bihar burla, desprezioa eta zanpaketa egunoroko ogia. Boterearen zinismoak ia marka denak hautsi ditu: bai legedian bertan (*Ley Antiterrorista, Seguridad ciudadana*), bai legalitate (ofizial) barruko praktiki politikoan (transferentzien arlo luzea, etab.), zer esanik ez legalitate barruko praktiki poliziakoan, berdintsu baita legalitate insecuruagoetako eremuetan (HBak etengabe dituen gorabeheretan), bai legezketasunetik kanpora deklaratu diren edo noiznahi deklaritzen diren pertsonetan, instituzioetan nahiz arazoetan.

Ondarroan bere pistola galdu omen zaio (berdintsu da lapur-tu egin badiote ere) Goardia Zibilen bati. Beraz, gartzelara mutil bat. Zein? Lapurra? Ez, edozein, tokatu zaiona. Eta guziz arrazoizkoa den gisa, ez omen dute askatuko pistola ager dadin arte. Klaro.

Egunoro detenitu berriak eta salakuntza gogorrak periodikoe-tan: Sandia eta Mendia detenituak, ETArekin kolaboratzeagatik. Bi kontzejal, gainera. Santanderren ostutako Goma-2 gordetzeko behebarru bat prestatu ere egin omen zuten. Gauza garbia, itxuraz. «Horrelatsu izango da, pentsatzen duzu, datu hain konkre-

tuak ematen dituztenerako». Egun batzuk geroago: «Los dos concejales de Herri Batasuna... puestos en libertad por el Juez, sin fianza». Deusez, beraz? Komeria hutsa, komeria ondo tristea? Komeria bai, baina deusez dagoenik ezin esan halere: bi kontzejal horietako bat «ha comparecido ya, jarraitzen dugu periodikoa irakurtzen, tres veces ante la Audiencia Nacional en los últimos seis meses y en todos los casos fue decretada su libertad».

Hemen, hiritarra, inolako defentsa gabe dago. Ez du merezi adibideak multiplikatzea.

Esan nahi bait da: hemen, hiritarra, azkenean, komunitate gabe dagoela. Isolaturik, atomizaturik. Artikulatu ezinik. Dretxo gabe. Sozietate gabe. Zakurrek ehiza bezala akosaturik alde guzietatik. Hemen, komunitate bizitzarik ez da posible. Denok obliga gaitzaten eta egiaz obligatzen gaituzten baliogoen sistema bat ez dago. Askatasuna, giza duintasuna...: Alderdi bakoitzak ematen die bere zentzua. Baina ez deribazio sekundarioetan, oinarri-oinarrian bertan. Hiritarra, botere ilunen zangoean eta partidismoen desanparoan, ezer ez da, gizon bezala, norbaiti nolabait bere estrategian «aprobetxagarri» gerta dakioketena baino gehiago.

Euskadiren oinarritzko problema bat, beti esan dugu, bere desartikulazioa da. Juridiko-instituzionala, politikoa, kulturala, linguistikoa, etab. Baina orain Euskal Herria (egunotan «deterioro social» esaten da) bere barren-barrendik ari da desartikulatzen, puskatan erortzen. Grabea hori da. Eta badirudi, inor ez duela preokupatzen, edo inork ez dakiela zer egin.

Berriz ere Euskadi Alderdien eta interes partikularren gaine-tik dagoen printzipio bihurtzekotan, hasi beharrean gaudela, dirudi, printzipio horren exigentziak alde guztietara radikalki eta berdín aplikatzen, Alderdiekiko eta haien interesekiko kontem-plazio gabe, oportunismo eta partidismo gabe, sekula sozietate bat, gizarte bat, izango bagara.

«Prozesu demokratikoaren» bidea onartu zutenei, gogoratu beharra egongo da, egiazko demokrazia nahi bada, delibero gehiago erakutsi beharra dagoela libertate demokratikoen eta giza eskubideen alde: ez «beren» eskubideen alde bakarrik, ezpada baita beren «etsaien» eskubideen eta libertatearen alde ere. Nonahi eta beti. Inkontzisionalki. Bestela «beren» Euskadi egiten ari direla, esan beharko diegu: ez guztion Euskadi. Eta konplize bihurtzen ari direla: sujetu zapaltzaileak direktoki berak ez izan arren, zapalkuntzazkoa den prozesu batetan inplikaturik daudelako. Ez Estatutuari eta ez ezeri daukagu gizona eta giza esku-

bideak sakrifikatzerik. Zorionez edo zoritxarrez, HBtik PNVraino denok elkartu beharko gintzakeen gauza gehiegi gertatzen da oraindik Euskadin alde horretatik. Eta tristea da, Euskadik zinez denok obligatzen bagaitu, zenbait errebindikapen eta borroka, tradizionalki elkarrekin eramán duguna, beti ere guztion lana dena, orain «madarikatuén» alderdi batentzat geratzea. Egin egin beharko da demokrazia: agian nekez elkartu ahal izango dugu hor, demokraziaren burutapen desberdinegiak daude eta, itxura duenez. Baina desegin egin beharko da diktatura, oraindik nonahi presenteei daukaguna: eta hori ezin izan daiteke «besteén» lana, justu diktatura horixe gehien sofritzen ari direnena.

Eta HBri esan egin beharko zaio, egoera txarrean aurkitzen dela, eskubide publikorik gabe aurkitzen dela, arbitrarioki zapaldu eta biolatuta aurkitzen dela: baina horrek inori ez diola bate-re eskubiderik ematen, berak besteen eskubideak zapaltzeko, besteén espresio eskubidea eragozteko, edo berdin batzoki batetan eserita denborapasa egoteko edoezinen eskubidea biolentziaz biolatzeko. Eta ongi egiten duela, esan beharko zaio, bere eta herri honen eskubideak eta errebindikapenak barrikadaz eta mobiltzapenez gogor defendatuz, eta ondo tristea dela besteen indiferentzia horrelakoetan: baina hamabi-hamairu urteko mutikoak barrikadak ezartzen jostaketan, etab. ia ez direla anekdota soilak eta noizik behingoak, ezta bestela pentsatzen duen edozeinen aurkako agresio verbalak eta fisikoak eta amenazoak ere, eta vandalismo horien eta «iraultza» horien kontra postura hartzea lehen-lehenik HBri tokatzen zaiola, ez PNVri. Hain zuzen borrokak dauka, ezerk baino gutxiago, bere seriotasuna galtzerik, sentidurik batere izango badu. Itsuak ikusten du, eserita lasai geratzen denari baino, armak hartu dituenari edo borrokara atera denari, problema larriagoak eta zorrotzagoak sortzen zaizkiola etika aldetik. Hala da. Eta horregatixe ere, etika radikal bat, diziplina puritano bat eta seriotasun absolutu bat exijitzen hasi beharrean gaude, Euskadiren izenean, borrokari.

Baina zer, errepublikatxo bat, ala nazio bat, herri bat, komunitate bat zen, egin nahi genuen Euskadi?

DEIA irakurri, EGIN irakurri —goizero irakurtzen ditut—: autokritika behintzat ez da gure fuertea. Lehenago esaten zena-ren beste sentidu batetan, baina zuzen-zuzen «bi komunitateen» eskizofreniara daramagu Euskal Herria. Bere odolezko XIX. mendera.



# Literatuaren eboluzioa eta euskal prosa

Mikel Hernandez Abaitua

«Literatura —Jorge Luis Borges-ek aspaldi idatzi zuen— poesiatik hasten da eta poesia epikatik; hitzegin baino lehen gizonak abestu izan balu bezala. Literaturaren jatorria ahozkoa denez, lehenetan hau ondo atribuitu dakiok bertsoren memorikotasunari. Indostan-en, Winternitzek dioenez, kodigoak bertsoan idatzita zeuden, memorian tinko zitezten... Halaber bertsoa, errepikatzea nahikoa den eredu bat da; prosak ordea, Robert Louis Stevenson-ek idatzi duen bezala, goxotasun eta sorpresa suposatzen dituzten bariazioen aurkikuntza exijitzen du.»

«Letras de Deusto» aldizkariaren hemeretzigarren zenbakian J. A. Ascunce Arrietaren «Poesia sozialaren arrazoia eta desarrazoia» artikuluan hitz hauek irakur ditzakegu:

«Kritikak, ia batasun osoz, literaturaren jatorria abestiaren habetan ezarri behar dela afirmatzen du. Kantatik desmusikalizazio prozesu baten bidez poesia sortzen da. Poesiaren formalismotasuna regularitatean, barruko formalismoan, kantarenak diren mugimendu eta tonu berdinen errepikapenean datza. Poesiak oinarri musikala galtzen du baina halaz ere hitz kantatuaren ezaugarri propioak diren barruko eta kanpoko homofonia, eta homorritmia ezaugarriak kontserbatzen ditu. Prosa, poesiarenak diren printzipio homofoniko eta homorritmiko horien anulazio-prozesu baten bidez sortzen da». (82 or.).

«Gauza jakina da —esaten du Julio Cortazar-ek bere aldetik—, baikoitzak giza espeziaren prozesua jarraitzen du. Gizonen lehenengo obrak poetikoak izan ziren (...) Prosara geroago iristen da».

Hitz hauen exponente garbia James Joyce-ren obra dateke. Izan ere,

aurki dezakegu nola lehenengo obra poema liburu bat zen «Chamber music» izenekoa, geroago kontakizun-bilduma bat agertzen zaigularik «Dübliners», eta aurrerago bere nobelak.

Beste esenplu garbi bat Ignacio Aldecoa idazle gasteiztarra da zeren eta, bere obran ikusten den bezala, haren buruan bi poema liburu agertzen baitira: «Todavía la vida», «El libro de las algas». Pixka bat beranduago hasiko zen kontakizunak eta ipuak idazten, nobelara saltatzeko beharra sentitu zuen arte. Honek ez du esan nahi ipuia betiko baztertu zuenik kalitate gutxiagokoa bailitzan; oso alderantziz baizik, eta berak esaten zuenez, ipuia eta nobela «neregan kaminoaren bi hildoak bezala dira».

Esan dugun prozesu hau, eskuarki munduko literaturan eman bada eta autore partikularretan ikusten badugu, baita literatura espezifikoa ere aurkituko dugula esan nahi dugu, hauek haren osagai baitira. Gurean, hain berezia, hain berandu hasi zen gure literaturan, holako zerbait topatzen dugu.

Salbuespenak salbuespen eta txoribistatik ikusita ez da literaturtasunezko euskal literatura bat agertuko XX. mendera arte. Obra gehienak erlijiosoak dira eta horregatik ez dira sartzen esaten dugun eboluzioaren azterketan. Literaturazko kreaio lanak idazteko orduan beste harrera bat eskatzen baitu paperaren urrean, exegesiak (erlijiosoa) diferentea dena. Nahiz gerra aurrean nahiz ostean ikusten da idolo eta star nagusiak poetak zirela. Poesia da gerra aurrean gehien laudatzen dena, ahozko literatura gutxiesten delarik. Horrela aukatzen dira Lauaxeta eta Lizardi (salbuespen bat D. Agirre). Gerrak eten bat suposatez du baina kontinuitate bat ematen da kanpotik batipat, eta hori poesiaren eskutik etorriko da. Hori izango ditugu Zaitegi, S. Mitxelena, Orix, Iratzeder, Mirande, Arestirenganaino (gero, J. San Martinek deitutako «Uhin berria»). Arestirekin euskal poesiak heldutasun pausu bat emango du zeren «Maldan behera» izango da kostunbrismorik gabe poema liburuari osotasun bat ematen dion obra. Liburua ez da intuiziozko atomoen bidez egindako poemen bilduma, obra trinko bat baizik. Prosa ez poetikoa egiteko egoerarik ez zen formatu saio bakanak izanarren (J. Etxaide). Geroago bai, ezagutu dugu holakorik. Eta Txillardegirengandik gureganaino badago kontinuitate bat esaten genuen eboluzioaren azken pausaren hasiera ematen delarik.

Kontura gaitetzen baina, Txillardegiren kasuan poetikotasunaren ezaugarriak agertzen direla oraindik: lehenengo pertsona gramatikaetik kontatzen baita, mundu barnekoi eta intimista batetan. Poetak bere arima nobela baten bidez adierazten du. Txillardegiren bigarren nobelak lehenengo pertsona gramatikaren ezaugarria eramango du oraindik eta hortik ateratzeko edo, Elsa Scheelen ez dago jadanik horrela idatzita. Baina arima poetiko hori kanporatzeko beharraz inkonszienteki kontatzaile oro-jakitun bat agertuko da. Nobela oso bat gaur egun ikuspuntu oro-jakitun batetik idaztea deskalabroa zela eta, Arestik berak esan omen zion

poesiara pasatzeko. Egun, frakaso hori (?) superatzearren egin da «Haizeaz bestaldetik» zeharo poetikoa eta lehenengo pertsona gramatikalerara bihurtuz.

Ramon Saizarbitoria arte, euskal prosa ez da libratuko eramaten zuen zamaz eta hau arinduaz, Ramonek eboluzioaren goragoko pausu bat eman-go du ikuspuntu anitzen ugaritasuna hain aspaldi inkorporatua den munduko literaturatik ekarriaz. Ikuspuntu ugaritasuna munduko literatura modernoaren iraultzarik handienetako bat baita.

Saizarbitoria ez da bide horretatik apartatu hurrengo obretan baina hirugarrena amaitu eta gero idazteari utzi egin dio oraingo ezin omen baitu (berak dioenez) herri honetan idatzi (eta ez da berea kasu bakarra zeren Andu Lertxundik gauza bera komentatzen baitzuen). Prozesuaren eboluzioa ez da finkatu, nahiz eta inoiz baino literatur-prosa gehiago idazten den. Azkeneko hiru urtetako literaturgintzari begiratzen badiogu hauxe aurkitzen da:

	Prosa	Poesía
1977	6	6
1978	8	9
1979	10	8

(Liburu kopuru hauetan ez dira sartzen Gereñoren nobelak euskara-ikasleentzat eginak bezala hartu baititugu).

Horrela ikusita nahiko baikor geratzen da baina bi faktore berri azaltzen baditugu orain (eta hortarako egiten dugu proba) panorama zeharo aldatzen da eta gure prosa ezpoetikoaren pobretasuna garbi gelditzen da. Bi faktoreok hauek dira:

— Koadroan, prosaren zutabea, prosa poetikozko obrak sartu ditugu.

— Gainerakoak oso obra motzak dira.

Bi horiek dira batez ere gaitz handienak. Alde batetik hiru urte horietako obrak irakurtzen baditugu, barneko mundu itxi bat expresatzen dela, idazle nobatoarena bezalakoa, somatzen dugu. (Prosa poetikozko liburuak dira).

Hori gertatzen ez denean obrak oso motzak dira, egin behar zen obra luzeago, landuago eta aberatsago baten parte eta saio bat bailiran.

Hortik autore bakar batzuk salbatzen dira, ingurune literario landuago bat bere obretan asmatzen dutenak. Nere ustez hauek dira Bernardo Atxaga bere ipuicetan, eta Krutwig eta J. A. Arrieta beren nobeletan.

Baina gure pobretasunaz konturatzeko ikus ezazue zer gutxi daukaten oraindik argitaratua.

Hau denau, hasieran markatu dugun ideiaren ondorioa besterik ez da. Hain zuzen ere, horrela esplikatu litzateke zergatik dagoen euskal poesia, prosa baino desarroilatua. Baina honengatik ere itxoin ditza-kegu egun hobeak gure prosarako.

## Ereilearen Parabola hamabi euskalki diferentez

Presentatzen dugun lana, Bonaparte printzeak bildu zituenetarikoa bat du. Denok dakigun bezala, Bonapartek gogor ekin zion euskarari eta ehun urtez aurreratu zitzaizen gaur egungo filologoei, euskalkiak sakonki estudiatuz, herriak, herrixkak, eta hauzoak korrituz, egun magnetofonoak direla medio egiten dugun lan bera eskuz eta paperez burutuz. Jakina denez, lan hori ez zuen berak bakarrik egin: kolaboratzaileak aurkitu zituen leku askotan eta haien oharrei esker egin ahal zituen egindakoak. Bonapartek berak eskatzen zien zer egin eta nola, gehienetan itzulpenak egitera bidaltzen zituela, bakoitzak bere euskalki edo sub-euskalkira bihur ziezazkion harek emandako testuak, sarritan Bibliako parteren bat edo beste. Horrela, badugu testu pila bat euskalki diferentez idatzia. Bonaparteren asmoa, seguraski, lanok publikatzea izan zen: modua eta medioak zituenean horixe egiten zuen eta honela ikus dezakegu nola argitaratu zuen hainbat gauza, Londres-en batipat. Argitaratzen zituen lan hauetatik 250 ale inprimatzen zuen gehienetan, eta inprimatu gabe zeuden lanak bibliotekan sartzen zituen: hainbeste eskuidazki dago argirik ikusi gabe denbora luzez. Beste batzutan ez zituen lan osoak publikatzen, zati batzuk baizik. Gaurko testuak azken hauetarikoak ditu: hemen ematen den **Ereilearen Parabola** S. Mateoren Ebangeliotik harturik dago, S. Mateoren Ebangelioa izan baitzen, hain zuzen, berak bere kolaboratzaileei eskatutako itzulpenetako bat. Hortik, testu hau aukeratu zuen argitaratzeko, Londres-en, 1878. urtean publikatu zuelarik: «**Parabola del Sembrador** traducida a los ocho dialectos del vascuence y a cuatro de sus subdialectos» (Imprints L. L. Bonaparte), Londres, 1878. Horixe dio liburuak azalean.

Euskal Filologo direnendako eta ez direnentzat, euskaraz dakigun guztiontzat, interesgarriak dira testu hauek historia aldetik eta dialektologia aldetik ere: morfologia, sintaxia, hitz konposaketa, hiztegia, eta beste holako gauzak ikus daitezke hemen, testuak berak nahiko laburrak izan arren.

Tituluan jarri dugunaren arabera, ereilearen parabola daukagu eskutartean, hamabi euskalki diferentz eman. Dena dela, hau ez dela egia osoa esan behar dugu: berez, zortzi euskalki ditugu, beste lanak, zinez, subeuskalkizat jo behar ditugaririk. Komeni zaigu, gauzak argiago gera daitezen, «euskalki» eta «subeuskalki» kontzeptuez, laburki bada ere, zertxobait esatea, zer ulertzen zuen haietaz Bonapartek jakiteko.

Askotan aritzen gara Bonaparteren mapa linguistikoari buruz, haiek zituen euskalkiei buruzko eritziez, dialektoak gora eta behera, nola edo hala, etab. Dena den, urteetan zehar Bonapartek landu zuen eritzia ez zen uniformea eta gau batekoa. Hiru aldiz, gutxienez, aldatu egin zuen eritzia, azkenean, ondoan ezarriko duguna finkatu arte. Hain segurki, 1869an, Bonaparteren ustetan zortzi euskalki genituen nagusi:

- 1) Bizkaiera
- 2) Gipuzkera
- 3) Goinafar iparraldekoa
- 4) Lapurtera
- 5) Goinafar hegoaldekoa
- 6) Zuberera
- 7) Behenafar sortaldekoa
- 8) Behenafar sartaldekoa

Hemen aipatu ditugun euskalkiok beste subeuskalki batzuez zeuden osotuak, denetara 25 aurki genitzakeelarik. Presentatzen diren testuak 8 euskalki horiek osotzen dituzte eta gainera beste subeuskalki hauek ere<sup>1</sup>:

- 9) Gipuzkera hegoaldekoa
- 10) Bizkaiera sartaldekoa
- 11) Sortaldeko behenafar salazarrera
- 12) Erronkariko zuberera.

Nola bildu zituen Bonapartek testuok?

Esana dago kolaboratzailez inguratzen zela. Liburu honetan ez

<sup>1</sup> Ari garen gai honetarako oso interesgarriak zaizkigu Julio Urquijok argitaratu zituen testuak RIEV aldizkariaren II eta IV tomoetan. Berez, Bonapartek Bruno Echeniqueri egin zizkion gutunak dira:

RIEV II, 215-221; 655-659

RIEV IV, 233-297

zaigu esaten nork bidali zizkion itzulpenok, baina Bonaparteren beste testu batzuk hartzen baditugu oinarritzat eta bakoitzari zor zaiona eman behar zalonez gero, Julio Urquijok prestatu zuen zerrendari garraizkiola, esan dezakegu hauek diratekeela Bonaparteren kolaboratzaileak, gehiago ere izan arren:

- 1) Jose Antonio AZPIAZU, gipuzkoarra
- 2) L'abbé CASENAVE, Zizekoa
- 3) DUVOISIN Kapitaina, lapurtarra
- 4) Bruno ECHENIQUE, elizondotarra <sup>2</sup>
- 5) Martin ELIZONDO, Aezkoarra
- 6) Prudencio HUALDE, Bidangozako
- 7) L'abbé INTXAUSPE, zuberotarra
- 8) A. P. ITURRIAGA, gipuzkoarra
- 9) Joakin LIZARRAGA
- 10) Mariano MENDIGATXA, Bidangozako
- 11) Pedro Jose MINONDO, Garraldakoa
- 12) SALABERRI jauna, behenafarra
- 13) Pedro Jose SAMPER, Jaurrietakoa
- 14) Fray J. A. URIARTE, bizkaitarra <sup>3</sup>

Hauek ditugu, bada, Bonaparteren euskalkiak eta Bonaparteren kolaboratzaileak. Horien laguntzaz, aipatutako kriterioez ere, argitaratu zituen testuok printzeak.

**Pello Salaburu**

<sup>2</sup> Ba dakigu ziur Echeniquek parte zuzena hartu zuela testu hauetan. Echenique Elizondon bizi izan zen, baina Axularren herrikoa genuen jaiotzez. Orain bertan inprimategian daude Echeniquek Bonaparterentzat prestatu zituen lanik garrantzizkoenak eta Biblia zati hau handik hartuta dago, nahiz eta Bonapartek ez errespetatu jatorrizko ortografia. Liburu horretan, «Baztango euskalkiaz (1)», zehatzago hitzegiten dut kontu honi buruz.

<sup>3</sup> RIEV, II: 216. orr.

## I. 1. DIALECTO GUIPUZCOANO

Ona non irten zan ereille bat ereitera.

Eta ereiten ari zala, azi batzuek erori ziran bide bazterrera, eta etorri ziran zeruko egaztiak, eta jan zituzten.

Besteak erori ziran leku arritsuetan, non ez zeukaten lur asko: eta bereala jayo ziran, zeren etzuten lur ondo-koirik.

Bañan eguzkia irten zanean, erre ziran eta igartu ziran, zergatik ez zuten sustrairik.

Eta besteak erori ziran arantzen gañean: eta arantzak azi ziran, eta ito zituzten.

Eta besteak erori ziran lur onean: eta ematen zuten frutua, batak eun alako, besteak irurogei, eta besteak ogei ta amar.

Aditzeko belarririk duenak, aditu dezala.

## I. 2. DIALECTO VULGAR DE CEGAMA (GUIPUZCOANO MERIDIONAL)

Irten zon bein baten ereiñtzalle batek ereitea.

Eta bikorrak banatzen, batzuk biden ondón eroi zien, eta zeruko egaztik etorrita, jan zituen.

Beste batzuk arritartetan eroi zien, nun zeon lur guchi: eta beala irten zoen, chit lur gañen zerelako.

Baño euzkie jayo zanen, erre zien eta igartu zien, bate zuztarrik kasi etzoelako.

Beste bikor batzuk antzartaten eroi zien: eta azi zien antzak, eta ito zituen.

Beste batzuk aizkenen eroi zien lur onen: eta eman zoen frutue, buru batek eun, beste batek irurogei, beste batek oetamar eta la.

Belarririk dauzkenak entenditzeko, ai dezala.

### II. 3. DIALECTO VIZCAINO

Orra nun urten eban ereiten dabenak ereitera.

Eta ereiten diarduala, azi batzuk jausi ziran bidiaren onduan, eta etorri ziran zeruko egaztiyak, eta jan zitubezan.

Beste batzuk barriz jausi ziran arrizetan, nun ez euken lur asko: eta laster erne ziran, ez eukelako lur lodiya.

Eta eguzkiyak urtenik, erre ziran: eta ez eukelako sus-trairik, sikatu ziran.

Beste batzuk berriz jausi ziran arantzetan: eta azi ziran arantzaak, eta ito zitubezan.

Beste batzuk berriz jausi ziran lur onian: eta emoten eben frutuba, batek eunka, bestiak irurogeika, bestiak ogetaamarka.

Daukazanak belarriyak entzuteko, entzun dagiyala.

### II. 4. DIALECTO VULGAR DE OCHANDIANO (VIZCAINO OCCIDENTAL)

Ona nun urten eban ereiten dabenak ereitera.

Da ereiten ebillela, asi batzuk yausi sirien bidien onduen, da etorri sirien seruko egastiye, eta yan situbesan.

Beste batzuk barres yausi sirien arri artietan, nun es euken lur asko: da laster erne sirien, es eukelako lur lodiye.

Da eguskiyek urtenik, erre sirien: da es eukelako sus-trairik, siketu sirien.

Beste batzuk barres yausi sirien arantza artietan: da asi sirien arantzak, da ito situbesan.

Beste batzuk barres yausi sirien lur onien: da emoten euden frutube, batek eunke, bestiek irurogeike, bestiek ogetaamarka.

Daukesanak belarriyek entzuteko, entzun daiyela.



### III. 5. DIALECTO VULGAR DE ELIZONDO (ALTO-NAVARRO SEPTENTRIONAL)

Una aldi batez azi ereile bat atra zen ereitera.

Eta ereiten ai zelaik, zembait azi erori ziren bideain ondoan, eta torri ziren aireko egaztinak, eta denak yan zituzten.

Bertze zembait erori ziren kaskallu lekura, non ezpaltzen lur guti baizik: eta sortu ziren bela, etzutelakotz lur gizena.

Bañan iruzkia atra zelaik, erre ziren: eta iñartu ziren, etzutelakotz zañik.

Eta bertze zembait erori ziren elorrien artera: eta aunditu ziren elorriak, eta ito zituzten.

Eta bertze zembait erori ziren lur onera: eta kartzen zuten fruitu, batek eun, bertzeak iruetanogei, eta bertzeak ogeitaamar.

Begarriak ituenak aitzeko, ai beza.

### IV. 6. DIALECTO VULGAR DE ELCANO (ALTO-NAVARRO MERIDIONAL)

Atra ze bein ereikizale bat ereikitsera.

Eta barrayatzean granoak, erorzere batzuk bide ondoan, eta etorzere gorako choriak, eta shan zuste.

Erorzere berze batzuk arduyetan, non zen lur guti: eta berla shayo zere, zeren zegon lurra ashalkiro.

Baña iruzkia atra zelaik, erre zere eta eyartu, zeren kuasik ezpaizute zainik.

Berze grano batzuk erorzere larretan: eta larrak anditu zere, eta ito zuste.

Berze batzuk enfin erorzere lur onean: eta eman zute fruitu, non egunka baten, non irutanogei, eta non ogeitamar.

Dituenak bearriak entendatzeko, entenda bez.

## V. 7. DIALECTO LABORTANO

Huna hazi eraile bat athera zen eraitera.

Eta eraiten ari zelarik, hazi parte bat erori zen bide gainean, eta shoriak ethorri ziren eta yan zuten.

Eta bertze parte bat erori zen lekhu harritsu batetara, non ezpaitzuen lur hainitzik: eta berehala sortu zen, zeren ezpaitzen barna sartzen lurean.

Eta iguzkia yekirik, errea izan zen: eta errorik etzuelakotz, ihartu zen.

Eta bertze parte bat erori zen elhorrien artera: eta elhorriak handitu ziren, eta itho zuten.

Eta bertze parte bat erori zen lur onera: eta ekharri zuen fruitu, batek ehunka, bertzeak hiruhogoika, bertze batek hogoietahamarka.

Beharriak dituenak aditzeko, adi beza.

## VI. 8. DIALECTO VULGAR DE BAIGORRI (BAJO-NAVARRO OCCIDENTAL)

Behin eraileat yau zen eraitera.

Eta eraiten ai zelaik, hazi puskaat erori zen bidiaian gaineat, eta yin ziren zeruko shoriak, eta yan zuten.

Bertze hazi puskaat erori zen leku harritsu batetaat, nun ezpaitzen lur handiik: eta berehala sortu zen, zeeneta ezpaitziin lurra lodi.

Bainan iuzkia yeikita, erre zen: eta ezpaitziin erroik, eihartu zen.

Berze puskaat erori zen elhorripera: eta elhorriak haunditu ziren, eta itho zuten.

Berze puskaat erori zen lur huneat: eta bihia kharri ziin, batek ehun, berziak hiruetanhooi, eta berzeatek hooi-tahamar.

Beharriak ditiinak aitzeko, ai beza.

VII. 9. DIALECTO VULGAR DE CIZE  
(BAJO-NAVARRO ORIENTAL)

Yalgi zuun behin ereileat ereitea.

Eta ereiten zielaik, hazi pharteat eori zuun bidlain gaineat, eta zeruko shoriek yin eta, yan zizien.

Beste pharteat eori zuun lekhu harritsu batzutaat, nun ezpaitzen lur handiik: eta behala sorthu zuun, lur ashala bezik etzelakotz.

Bana iruzkia yalgi zenian, erre zuun eta eihartu, erroik etzielakotz.

Pharteat ono eori zuun elhorrien gaineat: bana elhorriak handitziakin, ithua izan zuun.

Azken phartia eori zuun lur hun baten gaineat: eta frutia eman ziin, bihi batzuk emaiten zutelaik ehun baten-dako, beste batzuk hiruetanhogoi, beste zombaitek aldiz hoitahamar.

Beharriak tienak aitzeko, ai dezala.

VII. 10. DIALECTO VULGAR DE SALAZAR  
(BAJO-NAVARRO ORIENTAL SALACENCO)

Elki zinuen bein kalako ereginzale bat eregitra.

Eta barreatzean granoak, zomait erori zitzan bideala urran, eta shin zitzan zeruko abeak, eta shan ztizien.

Berze batzu erori zitzan arridoyetan, non baitzen lur guti: eta bereala brotatu zizien, egonaz lurra arras me.

Baya elki zenekoz iguzkia, erre zintzan eta eartrik gel-ditu, zeren kasik ezpaitzien errorik.

Berze grano batzu erori zintzan larren artean: eta anditu zintzan larrak, eta sofokatu ztizien.

Berce batzu azkenik erori zintzan lur onean: eta eman zizien frutu, non egun batendako, non irurogei, eta non ogeitamar.

Nork izan zan bearri entendatzeko, entenda zala.

### VIII. 11. DIALECTO SULETINO

Elkhi zen ereilia ereitera.

Eta ereiten ari delarik, azi zumbait erori ziren bide bazterriala, eta zelüko choriak jin ziren, eta jan zütien.

Beste zumbait erori ziren hartokietara, nun ezpeitzien hambat lürrik: eta berhala sarthü zen, lürrak loditarzünik ezpeitzian.

Eta ekhía jaiki zenian, erre ziren: eta zañik etzielakoz, eihartü ziren.

Beste zumbait erori ziren elhorrietara: eta elhorriak handitü ziren, eta itho zütien.

Bestiak erori ziren lür huniala: eta bihi eman zien, batak ehün, bestiak hiruretanhogei, bestiak hogei eta hamar.

Dianak beharri entzüteko, entzün beza.

### VIII. 12. DIALECTO VULGAR DE VIDANGOZ (SULETINO RONCALES)

Erkin zen bein kalako erinzale bat eritra.

Eta granuen barriatian, zomait erori zren bidiari abaño, eta shin zren zeuriko choriak, eta shan ztein.

Berze banak erori zren arridoyetan, nonta baizegon lur chiki: eta bertan bunatu zren, lurra arin zegolakoz.

Baya iguzkia erkitiari, erre eta eshartu zren, zeren kasi ez baizein izorrorrik.

Berze orano banak erori zren shats artetan: eta anditu zren shatsak, eta sofokatu ztein.

Berze banak azkenik erori zren lur onian: eta emon zein frutu, non batarik ein, non irurogei, eta non ogei-taamar.

Biarri dionak entelegatako, entelega tzala.

*Haranburu Altunaren***GERNIKA***Jon Kortazar*

Lan honen<sup>1</sup> aurrean izan dudan lehenengo inpresioa hauxe izan da: zahartuta dagoela. 1977ko Urrian argitaratua izan arren ere, 1980. urterarte ez dut irakurri eta denborak aurrera egin dionaren susmoa gainditu zait. Agian, idatzi zen urtean aurkitu behar genuke arrazoia, eta ez argitaratu zen urtean. Haranburuk kontraazalean jartzen duenez, lana 1974. urterako idatzita zegoen.

Eta komentario hau hasterakoan kontutan hartzen dugu hurrengo hau: dramak errepresentatzeko egiten badira ere, guk irakurri egin dugula, drama ikusteko aukerarik ez bait dugu izan. Ohar hau garrantzizkoa iruditzen zaigu. Gaur ez dakigu eszenario baten gainean lanak inpresio berdina egingo ligukeen ala ez.

Horreia, ba, izan dugun inpresioa gordin-gordinik aztertzen eta irakurketa, gure irakurketa azaltzen saiatuko gara. Eta lanari buruz zerbait jakiteko has gaitezen liburuaren azalean esaten zaigunetik: «Drama eskematiko honetan Euskal Herriaren egoera represiboa tankeratzen da. Hain gertu diren denboretako zoritxarrak nekez gerta daitezke entretenigarri edo teatrogai ba dira beren trajedi kutsuagatik da. *Gernika* antzerki hau euskal teatro berriaren kontexto formalean finkatzen da»<sup>2</sup>.

Firma gabe datorkigu iritzi hau eta, agian, editorearen iritzia izango dugu. Baina ez dugu ahaztu behar, kasu konkretu honetan, editorea eta idazlea pertsona bera direla. Eta guk uste

lan hau deskribatzeko (definitzeko (?), agian) hainbat izenondo-ko agertzen zaigu. Labur-labur esanda, hauxe dateke *Gernika: drama historiko, eskematiko, didaktiko, trajiko, eta, forma aldetik, berria*.

Esaldi laburra, «Euskal Herriaren egoera represiboa» adierazten saiatu den obra batentzat. Represioa esaldiak baino luzeago izan bait da. Eta honekin ezaugarri bakoitza pixka bat ager dezagun.

### 1. — Lana eskematikoa da

Eta ez da nik jarritako ezaugarria, idazleak bere buruari ezarritakoa baizik. Eta «eskema» hitzak zentzu nabari bi ditu; bata restriktiboa: oraindik proiektu mailan dagoena, hots, desarroilo gabea, bere izaera guztia hartzeraz heldu ez den proiektua. Bigarrena, zentzu zabalagoa: adorno gaberik, muin hutsean datorrigun drama, adorno eta gehiegikeria guztiak alde batera utzirik komunikagintza zuzen zuzena lortu nahi duen testua.

Hitza bigarren zentzu honetan erabili nahi izan dela uste arren ere, lana jadanik kontradikzio batetan aurkitzen dugula pentsatzen dut. Kontradikzioa hauxe dateke: egoera konplexu bat (Euskal Herriaren trajeria) eskema baten bidez adierazi nahi izatea. Baina, presupostu hau teoria mailan argi egon arren ere gai, forma eta egitura aldetik eskematismoa gainditzen saiatu dela Haranburu Altuna esan beharra dago.

*Gai aldetik* ez delako era bateko errepresioan bakarrik fijas. Idazlearen pentsakera aztertzeke era bihurtzen zaigu puntu hau, baina horretarako bibliografia eta sakontasun bat behar izango ditugulakoan, aipatu egingo ditugu lan honetan agertzen diren errepresioak: poliziala, turismoaren bitartekoa, politikoa, kulturala, kapitalarena. Hain ezagunak diren klase opresio eta opresio nazionala ardatzetan batu genitzakeenak.

*Egitura aldetik* lan honi, desarroilo dialektikoa eman nahi izan zaio: praxis eta teoria, herri xehe eta jigantearen artekoa. Egia esan, ez dakigu puntu honetan lanak asmatu duen ala ez, egitura arloan agertzen bait zaigu lan hau eskematikoen.

Izenburuan esaten denez, drama hau «Bi partetan berezia» agertzen da. Eta parte bakoitzean lau eszena. Eszenok, nolabait esateko, «soltuak» dira, ez dute arteko batasun argumentalik. Irakurle/ikusleen giroak emanda dator lotura. Lanak duen inguru errepresiboan oinarriturik. Baina lanean barna, Brachten

espresibismoaren teknika jarraitu da. Baina interesatzen zaiguna hauxe da: irakurle/ikusle erreferenteak (idazle eta irakurle/ikusle-  
leen kontestua, giroa, esperientzi mundua, mundu errealak dau-  
kan garrantzia). Hain zuzen, lana giro errepresibo bat (eta agian,  
bakarra) sofritutakoei zuzendua al dago? Eta erreferentea alda-  
tzen denean, inpakto berdina egingo al du lanak?

Nik nire erantzuna dut. Eta gorago esaten nuenez, niri behin-  
tztat, lana zahar kutsuarekin agertu zait. Baina, jakina, hemen  
norberaren gustuz eta subjektibitatez hitz egiten ari garenez, goa-  
zen gauza konprobarriagoak zehaztera.

Dialektika esan dugu; herri xehe eta jigantearen arteko dia-  
lektika. Halaxe da. Eta eskematismoa guk uste, batez ere puntu  
honetantxe agertzen zaigunez, hona hemen eszenaz eszena obra-  
ren egitura:

#### *Lehenengo alde*

- I. — Errepresio ekintza. Jigantea: teoria. Errepresio polizia-  
la. Teoria.
- II. — Opresio nazionala. Jigantea: teoria. Turismoa: opresioa.  
Teoria.
- III. — Opresio ekonomikoa. Jigantea: teoria. Langileen erre-  
presioa. Teoria.
- IV. — Kartzela. Jigantea: teoria. Askatasunaren errepresioa.  
Teoria.

#### *Bigarren alde*

- V. — Gernika. Jigantea: teoria. «Gernikako Arbola».
- VI. — Madril. Jigantea: teoria. Jigantea erori beharko.
- VII. — Errepresio ekintza. Jigantea: teoria. «Gurea da Euskal  
Herria».
- VIII. — Iraultza. Jigantea. Askatasuna.

Guk jarritako izenak direnez, azalpen eta sistematizazio apur  
bat behar dutelakoan gaude.

1) Lehenengo eta bigarren aldeak eszena kopuru berdina  
badute ere, lehenengo aldekoek atal bat gehiago dute: 4 atal,  
lehenengo aldean eta 3 bigarreanean. Hain zuzen, lehenengo al-  
dean praxis/teoria arteko dialektika bitan agertzen zaigun ar-  
tean, obrara bigarren aldean tesis/antitesis/sintesis antzeko egi-  
tura bat jarraitzen da.

2) Bigarren aldeko teknika, beraz, desberdina da. Eszenaka hiru atal emanaz aparte, ez du jiganteak eszenarik bukatuko. Herriaren praktikaren aldeko den koruak bukatuko ditu, askatasunerantz daraman bidea ibilirik.

3) Eskematismoaren ondorioz garrantzitsuenak, nik uste, desarroilo baten falta da. Ekintzek badute progresio bat, baina ez da tentsioz eta klimaxez sortutakoa, elementu txikiez (abestiez...) sortutakoa baizik. Beste era batez adieraziz: eszenen arteko lotura argumentalik, gai aldetiko progresiorik ez egoteak beste era bateko progresio bat eraikitzen bultzatu du lana: elementuen pilaketa edo matizazioak sortutako progresioa.

Elementu progresioak lirake, batez ere, hurrengo biok: Jigantearen loa, eta kantuen progresioa. «Gernikako Arbola» gurari foralen ezaugarri badugu, «Gurea da Euskal Herria» beste gurari radikalagoena bezala agertu nahi izan da. Hautapena diskutigarria iruditu arren ere, abestien kalitate estetikoari begiratuz, ez dago dudarik horrela egin nahi izan dela.

Lanaren eskematismoa gainditzeko hirugarren maila, arlo bat bazegoela esan dugu. *Forma aldetikoa*, hain zuzen. Konplexitatea sinbolismoaren bitartez lortu nahi izan da arlo honetan. Sinbolismoa ez da agertzen Jigantearen eta txapelen bitartez egiten den irudietan bakarrik. Irakurle-ikusleak arintasunez interpreta ditzakeen beste hainbat elementu ere aurki genezake. Pertsonaien kontzeptzio eskematiko eta arruntean ere badago topifikaziorantzako joera orokor bat. Labur-labur esanda, forma aldetiko eskematismo lana «kontexto formal» berrian taiutuz lortzen dela esan genezake. Puntu hau, dena dela, geroxeago izango dugu aztergai.

## 2. — Lana drama historiko eta trajikoa da

Eta esan beharko, ez dela esaldia osoz egia. Lana antzerkia da, zalantzarik gabe, eta historikoa delakoaren puntuan ere duda guti ditugu. Dudagarriagoa egiten zaiguna «trajedia» hitza da. Eta hitz hau erabiltzerakoan, guk uste, elementu bi nahastu dira: Errealitatea eta Fikzioa. Errealitatea izan dugu urteotan trajikoa. Baina lan honetan distantzia bilatu nahi izan da, eta ekintza zatikatuen bitartez dramatismo gutti aurki dezakegula uste dut, eta trajeriaren arrastorik are guttiago. Berriro esanda, ekintza, planteamentu eta hitzaren arteko desoreka dago (praxis eta teoria izendatu ditugu beste toki batetan). Hain zuzen,



pertsonaien despertsonalizazioak, sinbolizazioak, orokortasunaren alde jokatu badu (oso teknika ezaguna bestalde, literatura didaktikoa egin nahi denean, eta euskal literaturan, norbait aipatzekotan, T. Agirrek jadanik erabilia, hainbat eskematismo gabe), obraren barne tentsioaren aurka doala uste dut, bere konzeptzio lar intelektualean. Ez dezagun ahaztu Jiganteak asperraldiz ahoa zabaltzen duela obraren hainbat pasartetan.

### 3. — Lana drama didaktiko bat da

Eta orain bai, hitza geurea da, eta ez idazleak berak jarria. Lanarekin «Euskal Herriaren egoera errepresiboa tankeraten da». Baina lanaren helburua ez da geratzen egoera baten erakusketan bakarrik: irakurle-ikuslearen erantzuna eskatzen du, eta herri xehearen aldetik parte hartze bat<sup>3</sup>. Egoera erakutsi bakarrik ez, mezua ere (ideologikoa, agian) erakutsi nahi du. Eta lanak tonu didaktikoa duela ez da, ordea, hipotesis mailan bakarrik agertzen.

Tonotik hasi baino ez dago. Tono zuzen-zuzena erabiltzen du Haranburuk. Irakurle-ikusleari hainbat konplizitate kinu egirik. Pertsonai eta Jiganteak erabiltzen dituen klitxe ugariok ditugu kinuok:

«Gora heriotza» (16. or.)

«Ordena lortzeko

Beharrezkoak dira gartzelak» (20. or.)

«NO PASARAN!!!

Kanpoan denak komunista eta masoi dira» (24. or.)

«Lanak plusbalia produzitzen du» (39. or.)

Tono zuzen horren ezaugarriarik nabarmenena joskeran daukagu. Normalean esaldiak ximpleak dira, eta laburrak, argiak. Mezua zuzena, borobila, matizaziorik gabea. Horrela, didaktismo joera indartu egin du Haranburuk, xepika kutsu bat lortuz, nik uste.

Baina matizazio falta honetan, nik behintzat, arrisku bat aurkitzen dut. Egia esan, eta nik ikusten dudana ikuspegitik, obra mezuari begira, mezuari zuzendua dago. «Sozial» kutsu batekin. Eta guzti honek, arrisku bat seinalatzen du: obra inguru sozialari begira badago, gizarteari begira, urgentzizko gai bat bezala, erreferente hori aldatzen denean, obrarekin zer?

#### 4. — Euskal teatro berriaren kontextu formalean finkatua

Forma kontzeptua era bitan ulertu beharrean aurkitzen gara kasu honetan. Alde batetik, antzerki moldatzearen formari dagokion bezala, eta bestetik, estilo bezala bereziki ulertua. Tratamendu ezberdina izan dituela lan honetan uste dut, eta lehenengoa, moldaketa, desarroilo pentsatu baten bitartez indartua irten bada, bigarrena askoz ere ahulago ikusten dugu.

Kontestu berri horren elementuak ditugu hain zuzen aipatu ditugun pertsonaien despertsonalizazioa, adierazgarri ximpleen erabilera, eszenatokitik desagertzerik ez izatea aktoreek, pantomima eta gorputz espresioaren erabilera, maskaren jartzea, eta Jigante, musika, eta dantzen agerpena, eta baita, pertsonaiak publikoari zuzenki zuzentzea:

«Jaun andreak:

Ikusgarria da abioien indarra» (57. or.)

«Publikoratz joanaz

6 eta 4

Historiak eskatzen du.

Gizonek nahi dute.

Denboraren legea da». (71. or.)

Elementuen bilketa hau Haranburuk eszenak hasi aurretik agintzen dituen oharretik hartua dago. Guk aipatuak izan ez arren, beste elementu teatral batzuekin osotu dugu zerrenda.

Elementuen desberdintasuna oso nabaria denez, ez dugu puntu honetan beste aipamenik egingo. Gure ustetan garrantzitsuenak direnei azpimarkatze ttipi bat eginez bukatuko dugu.

a) Pertsonaiak funtzio bihurtzen dira eta ez dute nortasunik agertzen. Haragi gabekoak ditugu. Funtzio hitza eszena aurreko oharretan aipatutakoa dugu (9. or.). Horrela, pertsonaiek funtzio ezberdinak osatzeko bidea zabalik dute. Pertsonai batek obrak behar dituen papel guztiak joka ditzake. Pertsonaien *funtzionalitatea* dugu, ba, lanean ikuspuntu garrantzitsuenetarikoa.

b) Ezaugarri txikien zentzu sinbolikoa. Sinbolismo edo interpretaketa zabal bateranzko bidea pertsonaien multiplizitatez lortua dago. Baina adierazgarria iruditzen zaigu beste esalditxo hau ere: «Funtzioaren aldaketa adierazteko aski izanen dute adierazgarri ximpleren bat erabiltzea» (9. or.). Sinboloak adierazgarri ximpleak dira. Detalle txikiak nahiko dira. Inportantea

iruditzen zaigu, honek lanaren errepresentaziorako suposatzen duen erreztasunagatik. Ekonomia aldetik ez du gastu handirik eskatzen eta talde amateurrek antzezteko aproposa dateke. Eta gainera, indartua agertzen da funtzio didaktikoa. Zentzu berean eta lanaren forma «ausartia» azpimarkatzeko, edo bere kontestuan jartzeko begira dezagun akotazio hau: «(maskarak, agian)» (9. or.). Ez al da kontestu formalean pausu handirik eman nahi, «agian» horrek salatzen duenez? Dena dela, maskarak sinbolizaziorako bide dira.

d) Obraren modernutasunarekin jarraituz, azpimarkagarriak ditugu aktoreen pantomima eta gorputz-espresabideak. Argi dago, ezaugarri hau izan dugula, Grotowskiri esker, teatro moderno guztiaren iraultz puntu bat.

e) Sinbolismoarekin oso lotuta dugu eszenarioaren taiuera. Alde batetik, eszenak espazio huts bat adierazten du, edozein toki izan daiteke eszena, Pastoreleen tradizioaren barnean bezala. Eta bestetik, espazio horretan elementu adierazgarri eta sinboliko bakar bat agertzen da: «Gernikako arbola adieraz daiteke pinturaz edo benetako arbola baten bitartez» (10. or.).

Jigantearen irudia aipagarria dugu halere. Bere marka sinbolikoak ezagunak ditugu. Baina kointzidentzi bat aipatu nahi nuke. Kilikilariak ere beren *Tripontzi Jauna* obran horrelako zerbait erabiltzen dute. Agian, Haranburuk eta Kilikilariak gure herrietako jaietan hain ugariak diren Jiganteen tradiziora joko zuten pertsonai honen forma taiutzerakoan.

f) Azkenerako utzi dugu teatro berrian hainbat aztarna utzi duen teatro herrikoi zaharra. Pastorelek obra honetan duen influentzia nabaria dela uste dugu. Bai espazio hutsari bagazokio, bai musikaren tokiari gagozkiolarik. «Trikitixa bat edo txistulariak agerian egonen dira eszenaren albo batetan... Egokia litzake, pastoraletan bezala estrado batetan musikoak jartzea» (10. or.).

Tradizioarekin jarraituz, Jigantearen kasuan ere iturburua herrietako jaietan egotea, ez dut uste hipotesi ausarta denik.

Bigarren lekuan aipatu dugun estiloari buruz, berriro aipatuko ditugu gorago jarritako ezaugarriak: Tono epikoa, esaldi ximple eta laburrak, topikoranzko joera.

Tono epikoen frogak ditugu, nik uste, lana bertsoz idaztea, librea dugu bertsoa, enkabalgamenturik gabe —bertsolarien eskola tradizionalari jarraituz—, esaldiak soilak eta baiezkoak izatea. Guzti honek, obrari zalantza gabeko tonu epikoa ematen dio. Gorago esan dugunez, pertsonaiek diotena hartu edo utzi

beharko dugu. Eta hau, hain borobil, arriskutsua da, manikeismo eta mitinismo bide gutti geratzen da hortik jarraituz gero. Manikeismoaren ideia honi pixka bat eustearren, seinalatu nahi nuke klitxe eta topiko gehienak Jigantearen ahoan jarrita ditugula, Jigantearen irudiarekin karikatuta bat egiteraino. Bai, zalantzarik gabe, zorioneko eskematismo hori hautsi egin da Jigantearen kasuan, karikaturan jausteko. Dena dela, tonoko epikoak indar berezi bat lortzen du estilo mailan, zihurtasunak ematen duen inpresioa, hain zuzen. Tono epiko berbera damaiote eszenek. Eszenaren kontzeptzioa, esan dugunez, eszenen zatiketara oinarrituta dago, agian Brecht-en expresionismoaren aztarnak jarraiturik.

## 5. — Laburpen gisa

Bukatzeko, laburpen bezala, *Gernika* teatro lana desorekatua ikusten dut, zahartua ere bai, eta ximplekeriari emana pasarte bat baino gehiagotan. Desoreka garrantzitsuak egon arren ere, bat seinalatuko nuke garrantzizko bezala:

Itxura berri eta gai aldetiko manikeismo zaharraren arteko desoreka. Mezu ideologiko bat emateko forma berriak aukeratzek ez du obra salbatzen. Eta nahiz eta itxura, egitura, sinbolizazio eta estilo mailan azertuak egon, eskematismoak kalte larri egin dio lanari. Gure herriko egoera ezin izango dugu inoiz eskema baten bitartez azaldu, nahiz eta eskema horretan klase borroka eta nazio arazoa baturik egon.

J. K.

<sup>1</sup> HARANBURU ALTUNA, L.: *Gernika*. (Drama historiko bi partetan berezia). Haranburu editorea. Kriselu 29. Donostia 1977.

<sup>2</sup> HARANBURU: op. cit. kontraazalean.

<sup>3</sup> Helburu hau hipotesi mailan badarabilgu ere, oso argia dela uste dugu, eta azterketatxo honetan zehar frogatuaz joango gara inpresio hori.

## Agustin Zubikarainen *Esan eta Esango*

Jon Kortazar

Agustin Zubikarai: euskal antzerkian izen bat egin duena, bere azken urte astitsuetan nobela arloan saiatu da. Eta dirudienez, horrela agertzen bait da egunkarietan eginiko elkar hizketetan, nobela nahikotxo du idatzirik, eta Agustin Zubikaraik Bizkaian antolatzen diren sariketa bakoitzara aurkezten ditu argitaratzeko eta bide batez sari bat jasotzeko, eta saridun gertatu da sarritan.

Jokaera honen fruitu dugu *Esan eta Esango*<sup>1</sup>: sariketa baten (1978ko «Resurrección María de Azkue»-n hain zuzen) lehen saria jaso ostean argitaratzen dena.

Sariketa irabazi eta gero argitaratu: hona Zubikaraik aukuratu duen bidea. Nahiz eta berak lehenengoz argitaratu zuen nobela (*Bale denborak*)<sup>2</sup>, guk dakigunetik, ez zen inongo sariketara aurkeztu.

Gaingiroki begiraturaz gero, *Esan eta Esango* kontakizun laburren pilaketa dugu. Generoari dagokionez, ipuinek eta nobela laburrek osotzen duten liburua. Baina zalantza gabe, hori baino gehiago dugu liburua. Zihur asko, *nobelagintza era tradizionalaren formen jarraipena*. Hitza aipaturaz batera, *tradizionala* zer den zehaztu beharrean aurkitzen gara. Eta izenburu horren pean jar dezakegu ezaugarri pilo bat. Baina geroago zehaztuko dugunaren aginduarekin, hona hemen Agustin Zubikarainen nobelagintzari ondo dagozkion ezaugarri bi: Txomin Agirrerren in-

fluentzia nabaria, formaz eta presupuestoz, eta nobela errealistaren jarraipena.

Argi dago Zubikarairen kasuan ez direla agertzen planteamentuok XIX. mendearen amaieran agertzen ziren moduan. Denborak ez du alferrik aurrera egiten. Baina Zubikaraik duen kontaketa kontzeptzioa ez dago narrazio tradizionalatik urruti: Errealismo klasikoaren bidetik abiatzen da.

## 2. — Abiapuntua: Lokalismotik historizismora

Narratiba honen abiapuntua bikoitza da: Toki eta denboraren tratamentua. Toki kontzeptzioa, sistematikoa da Zubikarairen orainarteko lanetan. Idazlea ondarrutarra dugu eta liburu honen ekintzak Ondarroa eta inguruetan gertatzen dira. Egia esan, eta hau ahaztu ezina dugu, Ondarroako ingurua itxas zabalak ere bada. Zubikarairen lanetan Ondarroatik irtetzerakoan, itxasoarekin zerikusiren bat duen beste herriren batetan aurkituko gara. Kasu konkretu honetan Bizkaiko itsasertzeko hainbat herri agertuko zaigu. Bermeotik hasi eta Ondarroaraino eta hemendik aurrera Gipuzkoako kostaldekoak ere. *Bale denporak* nobelak ere horrelako tokiak erabiltzen ditu. Baina, itsasotik urrutirago ere joan daiteke; hona hemen hirugarren toki motak: noiz behinka Rotterdam-eko jazoeren bat kontatuko digu Zubikaraik (136. or.).

Honela, badugu Zubikarairen nobelagintzako tokien ezaguerak: Ondarroa, batez ere, eta gero, arrantzaleen eta marinelen itsasoa (biak ez bait dira berdinak). Arrantzaleek ekintzetan parte hartzen dutenean Terranova aipatzen zaigu, eta marinelak agertzean, itsasoarekin zerikusirik duen estranjeriko hiriren bat.

Datuok kontuan izanik, Zubikarairen toki kontzeptzioa oso lokalista iruditzen zaigu. Ondarroa agertzen zaigulako batez ere. Lokalismo hori era bitan tratatzen da nobelan: Ondarroaren gorapen historiko bat eginik eta, bigarrenez, lokalismoari aire teluriko, mitologiko, epiko bat emanik. Eta ez nabil punturik esajeratzen. Ikus «Ondarretik Ondarru'ra» (13-27. or.). Forma aldetik oso arraroa da ipuin hau: bertso libreko prosa rimatua; hitz lauz gabe, errimari lotua. Arrarotasun honen arrazoia tratamentuan datza. Dena dela, tratamentu honek desoreka bat sortzen du gaiaren (Ondarroaren sorrera mitikoa) eta formaren (mitiko-epiko) artean.

Denborari bagaiozko, ordea, Zubikaraik ez du hurbila,

oraingo denborarik aukeratzen bere nobeletarako. Iragana, pasatutako denbora du kontakizunen gai. Agian, hau dugu Zubikarairen nobelagintzaren balore bat: historia, bere herriko historia inspirazio gai erabiltzea.

Baina joera honi buruz ohar bi:

1) Historia hori<sup>3</sup>, lokalista eta historizista da. Adibidez, Kanalakoek Drake pirataren aurka darabiltzaten borroka oso leku konkretuetan gertatutakoak dira. Eta historizista da: ekintzak direlako kontagai eta ez historia eta herria bera. Goiko adibidearekin jarraituz, «Kanalako ikaragarriak» ipuinean, Drakeren ekintzez Bizkaia guztia bildurrez zegoela pentsatu behar dugu. Baina, benetan, nahiz eta leku desberdinetako gertaerak kontatu (eta berriro azpimarkatuko dugu idazleak batez ere *gertaerak* kontatzen dituela) ipuina irakurriz, ez dugu esan nahi pertsonaiengan bildurrik sentitzen denik, bai, ordea, larritasun bat. Gertaeren maila sinboliko posiblea Zubikararik ez du ia inoiz zaintzen. Eta orduan gertaerak gertaera huts, anekdota, huskeria dira.

2) Nahiz eta esplizitoki agertu nahi ez, egia esan, iragan horrek badu zentzu didaktiko bat. Ez da agertuko T. Agirreengan agertzen zen bezala mezu moralez beterik, baina iragana positibotasunez juzgatzen da liburu honen hainbat pasartetan, nahiz eta honelako esaldi neutroak agertu:

«Beste giro bat zan.

Zelako?

Orduko!» (129. or.)

«Umia! Umia!» deitutako ipuinean, ordea, egungo gertaera bat, egungo izaera, iraganako izaera bati kontrajartzen zaio; ondorioz, tono melankoliko batetan honela bukatzeko: «Lengo giroa zan» (136. or.). Berriro etorriko ez dena, jakina. Eta beste ipuin baten amaieran: «Ori lengo giroan zan» (138. or.).

Historizismoak tratamendu ezberdinak ditu lan honetan zehar: balio du anekdotak jasotzeko (gorago ikusi dugu nolako kalitatez), edo, ekintza nagusia, dato historikoen bidez adornatzeko. Eta honetan, jatoriasunik nabaritzen zaio, gazteok ahaztuta edo ezagutu ere ez dugun mila detaile herrikoi ateratzen ditu eta: bai abesti herrikoiak (114. or.), bai herriko mitoak (Ondarroako Kortxeleko Manu ezagunak) edo beste horrelako bitxikeria politik: Herrietako ofizialak: «Kapitanak Mundaka'n. Eta kapitanesak be bai. Eta Lekeitio'n. Maiordomuak Elantxo-

be'n. Erreposteruak Busturi'n» (136. or.). Edo seme alaben deiturak (99. or.).

### 3. — Desarroiloa: Kontakizuna, Ikuspuntua, Pertsonaiak

Zubikarairen planteamendu narratiboak oso tradizionalak dira. Ekintzak egtura, kontakizun lineala du. Linealtasun horrek, ordea (eta ez dezagun ahaztu honelako teknikak nobela errealistetan oso erabiliak direla), ez du oztoporik jartzen leku eta denborazko jauziak egin behar direnean. Jauriak, dena dela, oso kasu arrarotan egiten dira, eta gainera irakurlea oso ohartua geratzen da, espreski ohartzen bait zaio kontakizunaren barna jauzia emango dela. Adibidez: «Guazen atzera. Bost egun atzerago» (52. or.).

Eta linealtasunak ez du oztoporik jartzen aritik kanpo diren pasadizuak kontatzeko unean.

Kontakizunari dagokionez, esan behar orojakile dugula kontalaria, kontalari tradizional baten aurrean gaudela. Eta bego hemen froga bezala esalditxo bat: «Igarri eban «Saliñak» gauzak garratzuten asiko zireala» (96. or.). Kontalaria pertsonai barnean sartzen denaren adibide argi bat.

Ez dugu puntu hau gehiago komentatuko. Beraz, kontakizunaren eskema tradizionalarekin batera dator ikuspuntua.

Zubikarairen lan eta planteamendu honen akatsik garrantzitsuena, eta, nik uste, planteamendu tradizionala jarraituz beste era batez molda ezin zitekeena, pertsonaien tratamendua da.

Pertsonaiengan aurkitzen dugu lanaren arazorik handiena. Pertsonai guzti-guztiak lauak dira, izaeraz aldakuntzarik ez dutenak, baina hori baino gehiago ere badira: ximpleak, konfliktu bakoak. Ez dira gataskan eta zalantzan jartzen; ez dute izaera dialektiko bat, bere buruarekin eta bere inguruarekin dialektika bat aurrera eramateko ez dira gai.

Hori dela eta, interesgarriztat ematen dugu «Etxe utseko Akiliñe» kontakizunaren protagonista, eta «Peru diru» pertsonaiak aztertzea. Hamabi seme-alaba izan ostean, bere senarra, seme nagusienetariko bat hil, bere seme txiker tontua balkoitik behera jausi arren ere, Akiliñek bere izaeran jarraitzen du: «Kalera joaten zan, auzoko etxe eta erriko zeregiñetan orduak egitera, diru pixkat irabaziz, edo ta janaritan zerbait lortuz, Peruk itxasotik ekartzen ebana al eban eran biribildueta ugaritu eta sukutzeko asmo eta garrez. Eta «Jaungoikoaren graziz» bere



«ollarra» (*senarraren ezizena*, alegia) zintzoaren bitartez ekarritako seme alabentzako lapikoa egunero ipini eta gertu bearreko alegiñean» (114. or.). Larria izan arren egoera ez dago ez trajediarik, ez konfliktorik. Berean jarraitzen du andreak. Eta pena da, emakume tipo legez, interesgarria iruditzen zitzaigun eta.

Beste horrenbeste gertatzen da Peru Diru pertsonaiarekin. Eta ipuin bietan beste puntu komentagarri bat. Kasu bietan ipuinak *ondo* (?) bukatzen dira, amaiera zoriontsu bat (!) dute, sinesgaitza egiten bazaigu ere. Akiliñeren kasuan, aurrea irtezea nahikotzat jotzen delako nolabait, eta Peru Diruren kasuan konponketa harrigarria izan arren ere, ezkontza eta guzti dagoelako. Amaiera zoriontsu bat lortzeko ekintza bortxatua dela argi dago kasu honetan.

#### 4. — Gakoa

Planteamendua ikusi ondoren, galdera bat otutzen zaigu: Zein da nobela era honen funtzioa, sariketa bat irabazi duela aparte utzirik, klaro. Funtzio estilistikoari buruz ari gara. Erantzuna ez da batere argia niretzat.

Alde batetik, aitortu behar, lan hau ez da interes handiarekin jarraitzen. Planteamendu nobelistiko ximple hau pasatuta dago, jadanik, agian.

Baina bestetik, gorago esan dugunez, Zubikarairen planteamendu errealistak baditu bere bereak diren ezaugarri bi. Lehenengoa, mezu moralik ez agertzea. Badirudi Zubikarai kontatzeak sortzen duen plazerragatik ari dela gauzok kontatzen. Puntu honek T. Agirrereren nobelagintzatik urrundu egiten du. Eta gainera, badago sexualitatearen tratamendu bat. «Biguna» agian. Baina alde honetatik sinesgarriak dira bere pertsonaiak: Peru Diruk ezkontzatik kanpo alaba bat izan ostean, lehenengoko emakumea utzi eta berriro lapurretan hasten denean: «Etxea aterpetzat emakume a laguntzat» (58. or.) eskatzen du jornalez ezer baino arinago. Euskaldunak Rotterdam-en nesketan doaz (136 or.). Hau T. Agirrerengan ez zen, jakina denez, inondik ere agertzen.

Distantzi kutsu bat ere gordetzen du Zubikaraik gaiak tratatzerakoan, historiagile (kronista hitza hobe doakio) bezala. Ekintzak gertatu ziren bezala kontatzeko ahalegina egiten du.

Agian, lan honek badu sustraian «balore» bat. Zubikarairen

lanak badu irakurketagai bihurtzeko abantailik: narrazio ximpleak, hizkera jatorra.

Badu lan honek jende xehearekin hurbiltasun bat: badu »kistch» tradizionalaren usaia, melodramatismo ukitua, eta batez ere, tradizioetik irtetzeko ahaleginik ez: serialen gusto errepetitiboa ezin zaio ukatu. Obra honek irakurle posible konsumisten gusto estetikoak ez ditu inoiz zalantzan jarriko<sup>4</sup>.

## 5. — Hizkera

Gure azterketatxo hau bukatzeko, Zubikarainen hizkerari lotuko gaitzaizkio orain. Eta T. Agirreren kasuan gertatzen denez, hizkerak, euskararen jatortasunak salbatzen du, batez ere, lana.

Teknika zahar bati lotuak agertzen diren edadezko idazleak euskara zoragarria erabilten dutela ezin ukatu. Eta Zubikarainen kasuan aipamen bi:

1) Euskara jator batez baliatzen dela uste dugu: jatortasun hitz horrekin zera azaldu nahi dugu: esaerak, joskerak, euskararen muinaren forma bereziak adierazten saiatzen den estilo bat dela. Ez da bakarrik esaeren kontua: «Alako txalorik, Ango gora, irrintzi, eta gelditzeko agerpenik!» (97. or.). Batez ere joskeraren erabileraren kontua da. Horrekin batera, hizkera mota ahaztuen bererabilera: «Sortzeko izenak baiño ezagun eta ugariago dira deituretakoak, izengoitiak, edo des-izenak» (47. or.). (eta elementu horrekin baliatuko da pertsonaiak izendatzeko). «Orrelaxe, arraiñen irudiz edo zeregiñen itxuraz kontaten dituez itxas errietan «Jaungoikuak bialdutako» umeak» (99. or.).

2) Elkar hizketa bereziak dira Zubikarainen nobeletan agertzen zaizkigunak. Biziak, arinak, elipsiaren bitartez josiak, eta, estilizazio literario baten adierazgarri, prosa rimatuaren bitartez eginak.

Hizkera dugu, bada, lan honen punturik aipagarriena. Eta arriskugarriena ere bai. Txomin Agirre bizkaiera osotu baten idazten saiatzen bada, Zubikarairengan beste tendentzi bat nabaritzen da. Baturantz goazen une honetan, Zubikarai kostaldeko euskaraz baliatzen da. T. Agirreren ahaleginen jarraipen bat baino gehiago, erregresio bat bezala agertzen zaigu honen euskara lantzea.

<sup>1</sup> Agustín ZUBIKARAI: *Esan eta Esango*. Ediciones Vascas. San Sebastián 1979.

<sup>2</sup> Agustín ZUBIKARAI: *Bale denporak*. Leopoldo Zugaza. Durango 1978.

<sup>3</sup> Liburuaren hasieran ekintzak «asmatuak, gertatuak, irudituak» direla oharitzen digu, baina izaera horrek ez du aldatzen historizismoaren inpresioa.

<sup>4</sup> Duda gabe, Zubikarairen planteamendu narratiboak, ekintzen kontzeptzio eta hainbat elementu (amaiera zoriontsuak, pertsonai ximpleak) denborarekin fijasuta geratu diren errealismotik datozen elementuak dira. Ikuspuntu honetatik, Zubikaraik darabiltzan gai kostunbrista-realista horiek sub-literatura batetik ez dabilta urruti. Baina jakina, hizkuntzak salbatzen ditu bere obrak sub-literatura arlotik.

## Euskalarien nazioarteko jardunaldiak

Joxe Azurmendi

Aspalditxo paseak eta ahaztuxeak daude apika, egun ihes haien kronika eta iruzkin xeherik egin nahi izateko oraindik, baina JAKINEk erreparatu ere gabe ezin baztertu ahal adina-koak izan ditugu ihardunaldiok, lerro berant apalok konstantzia uzteko besterik balio ez balezate ere: euskalari eta euskaltzale biltzarren mundutxoan zalantza-gabe aspaldi honetako jazorik arrabostatuena berak izan dira, mass mediaen erantzunaren aldetik: biziki edukitsuak, pentsatzen dut, eta zientziari lotuak, gaien nahiz trataeraren aldetik; organizazio aldetik ere ohituta ez gauden egokitasunezkoak, hotsa dabilenez; esanahitsuak, elkartu ahal izan dituen jakintsuen aldetik; itzaropengarriak, ireki dituzten perspektibengatik, egiaz hasiera bat izan badira behintzat, segida ekarriko dutenak, ez ondorio gabeko argitxakur hutsak euskal ilundegian. Aurretik esango dut, egun haietan Euskal Herritik urrun suertatu nintzenez, bertan egoterik ez nuela izan eta prentsa bidez —aski kanpotik, beraz— jarraitu diodala ihardunaldion desarrolloari.

Hasteko, euskal baldintzetarako esan beharra dago kongresu honek kontsolagarriki ongi funtzionatu duela mass media aldetik. Funtzionatu egin du —ez da gutxi— eta ongi ezezik, bortizki funtzionatu du, bertokoez gain urutiagoko prentsa medioren batzuk ere interesaraztea lortuz, euskararen arazoa bai kanpoan eta bai geure etxean itotzen duen ignorantzia eta arduragabeziazko zerkoa zertxobait altxatuz. Lehengo zahar ugariez gainera, zor

berri batzuk gehiago baditu Tovarekin, adibidez, herri zorren ordainzale txar honek hemendik aurrera.

Euskaltzale sofritu, gogoz baino beharrez apalagoak lizentzi genuen kongresu honen kariaz alarde eta haizekeria piska bat geure buru tristeon gainean, triunfalismo apur bat egunotan (errebantxa keru zerbaitez?) konprenigarria bait da kanpo alde-ra, agian taktikoki probetxugarria ere bai. Halare, programari begira eta, prentsan ibili dena ere letra arteko zirrikitueta apur bat miatuz eta, badirudi euskarak, edo euskararen zientziak, edo. berdin da, euskaldunok, oraingoz podio internazional batetan gailardiaz ateratzeko ez dadukagula izar eder bat besterik... zeru ilunean. Komunikazioak eta presentatzeko bai. jakina. Hori libre zuen edozeinek, Hain libre, nonbait, komunikazioen zerrendak saski-naski mordoilo, irregular baten inpresioa uzten bait du, ez nondik eta ez nora. Bestela ere biltzar hau euskalariena izan da, izen horrekintxe, agian gutxiago euskalaritzarena, eta euskalaritza barruko ezerena ez noski, edo nahiago bada edozerena. Lehen kongresu internazional honetarako programa bat ala zaku bat egin ote genuen, geratu nintzen, ala justu zaku bat programatu nahi izan ote zen espreski. Eskaparatea eskusiban euskalari arrotzentzat erreserbatua egon da, euskalari euskaldunei bigarren mailan tokatu zaie lan egitea. Beharbada horregatik edo, apenas esan daiteke kongresu honek aktualitate ikaragarriko gaiak erabili dituenik.

Bilerak eta ibilerak egunean-egunean nola ibili ziren, komentarioak eta kritikak eta erantzunak, hor geratu dira prentsan, antolatzaileek hurrengoan gogoan hartu nahi badituzte. Han-hemen azaldutako kezka edo kritikarik gehienak, Jose Ramon Etxebarriak *Egin-en* ongi samar biltzen zituen, nik uste. Anekdota aparte, laster eramango bait ditu haizeak, sentsibilitate (politiko) minbera batzuk ezin aparte utz bagenitza ere tamalez, liberaltasun pittin batekin, kolaborantza izpirituz jokatzuz, kongresu honen martxan egin diren esperentziak lezio bat izan daitezke hurrengorako.

Orain eta hemen, kongresuaz beraz baino gehiago, inguruan ibili denaz aritu nahi nuke, prentsan adibidez, despiste haundi samarra egon den inpresioa daukat eta. Zertarako zen justu eta zehatz kongresu hau? Show bat ote zen? Prentsan ibili direnek bederen ideiak oso garbi ez ote zituzten nago. Jakin du kongresu honek, esan dut, jakin du sozialki inziditzen. Baina kezkatxo bat geratzen zait, anekdotikoan galdu ez ote den inzidentzia hori. Asko eskatzea al da zientifikoek kongresu bat eta zinema festival

bat ez konfunditzeko? Kongresu batetan kongresua bera da lehenengo vedettea. Ikerketa, estudioa. Kongresu honek mugarri bat adieraz dezake gure historian: agian horixe da euskal herriak gutxien ulertu duena. Baina agian abuztuak Euskal Herriaren bezkoa du gehiago ezin ematea. Eta agian kongresua kongresu baten eginkizunetara garbi ez mugatzeak ere sortu du hori.

Interes bat kritiko guztien eta komentarista guztien testuetan nabarmentzen da: euskararen *bizitzaren* kezka. Ikerketak ongi daude, baina euskararen bizitza indartzeko medio bezala hartu behar ditugu, —esango zuen batek—. Elitismoan erortzea eta adarretatik ibiltzea ere norbaiti iruditu zaio. Soziolinguistikako biltzar urgente bat eskatu du besteak. Guzti hau Euskaltzaindiko diruen eralguntzaren kontuarekin eta prioritateak erabaki beharrekin ere lotzen da.

Uste dut honekin problema zahar bat jotzen dugula berriro, gure «teorizaleen» eta «praksizaleen» betiko teinka, betiko problema bera biltzarren, Euskaltzaindiaren eta euskaltzain izendapenen, ikerketen, teoriaren eta praksien eta edozeren problema zentrala gure artean. Horregatixe ere soluzio sinplista batekin despatxatzerik ez dagoena.

Bistan dago, helburuak beti ere euskararen bizitza indartzea izan behar duela. Baina bistan dago edozeinentzat, vitalismo/irrazionalismo edo espontanismo ezaguntxo baten praktikanteak ez bagara behintzat, zientziak ez digula euskara indartzen lagundu baizik egingo. Alderantziz ere esan bait daiteke: euskara nekez indartu ahal izango dugula, zientziaren laguntzaz ez bada.

Eta, halere, ez daukagu estudioaren eta zientziaren kontzeptio utilitarista, inmediateista motz-motzez ibiltzerik guzti honetan; ikerketa bakoitzak segituan konklusioak ekarri beharko balitu bezala, kalera lasterka joan eta bertanbera aplikazioak egiten hasteko. Ponentzia bakoitzaren ondoren, honek zein aplikazio dauka?, galdetzen badugu, oso urrutira ez gara inoiz helduko. Alkimiaraino agian bai. Zientziaraino sekula ez. Zientziak, izan ere, lehenengo zientziak dira, eta aplikazioak beste zerbaite dira, etorri ere gero datoz, geroago, agian urteak geroago. Gizonari bezalaxe, zientzietan ere gustatu egiten bide zaie libertate piska bat eta autonomia piska bat, bere desarrollo normalerako. Loreak astindu eta bota egin zituenak, ordea, ez du gerezirik ere jango gero. Eta euskararen zientzian loreak («elitismoak», ikerketa «abstraktuak», edo direlako horiek) ez daukagu inolaz ere gehiegi: hain gutxi daukagulako zer diren jakitera iritxi gabe gaude oraino seguruenik.

Bihoaz oharrok, Euskal Herrian nik zenbait «pragmatismori» eta zenbait «praktikori» estudioaren, teoriaren, zientziaren edo ikerketaren kontzeptio arrastakari, merkatari baten susmoa hartzen diodalako. Baina, oharron ondoren, problemari ez diogu oraindik egiaz erantzun.

Hiru zatitan banatuko dut pragmatismoaren eta premia praktikoen arazo hau. Eguneroko premiei gagozkiela, alde batetik euskara batzeko eta finkatzeko lanak daude: euskararen beraren ikerketa asko eskatzen dutenak, sintaxiaren azterketa etab. (baina lehen-lehenik ikerlari euskaldunei berei tokatzen zaizkienak, nik uste, ez herbesteko euskalariei). Bigarren, euskara irakasteko lana dago («euskaldunberriak»): metodo egokiak asmatu, etab., hori ere gehien-gehienbat hemen egin beharko bait da, ez beste nonbait. Eta, hirugarren, oraindik, nolabait esan, egin egin beharko dugun euskara: kimika, esate baterako, edo Administrazio hizkera, gehienetan egin eta gero praksira eramateko lana ere bai bait du (UZEIko lanak ikastoletara eramateko pedagogia). Seguruenik hementxe izan dezakete etxeko euskalariék kanpoko laguntzarik gutxienean (ikerketa mailan, zeren eta bestela, esperentziak trukatzearen mailan, laguntza baliosak ari bait gara ikusten). Kongresu internazionalen eginkizuna ezin izan liteke geure lana besteek egin diezagutela. Hori, ez Soziolinguistikakoek eta ez beste inolakoek ere egingo ligukete. Kongresuak, linguistikakoak nahiz Soziolinguistikakoa, beti ere informazio mailan mogituko dira, teorikoan hortakoz, eta ez soluzioak praksira eramatearen mailan. Kongresuei ez dago eman ez dezaketenik zergatik eskatu. Esan nahi dut, nire ustez absurdu hutsa litzatekeela, kongresu bat, natura honetakoa, gure eguneroko premiei lotu-loturik ibil dadila eskatzea.

Gauzak horrela, ikustekoa litzateke, eta hitz eginez kolejialki erabakitzekoa, kongresuok nondik orientatu nahi diren.

Kontua da, ea baterako ala besterako premiek eta urgentziek planteamendu alternatibista bat exijitzen ote diguten. Hau da, metodologia onak prestatu beharrak, esate baterako, ikerketa kongresuak oraingoz baztertzea eskatzen ote digun. Eta nik ezetz uste dut. Euskaltzaindiak kongresu teoriko-praktikoak antola ditzake, antola, niregatik internazionalak, euskara zabaltzeko eta irakasteko metoduei buruz: Alfabetakuntzarekin, hizkuntz akademiekin, etab. kolaborantzan edo. Irakasteko metoduei buruz San Diegoko MacMurraughek hemen esan zuenak interesik franko biztu zuen. Jendeari asko interesatzen zitzaion arazo bat ukitu zuen seinale. Antola ditzake UZEI edo Elhuyarekin kolabo-

rantzan adibidez, lexiko espezializatuetakoa lanari buruz ere kongresuak. Ez luke kalterik. Baina urgenteena eta Euskaltzaindiaren eginkizun behinena, «Jagon» sail bat ere baduelako, eta larri gabiltzalako, horixe ote litzatekeen, ez nago batere zihur, batez ere horrekin bestea —ikerketa kongresuak— utz litekeela adierazi nahi bada. Gauzaok, «Iker» eta «Jagon» alegia, modu alternatiboan planteatzeko arrazoirik ez bait dago. Nik behintzat ez diot bat egin beharrari bestea utzi beharra ikusten. Eta, dena dela, euskalarien nazioarteko jardunaldiok dinamizatu eta bideratu dituen inspirazioa bestea izan da, «Iker» sailari dagokiona, legitimazio oso-oso duena bai gure herstuasunen eta bai Euskaltzaindiaren naturaren aldetik. Euskalarien nazioarteko kongresuak arrazoirik ez dira bestelakoak ez egiteko: berdin alderantziz, hasi besterik ez dauka, bestelakoak nahiago dituenak, baina gutxietsi gabe besteen ahaleginak. Beharbada hurrengo batek lehenengoak baino hobeto alderdi eta interes desberdinok elkar ditzake kongresu batberaren barruan ere. Inolaz egiterik ez legokeena, ikerketa mailan abiatu berri dugun esperentzia, euskalarien kolaborantza eta koordinaketa internazionala, abandonatzea litzateke. Aitzitik, RIEV-eraino eta, jarraitu beharra dago bide horri.

Hitz batetan: nik ez dut konpartitzen, kritiketan eta gero soilasetan maiz somatu uste izan dudana mesfida, ikerketa kongresuei buruz. Kongresu horiek «elitista» bihurtzearen kontra ere, nik neuk ez daukat ezer: aitzitik, beren naturagatik beragatik, «elitista» izan beharra daukatela, uste dut, hots, espezialistenak, espezialistok ez bait dira «elite» ttipi-ttipi bat besterik. Guztiz kaltegarri eta negatibotzat daukadana, herri honetan, zenbait sapsipraktizismo eta antielitismo da, nik ez bait dut ikusten guk nola funtziona genezakeen, beste edozein herri eta kulturak bezalaxe ez bada. Kongresu honek ahultasun batzuk izan baditu, ez dirudi arrazoizkoa huts horiek printzipiozko objektzio bihurtu nahi izatea edozein ikerketa kongresuren kontra. Alderantziz, guztion laguntzarekin, Unibertsitatearen laguntzarekin bereberki, abiatu den bidea indartzea eta finkatzea da, egin beharra dagoena. Euskalaritza ere dependentzia internazional batetan dago, herri honetan dena bezalaxe. Ikerketa beharra dugu eta, ikerketan, laguntza eta kolaborantza internazionala behar-beharra dugu orobat.

Ikerketa kongresuak, edo kongresu orokorrago batetan ikerketa saila, ikerketako sinposioak, Euskaltzaindiak euskal Unibertsitatearekin elkarlanean antolatu ahal izatea izango genuke ho-



berena. Bidezkoena ere. Eta, puntu honetan, programaren nahaspilari buruz gorago esandakoarekin lotu nahi nuke.

Oker ez banago —oso posible da zuzenegi ez egotea—, euskalariak, munduan zehar sakabanaturik, bakoitza bere aldetik ibili dira, nahiko bakarti, bakoitza berari interesatzen zitzaion aldetik, ardatz bat gabe non lotu, zentro bat gabe, funtsean euskalaritza koherente bat egon gabe. Euskalariak mundu guztian asko ez direlarik, gainera, eta gehienak euskarara bigarren edo hirugarren maila batetan bakarrik dedikatu izanik areago (zenbait kongresista ilustreri ez dakit «euskalari» eriztea ote zegoen), ezinbestekoa da, kongresu bat haiek biltzeko egiten bada, ez kongresu bat egiteko haiek bildu, programak piska bat deskontzertagarri resultatu behar izatea. Honen soluzio bakarra euskal Unibertsitatea da. Euskal ikerketak hemengo Unibertsitatean potentziatzea, sistematizatzea, zentratzea: horrela bakarrik lortuko dugu euskalari internazionalen aportazioa gure premien arabera-koa ere, praktikoagoa alegia, izan dadila, adarretatik ibili gabe, esan den bezala. Adarretatik badabil, enborrik ez dagoelako da, euskal inbestigazio koherente bat.

Euskararen ikerketa internazionalak koherentzia gehiago izango du, probetxugarriago ere izango zaigu beraz, euskararen ikerketaren inizatiba geure Unibertsitateak har dezanean. Euskal ikerketen bidea, ritmoa, testuingurua, hemendik inposa daitezenean. Praxian, euskal ikerketen plan bat edo bezalako zerbait, inposatu egingo da mundu guztian. Zientzietan ikerketak beti solidarioak dira eta. Orduan bakarrik izango da posible ikerlarien eta ikerketen dispersioa gaindiaztea. Orduan, Kalifornian edo Georgian euskal ikerketak egiten dituen tipo bat ez da izango bitxitasun sinpatiko bat, probetxu haundiko laguna baino. Eta orduan ikerlarien kongresuak ere sistema eta koherentzia gehiagorekin programatu ahal izango dira. Eginkizun konkretu-konkretuak izango dituzte kongresuek.

Gerora euskal ikerketen kongresuak eta Unibertsitatea, elkarrekin batera pentsatu beharko ditugu. Elkarrekin batera desarroilarazten ere ahalegindu beharko dugu: euskal ikerketak elkarlan internazionalen eramaten alegia. Euskaltzaindiak ikerketa kongresuok Unibertsitateaz batera antolatzen saiatu beharko du. Eta, esan den bezala, kongresu horien baitan sinposio batzuk, edo beste kongresu batzuk aparte, antolatzeko (euskara irakasteko metodoez, soziolinguistikaz, hizkera espezializatuez, etab.), horretan dabilzan talde eta erakundeekin elkartzu.

Kongresuaren inguruan behin eta berriro azpimarkatu da Uni-

bertsitatearen inportantzia: euskal Unibertsitateak euskararen ikerketan bereziki ahalegindu behar duela. H.d., historia, etab. ere ikertu beharko direnez gero, euskal Unibertsitatean, ikergai nagusia, euskal ikerketen zentroa, hizkuntzak izan behar duela.

Ikerketen objektuaz hori. Puntu horrekin batera, ordea, eta kongresuko gorabehera batzuekin ere lotuta, beste hauzi zahar bat biztu bait da berriro: euskara iker-objektu eta euskara erabil-objektuarena. Kongresu (internazional) batek euskara ikertu egin behar du, konforme, baina ez ahal du erabili ere egin behar? Unibertsitate (nazional) batek euskara ikertu behar du, baina erabili eta praktikatu ez ahal du egin behar? Hor jaiki dira berriro Oinaz eta Ganboia.

Nik ez dakit buruz-behera «maximalisten» infernura amilduko ote naizen nire eritziarekin («praxizaleen» alderdira pasatzera noa), baina minimalistekin ezin joan nindeke eta birtutezko erdibide santua bezala definitu den zentro guztiz ekilibratu horretan ere ez naiz sentitzen. Non erabili behar da euskara: oinarritzko heziketan bakarrik, Unibertsitatean, kongresu internazionaletan, kongresu nazionaletan bakarrik, euskaldun hutsak dauden kongresuetan?... Begira: «bi postura daude, maximalistena eta minimalistena, eta bion tartean ni erdian nago», erabaki liteke. Baina hauziak hain eliz-zuhurki planteatzea (planteatu aurretik soluzioa erabakita edukitzea alegia), ezer ez planteatzea da. Teorian —eta praxian are gehiago— hogeit hamar maximalismo diferente, berrogei minimalismo diferente eta mila zentro aurki bait daiteke. Arazo bakoitzean eta leku bakoitzean banan-banan (ez da berdin izango Donostian ala Gasteizen) eta konkretu ikusi beharko da maximalismoak eta minimalismoak eta zentroak non kokatzen diren. Maximalismo ahobero batzuk («bigarren kurtsoa hasi ahal izateko, denek euskara jakin beharko dute», «euskaraz ez dakien irakaslerik ez bedi onar»), badakigu gure posibilitate errealekin zerikusirik ez daukatela eta ridikuloa besterik ez dugutela eragiten. Holako estremismo batzuk aipatzea eta deskalkifikatzea erraz samarra da. Premiak eta urgentziak desberdinak daudela ere, ezin uka, nola ere ez, gure kapazitateak oso mugatuak direla, espazioak beteaz joateko. Edozeintsuk daki, orokarki, urgenteagoa dela euskarak oinarritzko heziketaren espazioa okupatzea, Unibertsitatean establitzea baino, eta oinarrietatik teilatura eraiki behar omen dugula. Baina obserbazio orokarki oso zuzen horiek, ez historiaren eta ez kulturaren desarroilorako balio duten eskema etapista bihur litezke, modu alternatibista sinple batetan aplikatu nahi izanez kero: orain hauxe bakarrik eta beste hori ez,... Gezurra ere badirudi, euskalariak ibiltzea

euskararen usadioa Unibertsitatean potentziatzeko asmoei pegak ipintzen bezala, maximalismoen beldurrez! Justu heziketa eta kultura ere behetik goraino, oinarrizko heziketatik Unibertsitatearaino, solidarioak direlakoxe, ikerketak bezalaxe hain zuzen, niri imposible iruditzen zait oinarrizko heziketaren espazioa behar bezala okupatzea, une berean polliki-polliki Unibertsitateko espazioa okupatuz joan gabe.

Gerra aurrekoei poema nazional batek salbatu zien bezain gutxi omen digu guri zientzietako zenbait adaska altu lantzeak euskara salbatuko. Alajaina! Poemarik ez egiteak gehiago salbatu ote zuen? Egin zuenak, euskara ez zuen salbatuko, baina gutxienez poema bat egin zuen. Egin ez zuenak, ez zuen ezer egin eta euskara ez zuen gehiago salbatu. Zeini egiten dio kalte zientzietako zenbait adaska altu kultibatu nahi duenak? Ez dakit zer pentsatu. Goragokoak bezain xelebreak eta onartezinak egiten bait zaizkit niri «antielitismo» eta praktizismo berriok, oso beste nondibait sortuak badira ere. Eta uste dut hemengo herstukerian eta giro pozoitsuan bakarrik ulertzen direla alternatiba edo antinomia ulertezin horiek: herriko euskara salbatzea urgenteago delako, zenbaitek ezin eraman du euskararen batasuna potentziatzea; euskararen bizitza indartzea urgenteago delako, ezin eraman ikerketa teoriko «altuak» potentziatzea; oinarrizko heziketaren espazioa okupatzea urgenteago delako, ezin eraman zientzietako zenbait adaska alturen kultiboa potentziatzea. «Bi dama gazte ikusi ditut / ezin pasarik atian». Nik ez dakit euskaldunok buruan bi ideia batera edukitzeko kapaz ote garen: bi gauza batera egiteko ezetz ematen du. Egiten uzteko ere. Lau katu besterik ez dira oraingoz eginahalak egiten hasi direnak, hasi besterik ez, eta apenas zientzien adaska eskandalagarri altuetan hori ere, eta ez zaigu gauza hoberik bururatzen, burla egitea baino, adore eta animo eman ordez.

Hau ez da lekua, ez momentua euskarak okupatuz joan behar duen espazioen arazoa behar bezala eztabaidatzeko eta lan hori zentzuz, errealismoz, nola eraman behar den, aztertzeko. Bakarrik, lekua eta momentua da, horretan saiatu beharra, saiatsen ari direnak apoiatu beharra, oinarrizko heziketaren espazioa okupatzeko ere dagoen euskara Unibertsitatean sartu beharra, Unibertsitatean euskarak oinarrizko heziketaren arazoarekin desligatu gabe ibiltzeko daukan beharra, denok daukagun elkarri laguntzeko eta ez elkar zankadilatzeko beharra, azpimarkatzeko.

Euskal mundu aspergarria oraintxe ari da búrua altxatzen, denok idazle, kritikoa, gramatikoa, linguista, etimologista, politikoa,

irakasle, periodista, propagandista, akademiko bezala ibili behar izaten genuen situazio lotsagarritik, eta badirudi egoera berrira, pluralitate piska honetara, normaltasunera, ezin ohitu garela. Ia ez dakigu dena eta ez dugu dena kontrolatzen (jakitea ere kontrol modu bat zen neurrian), zer ote dabilen euskal periodismoa, edo UEU, zer berri nobelan, zer haize poesian, kritika literarioaren moda edo modu berrienak, etab. etab. Euskal mundua ere, zorionez, geroz eta zabalagoa da, dibertsifikatua, diferentziatua. Baina lehen, gure lanean euskaltzaleok denok gure artean adiskide eta inguruan etsaiek inguratuta sentitzen baginen alde guztietatik, oraindik ez dugu lortu nonbait orduko reflejoak hasiantzea. Pertsegizio maniak. Oraindik ezin ikasi dugu, honez gero gurekin ez ibiltzeak ez duela gure kontra ibiltzea esan nahi, bakar-bakarrik bakoitza bere aldetik ibiltzea ere esan nahi lezakeela, eta absurduak direla euskaltzaleon artean ikusten ditugun pikeak eta konkurrentziak. Hasi prosa berri bat sortzeko lehenengo ahaleginak, eta horra anatemak eta kondenak: sintaxia! mordoilokeria! Metodoren batzuk egiten dira euskara irakasteko: literatura itotzen ari garela!, garraisika literatoak. «Finkatu barik, desfinkatu egin behar da euskara», sententziatuko dute literaturazale horiek berak, hizkuntza finkatu nahi dutenen kontra. Eta hauek ez dute ulertuko, literaturak bere autonomia eta bere exijentziak dituela eta hizkuntz finkapenaren zerbitzuan jartzetik ez daukala. Egiten dira hiztegi berezi batzuk (Fisika, Kimika, Politika), inori «altuegi» eta alferrikako luxu iruditzen zaizkio: haurtzaindegian edo poesigintzan enplegatzen denaren beharriazetatik begiratuta izan ere halaxe bait dira, baina beste askoren premietatik ez. Berdintsu gertatzen bait da, kongresua adarretatik zebilela iruditu zaienekin, edo oinarritzko hezkuntzaren barrutia okupatu beharraz konbentziturik, euskara Unibertsitatean sarrarazi nahita ahalegintzen ari direnak errezeloz eta susmo gaiztoz begiratzen dituztenekin. Euskal Herrian seguruenik ez dago, beste euskaltzale mordo batek arras kaltegarritzat edo alfer-alferrikakotzat jotzen ez duen lanen edo moduren batetan ari ez den euskaltzalerik. Alde guztietatik sabotaiariek eta konspiradoreek mehatxatuko balute bezala guk geuk, euskararen eta Euskal Herriaren onerako, daramagun lan guztiz inportantea eta urgentea.

Lehenengo «euskalarien nazioarteko jardunaldiak», gure arteko ia gauza denak hasten diren bezala hasi dira: errezelo eta mesfida artean. Orduan, inportantzia xelebrea merezi izan duten anekdotaxo batzuk, ez dakit beldurgarri ala dibertigarri diren: elkarrekin ingelesez aritu omen ziren bi euskalarien eskandaloa,

etab. Denok dakigu edukazioa, taktoa, situazioaren zentzua, edo soilago zentzu komuna, gutxienez edozein printzipio haundi adi-na konprometaturik ibiltzen direla holako gorabeheretan. Baina hemen segituan seguritate nazionalako problema bat sortzen zai-gu... Kongresuak egiten ere kongresuak eginez ikasiko dugu, polliki polliki. Eta euskaltzaleon artean oraindik nagusi dugun giro itoa, sapa, sargori errea, liberaltasun eta kolaborantza aire berriz piska bat freskatzen joan ala.

Bukatzeko, eta pentsamentua hurrengo kongresuan dudala, Jose Ramon Etxebarriaren pasartetxo bat aldatuko dut honera: «Zeren eta inork ez baitu ukatzen, euskarari buruzko ikerketak beharrezko direnik. Baina ikerketak mediotzat hartu behar ditugu euskararen bizitza indartzeko. Ostera, nik neuk, helburua eta medioak nahastu samar aurkitu ditut, ihardunaldietako giro nagusia ikusiz». Kongresu bat antolatzerakoan, helburuak garbi eduki beharra dago, medioak seinalatzen eta proportzioak gordezten jakiteko. Nondibait hasi beharra zegoen, hasi. Baina gerora euskararen prestigioak eta, nekez legitimatuko dute hain kongresu garestirik. Eta kongresua euskalariak elkar ezagutzeko dela esatea, ongi dago modestia piska bat antolatzaileen aldetik, baina —azken finean oso serioa ez dirudi, ezta? Hurrengorako beharbada ideiak piska bat garbiago izango ditugu, zer egin nahi dugun eta nola egin behar dugun.

J. A.

# JAKIN

## **LANGABEZIA** **Euskal Herrian**

Euskalarien Jardunaldiak  
Euskal lirika gortesua  
Euskadiren kontzeptua galdu

Urria  
Abendua

**16**

1980

Piaget hil da • Literaturaren eboluzioa eta euskal prosa • Peñiscolako gaztelua • Euskadiko IV Pedagogi Jardunaldiak • «Gernika» • «Esan eta Esango»

## JAKINen GAI NAGUSIAK

- Nazio arazoa Soviet Batasunean
- Nazio ukatuak European
- Hizkuntza eta politika
- Filosofo Berriak
- Ipar Euskal Herria
- Nafarroa
- Ekologia Euskal Herrian
- Hauteskundeak Euskal Herrian
- Mikel Zarate
- Zaitegi eta Euzko Gogoa
- Euskal Estatutua
- Euskal Kanta Berria
- Euskal Unibertsitatea
- Bertsolaritza

**JAKIN**

aldizkaria • Ategorrieta hiribidea, 23, 1.<sup>o</sup>, esk.  
Donostia - 13 • Tel. 27 17 13

Urteko suskripzioa: 1.000 pta. Alea: 300 pta.